

PEDAGOGIA- IKASTAROA

“ ROSA SENSAT ”

a . a . p . s . a

Paris 204, pral.

Euskaraz : Larresorok

PEDAGOGIA - IKASTAROA

TXOSTEN

H. A. B. E.
Liburutegia

PEDAGOGIA — Hastapen - Ikastaroa

LILITEGIAK - Jarraipide

- Haurtxoa** 1 - Nola aztertuko - *Jordi Cots*
2 - Kontutan hartu behar diren oztupoak - *M. Antonia Pujol*
- Ikas-taldea** 3 - Ikas - taldea - *Jordi Cots*
4 - Erakasle-haurra harremanak - *M. Ant. Pujol*
5 - Haurtxoen arteko harremanak, Gizarte-bizieraren hasera.
Elkarte-bizieraren hasera - *M. Ant. Pujol*
- Lana** 6 - Lilitegiko ekintza-mordoa - *M. Ant. Pujol*
7 - Ikasaldia : banaketa eta ikaskai baten prestaera. *MA Pujol*
- Eskola** 8 - Eskolan kontutan hartzeko puntuak - *Jordi Cots*
9 - Guraso-Eskola harremanak - *Jordi Cots*
10 - Erakaspenaren arazoak gaur eskola-aurreko mailan.
Mahain borobila.

LEHENENGO MAILAKO ESKOLA - Jarrapide

- Haurra** 1 - Nola aztertuko - *J. Cots*
2 - Lehenengo mailako haurra - *J. Cots*
- Ikas-taldea** 3 - Ikas-taldea - *J. Cots*
4 - Erakasle-haurra harremanak - *Isidre Creus*
5 - Haurren arteko harremanak - *Isidre Creus*
- Lana** 6 - Nola presta ikasaldia - Ikaskizunak - *Isidre Creus*
7 - Aukera batzuk : banan-banan, taldetan - *Isidre Creus*
- Eskola** 8 - Kontutan hartzeko puntuak - *J. Cots*
9 - Guraso-eskola harremanak - *J. Cots*
10 - Erakaspenaren arazoak gaur - Mahain borobila.

LILITEGIA - HAURTXOA

Nola aztertuko
Lilitegian kontutan hartu behar diren helburuak

LEHENENGO MAILAKO ESKOLA - HAURRA

Nola aztertuko
Lehenengo ikas-mailako haurra.

HAURRAREN AZTERKETA

Har dezagun abiaburutzat heziketaren ideia bat :
Pertsona bihurtzeko edo bilakatzeko giro egokia eskaintzean datza HEZIKETA : beste modu batera esateko, alde guztietatik haurraren haztea laguntzean.

Hori lortzeko, aurrenik ezagutu egin behar da haurra, honen jokabidea ahalik eta ongienik ezagutu.

Eskolan hiru alor eskaintzen zaizkigu haurren jokabidea aztertzeko :

- ESKOLAN BERTAN . Honetan saiapide batzuk daude :
 - a) besteekin elkartean bizitzen;
 - b) norberaren nortasunari eusten;
 - d) gure kulturak premiazkotzat daduzkan ezagutzak biltzen.
- SOLASALDIETAN. Hauetan garrantzi handiagoa dute soin-indariak eta eraginak.
- ESKOLATIK KANPOKO EKINTZEN BITARTEZ. Hauen bidez azter daitezke giroari dagozkion kultura-kutsuak.
Haurra aztertzeotan erakasleak dituen aukerak.
- NUN AZTER :
- ESKOLAN . Haurraren jokabidea aldatu egiten da eginkizunen arabera :
 - a) ikaskaien arabera batetik : aritmetika, idazkuntza, . . .
- dohainak, gaitasuna

- hartutako lan-ohiturak
- izakera
- talde-giroa

H. A. B. E.
Liburutegia

b) talde-lanean :

- elkar-laguntzaren maila
- berezko taldeak
- bere buruarekiko konfiantza

d) sortzapen-lanetan : antzerki, marrazki

- bultzamena
- haur herabetia
- lehendabiziko paperak

– JOLASALDIETAN

- Soin-indarra
- buruzagia
- parte-hartzearen handia ala txikia
- segurantzia
- taldean parte-hartzea

– ESKOLATIK KANPOKO EKINTZETAN

Oinarriztat haurrarekin berarekin izaten den elkarrizketa hartuko da, baita gurasoekiko elkarrizketa ere.

Haurraren azterketan kontutan hartu behar diren puntuak (oinarriztat aldakuntza-aldiak ongi ezagutuz)

- 1 - soinaren hazkundera : luzera, mogimenduen jabetasuna, trebetasuna.
- 2 - buruaren hazkundera : ulermena, arreta, oroimena, mintzamenaren zuzena, jakin-mina.
- 3 - gizarte-hazkundera : elkarrizketa, elkarte-nahia, adiskidetasunak, berezko taldeak.
- 4 - bihozkadaren hazkundera: nagusiekiko menpetasuna, norbere buruaren jabetasuna, jatortasuna.

Liburu-laguntzatat :

“ *L’ estudi del comportament des infants* ”, G. Driscoll.

“ *Hacia una pedagogía del siglo XX* ”, Aida Vasquez.

1 - MATRIKULA - TXARTELA

Zenb.

Deitura Izena

Sortua Herrialde

Epaietxean idatzia,gn. liburuan

Bizilekua : kalean Telef.

Aitaren izena n sortua,

Aitaren lanbidea : lanean ari

Amaren izena n sortua,

Amaren lanbidea : lanean ari

Anai-arreben izenak eta adinak

Fameliarekin bizi diren beste senideak : aitona-amonak, osaba-izebak, e . a .

Fameliaren aldakuntzak : aldaera, gizarte-aldakuntzak eta abar .

Beren artean gurasoek hitzegiten duten hizkuntza

Aitak haurrarekin amak haurrarekin

beste senide edo etxeko lagunek haurrarekin

Erljioa eskuarki pratikatua ala ez

Eskolaldia hastera doan adina erakas-lekua

Iritsitako maila egokiera

Emandako hileroko soldata

Sar-eguna

KONTUAN HARTZEKO SOIN - ZERTZELADAK

Haurregitea : eskuarra, zaila . . .

Lehenengo hilabeteen hazkundera : eskuarra, . . .

Eritasun larriak

Istripu Hartutako txertoak

Ikertu ahal du berezilariren batek : psikologiarik, eta beste

Sendagile-tratamendu berezirik? Ezkerti?

Mintzomenezko eragozpenik ? Nola lo-egiten du?

Esfinterren jabetasuna? Ongi jaten? (zenbatasunez, denboraz).....

Bildur ahal zaio ezer bereziri?

Kontutan hartzeko etorkia

Beste ohar batzuk

Izakerazko ezagugarririk nabarmenenak
 Haurraren jokabide eskuarra : anai-arrebekin, eta abar
 Astiaren banaketa : TV-aren partea, eta abar

2 - BETEBEHARREKO TXARTELA (behar dena azpi-marratuz)

- gurasoen aldetik (lehenengo edo bigarren elkartzetik aurrera)
- erakaslearen aldetik (urtero)

Haurraren izen-deitura
 Betetzen ari den eguna Haurraren adina
 Betetzen duenaren izena

A) FUNTSEZKO ELEMENDUAK -

- Soinekoak : 1 - bizia / motela
 2 - mogimenduen jabe, ala ez
 3 - ausarta / bildurtia
- Arimakoak : 1 - alaia / izutia
 2 - barnekoia / kanporakoia
 3 - egiatia / gezurtia
 5 - bere buruaz fio / zalantzakorra
 6 - besteei emana / berekoia
 7 - errealitateaz jabetzen, ala ez.

B) EKINTZAK (bere buruzkoak)

- 1 - gogoz hartzen - gogorik gabe
- 2 - arretaz egiten - arretarik gabe
- 3 - taxutsua - zabarra
- 4 - bere buruz jokatzeko - ez
- 5 - zailua / motela

D) ELKAR - LAGUNTZA

- 1 - esanekoa - ertena
- 2 - besteekin bizi da / galerazi egiten ditu
- 3 - elkarte-lanetan parte hartzen du / ez du hartzen
- 4 - fidakorra / aiherukorra

3 - GURASOEKIKO ELKARKETAK

(txartel osagarria; aurreko urteetako txartelak ere kontutan hartu behar)

Deitura Izena
 Adina Ikastaro Maila
 Elkarketa egin duen erakaslea Eguna
 Arrazoina: gurasoek eskatua, erakasleak eskatua, eta abar.....
 Parte hartu dute: aitak, amak, bi gurasoek
 Ikututako gaiak eta erabakiak (erabakirik baldin bada)
 Ohar batzuk

atzekaldean : hurrengo elkarketan aipatzea komeni izango lirakean puntuak, eta "ohar batzuk" delakoetan beharbada aipatuak.

ELKARKETAN GOGOAN HARTZEKO GAIAK

- 1 - Etxean harekiko hartua dagoen jokabidea. Erantzuten dituen eragi-leak. Fameliari buruz, zabaltasuna edo hitxikeria.
- 2 - Astiaren erabilketa : zenbat ordu pasatzen du telebistaren aurrean; nola pasatzen du igandea; zer du maiteenik: liburu, marrazki, kirol, eta beste.
- 3 - Elkarturik bizi den pertsona nagusiekin nola bizi da? Nola deritzate?
- 4 - Anai-arrebekiko harremanak. Nola deritzate? Zertan jostatzen dira? Txikiak errespetatzen ahal ditu? Haien gauzak baketan uzten ahal ditu? Bekaitz ahal zaio inori,?
- 5 - Lagunekiko harremanak. Zer lagun du? Zer ekintza egiten dute elkarrekin? Kanpo aldean zer lagun-mota hautatzen du?
- 6 - Eskolari dagokionez, nola deritzate etxekoek? (egokitua, desegokitua). Zintzotasun-hutsak izatekotan, zergatik gertatzen zaizkio? Eskolako haren jokabideaz nola hartzen dute gurasoek? Aldez ala aurka?
- 7 - Gai bakoitzean haurrak duen frutua aztertuko da. Eragozpen haseraren araberakoa.

4 - HAURRAREN TXARTELA, ERAKASLEAK BETETZEKOA

(gurasoentzako txostenarentzako oinarri gisa balio dezake)

1 - JOKABIDEA

1.1 ... 1.2 ... 1.3 ...

1.1 - Azalpidea : serio / uzkur / alai / ameslari / baketsu / motel / lagunartean mintzatzeko trabatua / esakuntza egiatia eta ongi borobilduak egiten / mintzatzea gostatzen (dela gaztelera, dela katalanera)

Sendikortasuna : hunkitzen duen egoeran, bere erantzuna zentzuzkoa da / harrigarria / kemenik gabe gelditzen da, errazki berotzen.

Ezinegona : ez daki geldirik egoten, / azkazalak koskatzen / etengabeko ezinegonean / gauzak hondatzen ditu.

Egiatzotasuna : Ia beti egiatia / herabetasunez dio gezurrik / eskuarki esaten ditu gezurrak / ameslaria.

1.2 - Eskolako eginkizunen aurrean : ardura bere gain hartzen du edozein kargu edo betekizun ematen zaiolarik / barreiatua / zentzuduna / umorearen arabera aldakorra / bere buruan konfiantza badu / oso zalan-zakorra da / aginduak betetzen / eutsi egiten du.

Eskolako jokabidea : gaizki jokatzeko izutiegia / bihurria oso / konfiantzaz sobera baliatzen / tratagaitza / jokabide normala.

1.3 - Zintzotasuna : garaiz bihurtzen da etxera / garaiz jokotik bihurtzean / ikasgelaz aldatzean / eginbeharrak haste-ko eta bukatzeko.

Txua : bere tresnak galtzen edo ahaztutzen ditu / ongi atxikitzen ditu / utzi egiten ditu, edo ez ditu / nola duen bere kajoia / nola bere zorroa / nola bere liburuak / ongi zaintzen du bere lanen presentakera?

2 - BESTE HAURREKIKO JOKABIDEA

2.1 ... 2.2 ... 2.3 ...

2.1 - Lagunartea :Lagunartea maite du / lagun bakar bat daduka / ia - ia ez - ikusia egiten die gainerako haurrei / harrosko / maiz bakarrik / taldetara sartzeko amarroan / besteen mesedeak erosten saiatzen da / nabarmentzea maite du.

Jokabideak : ez du behinere istilurik jartzen / erronka botatzen sarritan / zirikatzen baldin badute, bortxabidea hartzen / haskotan erritan eta saltsatan / harroputz besteen aurrean / pailasoarena egiten du / eskolatik

maisua joatean, gaizki jokatzen du.

- 2.2 - Ekintzetan : bakarrik jolastutzen da / haur handiagoeekin jostatzen / besteak idurikatzen ditu / eskolako lana egiten duelako ongi estimatua / talde-lanetan parte hartzen / bazterrak nahasten ditu.
- 2.3 - Besteek hari buruz : maite dute / urruntzen zaizkio / bakarti / iseka egiten diote / herriko / "buruzagi".

3 - ERAKASLEAREKIKO JOKABIDEA

3.1 ... 3.2 ... 3.3 ...

- 3.1 - Batez beste, erakasleari buruzko jokabidea : eskuar / izuti / bihozkor / ez du hargandik urruntzen / ahalik eta txiki-ena harekiko tratua / egiten duena azaltzen dio / ihes egiten die, baina haurrekin hitzegiten du.

Arretaren azterketa : zurikeria bilatzen / maisua bildu nahi luke / bere buruan arreta ez badu jartzen, hasarretu egiten zaio / nabarmendu egin nahi du / bai onartzen dena, bai onartzen ez dena / atzerakoan fidagaitza.

Galderei erantzutean : beti erantzuteko prest / batzutan bai, beste batzutan ez / urduri jartzen da / galderak egitean gorritu egiten da / arretarik gabe erantzuten.

Erakasleari laguntza eske : beharrik gabe ere laguntza eskatzen / ez du laguntza eskatzen behar duenean baizik / gutxitan behar du / nahiz laguntza behar izan, ez du eskatzen.

- 3.2 - Eginkizunetan laguntzen dio erakasleari : gauzak egiteko joera du / laguntza eskaintzen du eskuarki / eskatzen badiote, lagundu egiten du.

- 3.3 - Zigorrei buruzko jarrera : duen adinaren arabera / negar egiten du / mingostu egiten da / batzutan zurrumurrutan hasten da / oldarkor: mehatxatu egiten du, garrasi egiten du / gizaurenarena egiten du, edo gizajoa-rena / bost axola itxura egiten du / zigorraren eraginez hobeki jokatzen du / haurregi delako ez du jaramonik egiten / urduriegi dago hurrengoetan gogorazteko / laister etsitzen / gaitzespenari buruz oso sendikorra.

4 - JOKOAN

4.1 ... 4.2 ...

- 4.1 - Aldez aurretik moldatutako jokoetan : beti jostatzen eta ongi / atsegin hartzen du, baina berehala gogaitzen da alde batera eta bestera ezer egin gabe / "bost axola" / bere taldearekin ongi moldatzen da / ez daki galtzen / posturik atsekabeenak ere onartzen ditu.
- 4.2 - Oldezko jokoetan : izuti / ausarta / joko gogorre ihes egiten / bere adinerako haur-joko direnak nahiago ditu / joko astokiloak maite ditu / besteen jokoak galera / beti moldatzen da jolas ahal izateko / ez du buruzagitzak hartzen bultzatzeko.

5 - JOKABIDE NAGUSIA LANAREN AURREAN

5.1 ... 5.2 ...

- 5.1 - Axolakabe, soraio / ikasteko ahaleginik ez du egin nahi / barreiatua / ezin aurretaz luzaroan egon / jarraiki lane giten du / egun batetik bestera oso aldatzen da / batzuta gogor zaio lan bat egitea / bultzamena erakusten / gogoz egiten du bere eginkizuna / gogorik gabe egiten du / zenbait lan buruz uzkur agertzen da.
- 5.2 - Haren jokabideari buruz ohar zehatz batzuk :
- a) ikaskaiei buruz (matematika, idazkuntza)
 - b) talde - lanean
 - d) arte eta sortzapen lanetan
 - e) lan - emaitzetan.

ERAKASKUNTZA - LEHENENGO MAILA

(Gogoan har hau : 1970 - XII - 3 - ko BOE delakoan azaldu denez, hauxe izango da noten neurketa ERPA - rakoan :

"aparta", "biziki ongi", "ongiri", "aski", "ez aski", "oso gaizki")

Balio - neurketaHizkuntza

Irakurreraren ulerkuntza
 Irakurreraren azkartasuna
 Berezko idazkera
 Idazkera ikasia
 Ahozko azalketa
 Idazkizko azalketa

Matematika

Problemen ulerkuntza
 Logika - bidea
 Neurriaren ideia
 Karkuluaren azkartasuna
 Operazioen zehaztasuna

Azalpide plastikoa

Esku - trebetasuna
 Marrazkiaren teknika
 Kolorearen jabetasuna
 Irudimena

Azalpide dinamikoa

Musika - sendikortasuna
 Erritmoa
 Zalutasuna
 Jasamena

SAIAPIDEAK

Oharketa
 Elkarketa
 Sintesi - mena
 Oroimena
 Denboraren ideia
 Espazioaren ideia

Ahozko azalpidean koska zehatzak
 Izkribuzko azalpidean koska zehatzak
 Besterik

.....an behar du laguntza berezia
 Ondoko ikaskintza egiten ari

ERAKASKUNTZA - LILITEGIAN

Oharrak (ikus ondoko orria)

Saila

HIZKUNTZA

Ulerkuntza
 Ahozko azalpidea
 Ipuina
 Irudia
 Bi - mintzo - tasuna

IRAKUR - AUREA ETA IDAZKUNTZA

Soin - eskema
 Ariketa sentzori - mogitzaileak
 Espazioaren egituraketa

MATEMATIKAREN OINARRIAK

Sortak
 Banaketak
 Ezkonketak
 Mailaketak
 Zenbakuntzak Antzak

GAI MAMITSUA

Oharketa
 Saiaketa - kondaira

AZALPIDE PLASTIKOA

Oldezko marrazkia : sakona, itxura
 Gai bakar bati buruzko marrazkiak
 Beste teknika batzuk: lohia, papera, kolaketa.
 Kolorea

AZALPIDE DINAMIkoa

Dramakuntza
Musika
Mogitza
Joko

LILITEGIAK

Noratzeko, gurasoen txostenaren bidez.

1 - HIZKUNTZA

a) Ulerkuntza : Eskuarki esaten dena ulertzen du / Berari bereziki esaten zaiola ulertzen du / ongi ulertzen du / normalki/gutxi / beti / noizean behin / Eskolaren barruan bat, bi, hiru . . . agindu bete ditzake / eskolatik at .

b) Ahozko azalpidea : Pentsatzen duena azaltzeko eta adierazteko erraztasuna du / gutxi mintzo da / mintzatzea maite du/hitz berriak asmatzeko dohaina du / Argiro hitzegiten du, azkarregi, polikiegi. Oguzkera ona da; zenbait soinu gaizki ematen du. Aditzen denborak pngi erabiltzen ditu / Goratik hitzegitea neke zaio?

d) Ipuina : Entzuten ditu? / Erakartzen dute? / Hitzez azaltzen ahal ditu bere sendimenduak? Keinuz ote? Ipuina aditzen?

e) Grabaketa : Ulertzea gostatzen? / Hiztegia sakonki ezagutzen / Hiztegi aberatsa du / Grabaketak haren ideiak finkatzen laguntzen du.

f) Bimintzotasuna : Sakonki hunkitzen du / axalez, normalki. Hitzak nahasten ditu?

1 - IRAKURRERAREN AUREA ETA IDAZKUNTZA :

a) Soin - eskema : Bere gorputza ezagutzen du? / Bere orekari eusten dio? / Bere soin - atalak behar bezala mogitzen ditu? / Eskuina da, bi eskuetakoa / Eragozpen zehatzik badu?

b) Ariketa zentzu - mogitzaileak : Sentiduen edo mogimenaren nagitasunen bat? Bere oharmenak egokiro baliatzen ditu, eta haietaz baliatzen da. Arreta falta zaio . Baditu oreka, zalutasuna, bizkortasuna, eta bere gorputzaren indarren nagusitasuna.

d) Espazioaren egituraketa : Paperan egokiro banatzen du bere lana / hutsune zuriak uzten ditu, baita ertzak ere / Lanegiteko ongi jartzen du aulkia / Marrazkietan neurria lortzen du.

HAURRAREN PSIKOLOGI - ALDAKUNTZAK ADIMENARI DAGOZKIOEZ

Aspaldidanik, baita gaur bertan ere, adimenaren heziketa eskatzen zaio eskolari. Guk geuk ere, nahiz eta haurraren beste dohainak lantzeko beharra aitortuz ere (sendikortasuna, azalpi-deak, elkarterako dohaina), adimenari ederresten digu bereziki eta denarekin oso loturik atxematen dugu.

Beraz, nola ikasten duen : horra hor eskolaren funtsesko problema bat; beste modu egokiago batera esateko : nola eskolatzen da haurraren adimena.

Erakasle - ikasle loturaren gorabeherak (moralaren eta sendimenaren mailan) oraingoz alde batera utzita, hauxe da Pedagogiak eraso duen lehendabiziko arazoa. Pedagogia didaktikoari buruz Hans Acbli-k eta Jean Piaget-ek idatzi duten liburuan, egile hauek, Ginebratik, zenbait kondaira-dato eman dute adimenaren heziketari dagokionez.

Berek eskola zaharra deritzaten Europako eskolak, joan den mendekoa, eta Herbart eta Eskola Enpiristaren eraginez, hauxe hartzen zuen erakaspidetzat :

Irudiak + hitzak + irudiak + . . . = ideia, kontzeptoa

Ohar honi : nola sartu diren tartean Eskola Berriaren atal berexiak, nola erantsi diren inguramendu berezko eta gizarteko ekintza, arte-lanak.

Dewey-ek honela azaltzen du lehen mailako eskolaren pedagogi-bidea : Behar baten erantzuna den gauzak, interesa piztutzen du horregatik + lan-plan oso batetan sartzen den ekintza = jokabide argitua.

Gure lehen mailako eskola elikatu du askotan Dewey-k, eta honen bitartez heldu zaizkigu askoz ere interesgarriago diren Decroly eta halakoak, gure artean Gali jaunak ongi azalduak. Oihal-txartela, Udarako Eskolan haseratik presentatua, horren etsenplua da.

Piaget-ek azkenek, horren gartsuki Gali jaunak gomen-datua eta irakurrarazia, adimenezko operazioaren ideia sakondu zuen, honek eramaten bait zuen jokabide argitura. Hau izan liteke adimenezko operazioa:

axalago ala barnago, ekintzaren barneko eskena

barnetik hasteko modukoa, alegia, kanpoko eragimen menpekoa ez

itzulgarria, aldez aurretik alde bakar batera ez bortxatua, baina bestaldekoari ere aukera utziz

elkargarria, alegia, beste eskemarekiko elkarketa uzteko modukoa, eta elkarterako, pertsonen artekoa, elkar-laguntzeko egiteko modukoa.

Piaget-ek, beraz, Dewey-ren ideiarekin sentiduaren aldera jotzen zuen, gauza eta barne-egiketa berezten zituen; eta elkar-tearen eta elkar-laguntzaren bitartez egin nahi zituen aldakuntzak.

Baina Piaget-ek bataiatua duen adimen-operazio delakoa, haurraren psikologi-aldakuntzaren ondorioa da, Piaget-ek aldaera oso zabaletatik hasita azaldua.

Piaget-en arabera, hauek lirake oinarrizko aldakuntzak:

1 - Bereketa : giroko zerbaiten erasketa organismoan;

2 - Egokiera : soin-aldakuntzetan gertatzen den aldaketa giro edo inguramenduko eraginak direla kausa.

Oreka dinamikoan dauden aldakuntzak; maila berri bakoitzean berriz egingina eta desegina.

Psikologiaren aldakuntza-urratsak, adimenari dagokionez, ezagutarazten dituen ekintzen arabera azalduko dira.

Egia esan, haurraren jokabidea aztertuz eta ikutuz, adimen-egiturarekin batera doa hura sortuz, eta ekintza desberdinetan mamituaz.

Piaget-ekin batera uste dugu jokabide eta ekintza mota horiek herronka agertzen direla, elkarren segidan alegia; nahiz ez adin berezi batetan, ezta zeazki eta behingoan noiz esateko moduan. Ez dira kontutan hartu behar honelako arazo zail batetan berezko zailtasun horiek (alegia, pertsonari eta inguramendu zehatz horri dagozkionak), baizik-eta baita ere haurraren bere ikutua izango duen giza-giroaren aldaketa etengabe eta azaleratua.

Gauza bat dago argi, halere: urrats batek hurrengo funtsatzen duela; baina ekintza berriak agertu ala, lehenago agertutakoak aldarazten dituztela.

Bihotz - segurtamena : Gauza ageria da, noski, pertsona - lotura horien bitartez, eta haurraren nortasuna kontutan hartzen duenari, haurrak bere hazkunde eta eboluzioarentzako behar duen bihotz-segurtamena eskaintzen zaiola.

Hori iortzeko, pertsona-lotura eta harreman mordo bat irun behar du eskolak: erakaslea-haurra, haurra-ikastaldea, eskola-familia,; harreman hauek haurraren adinaren arabera aldatuko dira, baina helburutzat hau dadukate: hazkunde pertsonalari aukera eskaintzea eta segurtatzea.

Ekintza psiko-mogitzailea : Haurraren lehendabiziko bi urteak, ekintza sensorial eta mogitzaileak betetzen dituzte, alegia, Haurtegi-tako bolara gutxi gora-behera. Eta horretan maitzen dira soinaren egokiera, gorputzaren jabetasuna, baita gauzei eta pertsonaei buruzko bere egoera, denboran eta espazioan

Inarkun edo funtzio semiotikoa : (sinbolamena, beste hitz batez) . Bi urteen inguruan, Piaget-ek funtsatzen duenez, agertzen da haurraren inarkun semiotiko deritzan dohaina: alegia, sinbolamena, sinuen eta sinboloen erabilera, bai hartzeko bai sortzeko. Errealitatea sinbolo edo sinu horien bidez ulertuko da aurrerakoan, sinbolo edo sinu horiek errealitate horretatik aparte izan arren. Keinua, marrazkia, hizkuntza, haurraren dohain horren lekukoak dira; eta horren mamitzeak Lilitegiaren urratsa betetzen du gutxi gora behera. Gehixeago beharbada.

Logika-operazio zehatzak : Maila honetan bertan, eta sinboloez eta sinuez egin daitezkean jokoek azkartua, logika-

aurre bat aipa daiteke eta logika-operazio zehatzez ere bai ia-ia. Hauek 7 urteetatik aurrera hazten dira gehienik. Operazio hauek aztertu ditu Piaget-ek, baita elkarrekin alderatu ere. Hauek esate baterako: irizpide bat baino gehiagoren araberrako sortak, sorten arteko harremanak, funtsezko irizpideen araberrako sorten prestaera, lumeroa abstrazio gisa, espazioa neurriaren oinarri, denboraren eta abiadaren harremana, eta abar . . .

Logika-operazio osoak : Gero azkenik, gauza eta sinu zehatz edo konkretoak baliatuz ez-ezik, hitzez mugatutako hipotesiak baliatuz ere lanegiteko dohaina agertzen da haurraren, alegia proposamendu ahozkoz lanegitekoa. Benetako pentsakera formalak agertzen da, eta honek posible diren aldakuntzen mordoan ezar dezake errealitatea. Jokabide honen jaiotza hamaika eta hamabi urteen inguruan ezartzen du Piaget-ek; hau da, EGB delakoaren bigarren mailan barrena.

Denboran barreneko elkar-eragina : Urrats edo maila bakoitzean bezala, lehenago agertutako "azpi-egitura" lantzeari ekin behar dio, ez beti behar bada oso bidez, hura berrietzeko eta egokitzeke; eta haurra hurrengo mailarako prestatzen ari dela ahaztu gabe.

Esate baterako, ekintza mogitzaile eta tresnatuan, mogimenduaren ematearen kakoa aurkitzen du haurrak, baita bultzada eta freinuena, bere sinbolameraren oinarriak moldatzen hasten da, eta fisikazko kausatasunaren logika-zimendurak pausatzen. Alderantziz ere, gaztetxoak, logikaren hazkunderekin batera, bere sinbolamena borobiltzen du, eta bere sentso-mogitza zorrozten.

Indar - taula

Aurrerakoan, beraz, ondoko indar-aula hau kontutan hartzea gomendatzen dugu:

Logika-operazio abstratoak
 Logika-operazio zehatz edo konkretoak
 Sinbotatzeko ahalmena
 Psiko-mogitza

Adibide bat : kolorearen ideiaren aldakuntzak haurraren

Haurtegian, inguramenduko eta gauzen koloreak hartuko dira kontutan, haurrak erabiliko dituelarik berez eta ezagu ditzan.

Lilitegian, anketa sentsorial batzuk egin daitezke (koloreak oinarri: koloreen ezkonketa, oharketa, taxuketa), marrazkia moldatzeko moduak, hizkuntzaz (izenak eta adjetiboak), lehenengo banaketak, operabide eta banabide gisa kolorea hartuz (mordo logikoak), eta abar.

EGB-koaren lehenengo mailan, oinarritzko koloreen eta bigarren mailakoen berezketa, lehenengo nahasketan prestaera eta horien legeak, kolorearen erabilketa zehatza, izena eta aditza koloreari buruz, kolore-ezagugarria, azalpide plastikoan kolorearen betekizuna, eta abar.

EGB-koaren bigarren mailan, kolorea eta argiarekin duen harremana, larruaren kolorea eta bere betekizuna, kolorearen harrera begi-ninian, hizkuntzaren zorrozketak, sendikortasuna eta kolore-dioen erabilketa, eta abar . . .

Piaget-ek emandako taularen arabera, eta erakasle garen aldetik, hauek ikustea komeni litzaziguke:

1 - Klaseko lanari dagokionez, noraino lagun gaitzakean ondorioak ateratzen eta ariketak prestatzen;

2 - noraino azaltzen dituen haurren eragozpen bereziak eta gailentzen laguntzen duen.

3 - nola erabil ditzakegun zientziaren ekarri horiek programa desegokiak hobetzeko.

LILITEGIKO HAURRA : ESPERENTZIAREN ERAKASPENA

Piaget-ek dionez, jaiotzean hasi eta nagusi-aroan burutzen den psike-hazkundera, orekarako bide baten kurritzea baizik ez da. Nolapait esateko, oreka-hartze etengabea da, egoera koloka batetik irmoago batera pasatzea da etengabe, behereko oreka batetik goreneko oreka batera.

Hori dela-ta, bai haurraren bai gaztearen, barnearen hazkundera montaje zail baten antza du, eta etengabeko eraikialdi bat da. Moldaketaren urratsek hau dakarte:

osotasunean gero eta malguago eta mogigarriago dela barne-
-eraikiera, eta oreka gero eta iraunkorrago.

Horregatik, orekatasunerako bide honetan, estabili-
daderako abiada honetan bestela esateko, desberdin eta elka-
-ren osatzaile diren bi aurpegi hauek berezi behar dira. Badaude:

- egitura aldakorrak, edo orekaren itxurak ilaran;
- etengabeko inarkuna edo funtzioa, beti ari, oreka-

-molde batetik bestera pasatzea segurtatzen duena.

Esate baterako: haurra eta nagusia alderatzen baldin
baditugu, diferentzi-mordo bat aurkituko dugu bien artean.
Alde batetik bakoitzaren interesen mailan (honengan eta haren-
-gan jokia eta lanbidea), hauek egitura aldakorrak izaki, alegia,
bi maila horietako oreka-motak; eta beste alde batetik, erantzun
mota berberak aurkituko ditugu biengan (biek dakite zer nahi
duten, eta interes zehatzek eraginik mogitzen dira); eta hauek
dira, hain zuzen, maila batetik bestera pasatzeko dirauten edo
irauten duten inarkun edo funtzio aldagabeak.

Gauza bat oharrerazi behar da: oreka-molde horiek
markatzen dituztela bi mailaren arteko liferentziak - baita aur-
-katasunak ere - eta bi jokabideen arteko liferentziak: urratsek
eta aldakuntzek oro, nahiz itxuraz aurrerako edo atzerako
pausu izan, helburu berbera dute beti gidari: heldutasun edo
umotasun handiago baterako nahiak eraginak. Era berean,
urrats eta maila bakoitzean, haurren jokabideak beti adiera-
-ziko du hau: edo agertu den behar berriari erantzuteko modu
bat, edo koloka jarri den oreka segurtatzeko edo finkatzeko
bidea.

Eskuarki esan daiteke, beraz, ekintzak, mogimenduak,
pentsamenduak, sendimenak, denak, helburu hauek dituztela
gidari :

1 - edo pertsonak edo gauzak norberaren ekintzara
biltzeko beharra (= kanpoko mundua edo burututa dauden
egiturak barnatzeko eta beretzeko beharra)

Bedi ere haurrak honela jokatu du :

- adimenaren arabera, mogimenduekin batera tresnak

eta jokatzeko teknika prestatuz;

- sendimenaren arabera, eragileak, baloreak eta funtsa-
-bideak honek eskainiz, eta ekintzara deituz.

Beti dena maila pertsonalean eta gizartekoan batera.

Lehenengo haurtzaroa deritzan maila, 3 eta 7 urteen artean jar daiteke; eta ezagugarritzat, larri-larrian, oreka-molde hauek ditu:

<u>3-4 urtetako maila</u>	<u>aurreko mailak gaindituztat ematen ditu</u>	<u>hurrengo mailak prestatzen ditu</u>
a) Intuiziozko adimena	- erreflejoak eta oldezko joerak. - mogitzeko joera - adimen praktikoa	- adimenezko operazio zehatzak agertzen (logika) 7 - 12 - adimenezko operazio abstraktoen sortzea(gaztaroa)
b) oldezko sendimendu pertsonalak	- oldezko joerak (atsegina, atsekabea) - lehenengo sendimendu bereziak (poza, tristura, arraketa, lurjotzea) - sendimendu-jabetasuna: mundutik norbera berezi, eta nor bere buruarekiko interesa.	- moral eta gizarte sendimenduak elkar-laguntzarako, 7 - 12. - nortasunaren moldaera (gaztarooan)
d) gizarte-harremanetan nagusien menpean	- lehenengo zirrarak - bihozkadetan mamitzea - kanpoko elemenduekin: begikotasunak eta herrak.	- bihotzez eta adimenez nagusien mundurako sarrera.

Egitura bakoitzean funtsezko dena, eraikidura berrian ere aurkitzen da. Heziketari buruz, hortaz, oso inportantea da maila bakoitza ongi ustiatua eta betea izatea.

Maila edo urrats bakoitza, beraz, oreka-aldi bat da, ezagugarri batzuk aldarorak eta iragankorak izango ditu beti, eta ondoko aldakuntzek aldarazi egingo dute; eta hori organizazio hobe eta osoago hobe baten zerbitzutan, eta goragoko oreka bati buruz (edozein maila, horretara, ez da ez bakarria ez osoa).

Lehenengo maila

Kinka larria: maila gorenera iritxi da hazkundera.

Edozein ekintzak pertsona osoa ikutzen du: egintza guztietan bera osoki barne.

Libertate apur bat badu haurrak: mogimendu nagusi-en jabe da, ibiltzen da, eta mogimendu txikiak irabazi nahi ditu (garbitzea, eta abar).

Besoek eta zangoek arreta hartzen badiote ere (lasterka ibiltzea, oreka-jokoak), mogimenduaren saiaketa berriek eskualde berriak ezagutarazten dizkiote, eta geroko adimen-bideak prestatzen: erritmo, haztamu, soineko.

Zabaldu egiten da haren ekintza, eta maila berri bat iristen.

Irribarretsu, zabal, fidakor, baikor . . . batzutan hale-re zai egotean aztun eta serio.

Haurrak, bere barne-bizia kanpoaldera egokituz bere mundua zabaltzen du: eskolara joaten hasten da.

Ondasun eta errealitateen mundu bat atxematen du, berea baino handiago eta zabalago.

Harreman hau azaltzen eta biltzen du hizkuntzak.

Ama-hizkuntzaren garrantzia handia da, hauek guztiak eskuragarri izan dakizkion. Hiztegia aberasten du: ikasi ez-ezik, erabili ere egiten ditu hitz berriak.

Hizkuntzaren erabilkeraz, berriz, haurra libroago da aurrekoak baino: ekintzari hitzak jarrai dizaioke, eta alderantziz.

Hitzez jostatzen da: misika balore, soinu, adierazkizuna. Esakuntza errazak erabiltzen ditu, beren artean loturarik gabekoak.

Sartu berria den munduak liluratu egiten du orain. Bere ahalmenak neurtu nahi ditu, bere gaitasuna, eta nagusien arabera bere egoera alderatu.

- nagusien eta haurraren artean ez dago adostasunik: nagusien mundua nahi eta ez onar-arazten zaio: ordurarte ez zuen hori erreparatu, bere burua bildua baitzegoen.

- oharkabean, konturatu gabe, badago menpetasun bat, adimenaz, sendimenaz, eta agerrerazi egiten du hau haurrak batzutan zenbait aldiz ukatu egiten duenean.

- " ez " aren aurkikundea : hitza eta jokabidea, muzinak.

- aldakuntza bapatekoak;

- nagusien hizketak, bere mundua aurkitzen laguntzen duelako, oso interesatzen du?

Baita ere alderatu nahi du lagunen arabera :

- berekoikeria, bakarrizketa, norberarentzako balio duen hizkuntza edo zirikatze.
 - joko bakartia edo kanpoko taldea
 - bestearen aurkikunde; berdintza-nahia, hitzez edo ekintzaz oldartasun bihurtua.
- eta errealitatearen eta munduaren arabera :

- errealitateak biltzen ditu barrura, baina ez ditu aztertzen: ez du ulertzen espazioa ez denbora;
 - funtsezkoa eta axalekoa direnak nahasten ditu.
 - aurrean dituen gauzak banatzen eta taxutzen ditu;
 - senaz ontzat ematen du mundu hori guztia; arauak eta betebeharrak nahi-ta-ezko iruditzen zaizkio;
 - bere ekintza pentsatzen du obratu aurretik, eta horrela bere jokabidea pentsaera bihurtzen du;
 - erantzuna ezagutzen dien galderak egiten ditu /
- eta bere duruari buruz :

- bere buruaz jabetzeko beharra (ni neu); mundutik at berezteko beharra;
- besteekin egokitu beharrez, ez du bere ikuspuntua alde batera uzten;
- bere burura bilduta segitzen du, baita taldearen erdian ere;
- bere soin-itxura aurkitzen du: panpin, jostailu, ispi-lu . . . Botatzeko inarkunak bere bereak ditu, izenak ezagutzen ditu, eta zabaltzen ere.

Osoik da bat: eragile bakoitzak, fisiologikoez batez ere, bere izate osoan hunkitzen du.

Bigarren maila

Aurrerapena, hazkundera. Bildua duen guztia baliatzen du haurrak; egituratu eta moldatu egiten du, eta saiaketa **berriak** egiten.

Tresna berri asko du, eta erabiltzen ausartu da; muga edo ertzeko egoerak maite ditu.

Dogmakoi eta harroputz kutsua utz dezake.

Handien aldetik, den haino goragokotzat jotzeko arriskua dago.

Eskola piska bat hartua du era guztietako mogimenduetan: jauzi, lasterketa, esku-lanak, hizketa.

Hein batez, bere aurrerapenaz konturatzen da.

Alderaketak egiten ditu: batekin beste bat

- adimenaren maolakoak, edo oharmenten mailakoak;

- gizarte mailan: “ ene ama ”;

- jokabidean : “ nahi gabe ”.

lanean gelditzen da (marrazki).

1 - INTUIZIOKO ADIMENA

Haren alorra, ekintza eta eskuzko erabilketa dira.

Egoera zehatzen aurrean, intuizioak eragiten du.

Haren intuizioak zabarrak dira eta landugabeak: hestuak, ezin-azalpenik: egia bere adimenak azaltzen ez dionean, magia egiten du errudun.

2 - ALEGIAZKO JOKOA

Bere hizkuntzaren zabalera handitu ez-ezik (esakuntzak gogoan hartzen, eta ikasi dituen hitz berriak erabiltzeko bideak bilatzen) sentidu berria aurkitu ere egin dio: tresna gisa aurkitu du, bere biziari erasten dio, eta egiazko mundua bere ekintzari erastekotan erabiltzen du.

Haurrak, bi gauza hauei egokitu beharrez,

- nagusien gizarteari batetik: kanpotik datozkion arauak eta interesak.

- nekez somatzen duen mundu fisikoari,

bere maitasunaren beharrak betetzera ez da heltzen, ez adimenaren eta sendimenaren mailan.

Ahal duelarik, beraz, ez da bere egokitzen kanpoko munduaren arabera ekintzaren bitartez, baizik-eta alderantziz errealitatea biltzen eta beretzen du bere nitasunaren arabera

(eta hau ez iduriketa hutsa). Horrela memento bakoitzean osoki bizitzen du pausu bakoitza.

Bir-pentsatu bakarrik ez, beraz; baina berriz bizitu egiten du interesatu duen egoera hura; eta horretarako bizigune izan den horren sinbolakuntza berezia behar du.

Gizarte-egokiaren giltzarria den hizkuntza, eginik eta osaturik heltzen zaio haurrari; horrela haurrak ez du azalpide bere-bererik, ez du berak sortuta den sinbolakuntzarik, eta bere borondatearen arabera aldatzeko modukorik.

Sinbolozko jokia, horretara, errealitatea nitasun bihurtzeaz gain, edozein joko bezala, areago: haurrak berak eraiki duen hizkuntza da, eta haurraren borondatearen arabera alda daiteke.

Haurraren azalpide askotan dago agiri joko sinboliko hori (marrazkietan eta bestetan).

3 - ASKATASUNA , LOTURARIK EZA

Jabekuntza eta aukera horiek haurraren jokabidean agiri dira :

a) askatasunez egindako jokabidean

b) lagunekin egoteko atseginean (nahiz honek ez adierazi, urrik eman ere, elkar-laguntza)

Handien jokabidea nolakoa izan, eta halakoak izango dira haurraren funtsezko jokabideak, geroago ondorio ezin inportanteagoen iturburu :

- zabaltasuna
- hitxitura
- larridura
- bakartasuna

Hirugarren maila

Oreka. Segurantzia. Aurreko aurrerapenak hartzen eta antolatzen. Adimena errotik aldatzen da: pratikoa izatetik, egi azko pentsamentu izatera pasatzen da.

Bere jabetzak berak bere buruaren mugatasunaren berri ematen dio: besteekiko harremanetan, haurrari nagusiek utzi dioten lekua hartzen du.

I - PENTSAKERAREN ALDAKUNTZA

Harreman eta lotura berrietan haurra ez da berehalaxe egokitzen, eta nekez biltzen ditu piskanaka bere ekintzara. Beti dena pentsamendu-mutur hauen artetik gertatzen da :

- bere mundua biltzen ditu ideiak (aurreko ego-ke-riaren arabera)

- besteei eta errealitateari egokitzen zaie (eta hauxe da pentsakera logikoaren sustraia)

Haurrak bere munduaren arabera taxutzen ditu ideiak: errealitateaz dadukan ideiarekin ezkontzen ditu, eta hau beti bihozkadaren eraginak markatzen du. Ikustera hau aldatuaz doanez gero, bere pentsakera eta barne-taxukera ere azkar aldatzen da. Maiz ukatua da (" eta lehoina etorri zen horretan. . . Baina, egia esan, lehoina ez zen etorri "). Haren pentsamendua joko baina serioagoa da, baina egiatik urrunago egoten da hura joko baina; egia eta errealitatea ikutzen ditu lehenengo aldiz, baina egia hori aldatu egiten du (zenbait aldetatik, lehen baina ere aldatzenago du egia, nahiz eta lortutako eskemak aurrerape-
na izan)

Haurra mintzo dalarik

" berebilak begiak ireki eta hitxi egiten ditu "

" Catalunya-ko plazako imaginak hotz ote dira neguan ? "

" hodeiek badakite aurrera doa-zela, eta aurrera nahi dute "

" eguzkiak ez du irten nahi "

" ilargia iltzaturik dago, ala ma-kila baten muturrean zintzilik? "

" harriz eginak dira mendiak, eta hauek landatu dituzte arbolak "

Haren mintzakerak bizi-arazi egiten digu

dadukan egiaren irudira biltzen ditu bere ideiak

bere buruaren arabera irizten ditu gauzak (eskema fisikoa, sendikortasuna)

bere buruaren arabera irizten gauzari (barne-eskema eta asmoa erasten)

gauza bera

gauza bera

antza duten kasuetan, bere saiaketak erasten ditu.

" Zergatik doa beheruntz harri piritaka? -- Horrela jسته dalako. - Eta badaki behean zaudela? "

ez ditu eragilea, kausa, eta helburua berezten

“ agintzen ez duelako, ilargiak ez du ditzira egiten ”

“ etxetik etorri naiz ni baina ! ”

“ euria ari duenean, atera ezin daitekeala dio gure andereñoak ”

“ buruaz pentsatu dut ”

“ bihotzaz pentsatu dut ”

“ horretan lehoina etorri zen, eta honela mintzatu zen ”

“ amonaren etxera joandako egun hartaz gogoratzen zara ...

“ zubiaren ondoko pareta zuri hartaz oroitzen zarea? ” (Bere etxea zein den galdetzen dion bati azalpen ematean)

“ Asko, asko. Ehun baino gehiago, infinito baino gehiago ”.

“ mezataria doaz gurasoekin eta osaba goian egoten diren horietakoa da ”.

“ Badakizue ? Ene aitak soldadu jarraitu du ”.

ditu berezten eragile fisikoa eta psikikoa; ezta egiatzko aukera eta morala.

arimaren bizia gaitzen du.

irudiak egiatzat hartzen ditu

denborari, espazioari eta zenbata-sunari dagokionez, abialeku bat hautatzen du.

gizarte-banaketa hau, oroitzape-nak gidari harturik egina, oso xinplea da.

2 - HIZKUNTZA

Haurrak sinboloa ulertu duelarik, hizkuntzaren funtsa hartua **du**, eta urrats gaitza emana **du** pentsaeraren hildotik.

(Kumbaya = jauna, etorri. Argi da ! ”)

Alde batetik, bildurik daduzkan pentsamendu-bideak (sortak, zerrendak), nahiz pentsamenduaren oinarria izan sahetsetik, zuzen ez badira ere, ez dagozkio halere haurraren hizkuntzari. Beste alde batetik, bere giroak edo inguramenduak osoki eginik eta buruturik ematen dio hizkuntza, eta haurra piskanaka sartzen da bertara. Heziketaren betekizuna da, jakina, hitz bakoitzaren esanahia zehatz finkatzekoa.

Haurra gizarteturik dagoen neurrian, hain zuzen, nagusientzako duten funts berbera dute hitzek haurrarentzako ere.

(Esate baterako : eskolako hiztegia)

Dituen ezagueren bidez haurrak ezin ditzake lotu egi-azki konprenitzen ez dituen harremanak eta loturak.

“ zeruraino ”

Nagusien hizketak oso eragina, gutxi gora-behera so-matzen du zer den, baina ez zehazki:

“ hain zen hotz, hutsean izkutaturik geundela ”

“ bakantzetara noa eskolara ”

“ ia-ia ez dut ipuin hau ezagutzen, ikustez ez bada ”

Haurrak erabiltzen duen hitz eta esakuntza bakoitza, guztiz berri zaizkio.

Beti ematen da antzen bat: egoeren artekoa, soinuaren aldekoa, doinuaren aldekoa, eginkizunaren aldetik, haurrak berak ala bestek egunak.

Besterik ezean, haurrak esaerez eta garrasiz marka-tzen du bere hizketaren bihozkada (et, et ! ia ! . . .)

3 - EGOERA PERTSONALA SEGURANTZIARI BURUZ

Alde guztietatik segurantzi apur bat lortu behar du. Mogimenduei buruz :

zalu dabil, trebezia (garbiketari, klasearen txukunke-tan), esku-lanetan abila, bere buruaz aski izan dezake.

Aurreratu egin nahi du, bere buruzko saltsarik gabe: gaizki irakurtzen duelarik, segur da harek ez duela ezer adie-razten; hutsegina zuen zerbait berriz egiteko gertu dago.

Besteekiko harremanak: egokitu nahi, giroaren ira-kurrera nahi, denek egiteko gogoia, bestek bezala egiteko (“nola egiten da ? ”). Berriketaren arriskua !

Setsua: bere horretan onartzen da, mailarik eta be-rezkunderik gabe. Hizkuntzaren aldetik ere fisiologiaren botatze-ari buruzko hizkera tolosturarik gabea da; nagusien itxurake-riek gaiztakerira bultzatzen dute; bere oldartasuna hizkuntzan ageri du.

LAUGARREN URRATSA

Aldaketa: aurreko urratsaren umotzeak alde guztie-tara zabaltzen ditu ekintza-alorrak, Aukera berriak, behar be-riak. Aurreko oreka gelditu egin da, eta haurraren ekintzak lortzera bultzatzen du (urduritasuna).

Bildurik dadukanak trukea bultzatzen du, eta maila guztietako interesak azkartzen. Bikoizkeria, bi-polotasuna jasan arazten.

Elkarren ukatzaile diren jokabideak hartzen ditu: edo negar egin edo barre.

Bere nitasunak eta kanpoko munduaren arteko berezketak:

- bere saiakuntzak eta bere barne-intruizioak;
- besteekin eta munduarekin dituen harremanek;
- errealitatearen ikuspenean egin duen aurrerapenak,

eta honen barnakuntzak; errealitatean eta besteen munduan jartzera eramaten dute, eta bere egoeraren eta ekintzaren arabera jukatzera.

Segurantzia lortu behar du.

1 - JABETASUNIK EZ

Fisikoaren alderditik, bere hazkundera bera eta bere aldakuntzak eta eboluzioa bere bultzaden jabetasunik ezean ezagutzen dira.

Bizia, ez du irribarrerik egiten: barre egiten du, edo negar, edo keinu egiten.

Tentsio-zartadak ageri zaizkio: kolpe, kasketak, hanken eta zangoen mogimenduak, azkazalak jaten, berekoia, uzkur egoten.

Berezko joerak: ura eta lohia berriz maite.

2 - BERE BURUAREN ISTIMUA NAHI

Bere burua errespetatzen du.

Eginahalaren beharra eta ahalmena; barne erantzun gisa kontzientzia jartzen: barnetasun-hastapena; erregela kanpokitik behartzen duen legetzat hartzen du: obeditu-beharra, hari men-egiteko beharra, bete-nahia bere buruz edo besterekin; jauzi eta gaingitu nahia.

Irizpide morala beretzako ez da nagusien nahia baizik. Egiatzko mundua errespetatzen du.

Barne-umotasunak hobetotasuna, egiazkotasuna, eta zehastasunaren beharra ekartzen dizkio (neurririk gabeko xehe-tasuna).

Adimenaren inarkun edo funtzio guztiak maite ditu: arrazoipidea, eta abar, zentzuz erabiltzen duen tresna berri bat zaio.

Egiakoari buruz badu analisisa egiteko gaitasuna; baita jeneralizatzeko ere: gertakari zehatzak edo konkretuak aztertzen dituelarik, legea bilatzen du.

Hautatu egin nahi du, baina zail zaio egiten:

- ez baitu osotasunezko ikuspenik hauta ahal izateko.

- hautatu behar dituen elementuen artean ez baitu

maila garbirik ikusten.

- aurkako elementuen artean, ez baitu aukera garbi

ikusten.

Eragileak eta eraginak ulertzen ditu, kausak eta ondorioak alegia.

Ingurutik igarotzen den guztiarekin egiten du bere burua bat.

Egiaren aurpegi batzuk ulertzen ditu, ez beti ordea funtsezkoenak (mentura-nahia).

Langile, saiaketa berrietarako beti prest.

Ezagutzera doan giro berria, ezagutua duen hartatik sobera ez urruntzea nahiago luke.

Etxeko eta eskolako munduen arabera egokitu behar du: ikasketak, lana. Ulertu eta beretu egin behar du dena, eta ohiturak hartu.

Etorkizunak eta iraganak biziki interesatzen dute (oraina baino interesatzenago biek), baita bestetango bizimoduak, beste lurraldetakoak.

3 - BESTEEN ERRESPETUA

Bere buruaz jabetu ala,

- bere ahalmenen frogaketa egitekotan, besteen aurka paratzen da;

- haien onginahia eta istimua opa ditu.

a) lagunak :

- Lagun gisa aurkeztutzen zaio besteari: talde, koadrila; edo adiskide gisa: atsekabe hartzen du eta etsita gelditzen batek hutsegina dionean.

- Mutikoak eta neskatillak desberdin jokutzen.

- Setsuari buruzko interesak agertzen:

botatzeko organoei buruzko umorean;

- setsua erakusteko joera;

- galderak: erantzuna berhalaxe ahaztua.

Giro herrikoia ren kultura; kantariak ere egoki-bide zaizkio.

Berari buruzko iritzietan.

Bere burua baiesteko, aitzekiak bilatzen.

Egokitu nahiz, bere burua erakusten du.

Harroskeria: handien esanak esaten ditu: " haurrek beti hutsegiten " !

b) nagusiak :

- gurasoak eta erakasleak ez ditu beste pertsonak bezalaxe istimatzen: maitasuna eta bildurra batera, errespetua;

- erregelak nahi-ta-ezko bihurtzen;

- obeditu-beharraren bitartez, betebeharraren senti-
dua hartzen du;

- bere buruaren baloratzea (harroxko eta erten)

LEHEN MAILAKO HAURRA

Lehenengo mailako erakaskintzak 8 ikastaro ditu :
6 - 13. 6 eta 7-tatik 12 eta 13-tara : eskola-maila, benetako lehen mailako eskolaldia.

1 - NOLA DA (alegia : dinamika baten barruan, gaur eta orantxe)

a) fisiologiaz : osasun ona, heriotza-maila txikia

- lo egiten, jaten, bizitasuna

- langile, alai

- 11 - 12 : nekea

- setsu-arazoa : ilunean dago. ARGITU

EGIN BEHAR. (nola jaiotzen da, aitaren eginkizuna ?)

- anatomiaren eta fisiologiaren aldetik jakin-mina.

b) psikologiaz : errealista, egiatia

- gauza konkretoetan finkatzen du bere arrazoinbidea.

4 ohartzen duena hartzen du arrazoinbi-
dearen iturburutzat.

- ESPAZIOA eta DENBORA orduan sartzen
dira haren barruan ideia gisa

- ideia nagusiak biltzeko urratsa.

- IKASTETIK JAKITERA abian

- oroimen gaitza : markestutzeko (edo
deformatzeko) arriskua;

- eskolako lanetarako gogoia

- jakin-min handia. Entzun eta aditu egi-
ten du.

- justiziaren sena (11-12 : objetibotasuna
galtzen)

- ongia eta gaitza berezten. Kontzientzia-
ren sorrera.

Nola senditzen du?

- aisa berotzen da

- mentura-nahia : izkutukiak, keinu izku-
tuak.

- konfiantza behar du. LOSENTXAK.

- egiazko eztena: bere aurrerapena bera.

- jokatu egiten du, barne sendimendu ilunak ager-
tzen ditu.

- oldez ari da.

- bere eskubideen defendatzaile hestu. Jabetasu-
naren sena.

- temakor. " Amak bezala " egiten du.

- Hasi duena bururatu egin nahi du.

Zer zaio atsegin ?

- irakurtzeko gogoia erakusten du, egia denare-
kiko.

- xehetasunen zalea.

- sortak maite.

- idurikatu.

- bere sortzapen-lanetarako atsegina (lantzen bal-
din bada)

- GAITASUNAK eta DOHAINAK desberdin dira.

d) gizarte-mailan :

H. A. B. E. Liburutegia

- besteak errespetatzen ditu;
- bere mundua eskola du. Haur-gizartea.
- taldeak. JOKOA
- erregela-zalea. LEGEA.
- bere gisa ez dabilenak, handiarengan bilatzen du babesa.
- bien arteko adiskidetasuna.

- nagusiaren baiespena bilatzen du
- taxu eta segurantzia behar du
- menpetasun-joera: esanekoa (ez itsu-itsuan halere)
- erakaslea jakintsuena
- talde-lanean ari izateko gauza da, eta elkar-ekintzaren parte hartzeko.

Haren hazkundera HAUR - TALDERA BILTZEKO MODUAREN araberakoa izango da.

IKASTALDEA

=====

- LILITEGIA - Erakasle / ikasle harremana
- Haurren arteko harremana, Gizarte-biziaren hastapena
 - Gizarterako sarrera

EGB, 1go. MAILA - I KASTALDEA

- Erakasle / ikasle harremana
- Eskolako instituzioak
- Haurren arteko harremanak

IKASTALDEA

- 1 - Lan-talde batek, behar bezala ibiliko bada, ibil-tresnak behar ditu.
- 2 - tresna edo lanabes horiek taldeak beretu behar ditu osoki, eta zertzeladen eta beharren arabera bizituak eta aldatuak izan.
- 3 - Erakaslearen eginkizuna honetara bil daiteke: taldea eta gizarte-giroa ezkontzen erraztea, eta agertzen diren lanabesak egokiak izan daitezen erne ibiltzea :
tresneriaren oinarria: garbitasuna, taxua, materialak. . .
erabilketa: kirol eta solas-batzordeak, sail-batzordeak, gai berezi baten azterketa-taldeak, ekintza-prestaeraren taldeak
 erantzuna : taldearen irizkera, taldeari buruz taldeak berak bere iritzia.
erabakia : taldearen biltzar osoa.

1 - IKASTALDEAREN GAUZAZKO BALDINTZAK

- Zabalera (metro laukitan)
- lan on bat galazten duten alderdiak : argitasun urria, kanpoko zarata, lekua besteren iragan-lekua; tresneria taxutzeko leku txikiegia, e. a.
- erredizeriari dagokionez, mahainak lekuz aldatzeko modurik ba ahal dago? edo elkartzeko? zurezko zorua? zenbat arbel ikaslekuan? aluntzio-oholik bai? Nolakoak dira mahainak: batekoak, bikoak,? erraran ala aldapan? aulkiak, mahainari erantsiak ala bereziak?
- zein pedagogi-tresna duzu zeure eskuetan: liburutegi, entzun-ikusizkorik, programatutako fitxarrik. . .

2 - IKASTALDEAREN ZERTZELADA NAGUSIAK

- Ikasleen kopura - - - - mutiko - - - - neska - - -
- Adina,-batez beste - - - - beheragokoak - - - goragokoak - - -
- maila
- egoera eskola-barruan: taldearen goiko eta beheko maila
- maila paralelorik bai ? Zenbat ?

3 - IKASTAROAREN AZALPENA

a) Psikologiazko zertzeladak

Adimen ahulekoa / Mugakoa / arrunta apala / arrunta /
arrunta ona / bikaina / aparta /

- etsaminean izana
- igarotako beste etsaminetan
- nork pasa ditu : psikologilariak, erakasleak, . . .
- ikastaldearen osakinak : baztertutako haurrak, buruzagiak, taldeki, . . .
- soziogramarik bai ?
- Pedagogiazko frutua neurtzeko; nola egiten da ? (dagokion lekuan ipin zazu gurutzetxo bat)
- umotasun-frogabideak / frogaketa objetiboak / lan-azterketa/ erakaslearen oharketa / autokontrolazko txartelak.
- adimen arrunt edo normaleko haurrak, baina irakurtzen eta idazten ikasteko anitz eragozpenetan trabatzen ari;
- ikaspena zailtzen dieten akats fisiologikoak dituzten haurren izen-deiturak (gorreria, ikusmen txarra, eta abar);
- nortasun-arazo nabarmenak dituzten haurren izenak.

b) Soziologiazko zertzeladak

- Haurren gurasoen artean badago :
 - . lantegi handi edo arruntetako nagusirik (10 langiletatik gorakoa)
 - . lanbide liberaletakoak, funtzionario nagusi, goreneko tekniko, lantegiko zuzendari,
 - . erdi-mailako tekniko: lantegiko maisu, perito, eta antzekoak;
 - . industriaren eta merkatalgoaren peritoak
 - . nekazari (nekazaritzako langile alokatuak ezik);
 - . bulego-jendea, enplegatu, funtzionario;

- . langile prestatuak;
- . langile arruntak;
- . besteak

- Zenbat hurrek hitzegiten du katalaneraz etxean ? . . . Zenbategazteleraz ?

- Zenbat hurrek hitzegiten du katalaneraz eskolan ? Zenbategazteleraz ?

D) Erlizko heziketa

Eskolan egiten da . . . ikasbide baten bidez gidatzen da . . .

Zeharo uzten da gurasoen eskuetan . . .

Berriaz ematen dire bizikariak, biziaren ikuskera trazezendentea azalduz ?

e) Katalanera / gatzelera

. Eskola katalaneraz egiten da . . . gatzeleraz . . .bietara . . .

. arbelean katalaneraz idazten da . . . gatzeleraz . . . aldika bietara . . .

. eskuarki katalaneraz egiten dira lanak . . . gatzeleraz . . .bietara . . .

. beti katalaneraz egiten den sailik ba ahal dago ? zein sail ?

f) Eskola / gurasoak harremana

. Zenbatero bidaltzen dira txostenak etxetara ?

. Zenbatero egiten dira biltzarrak erakasle eta gurasoekin ?

. Nork ikusten ditu gurasoak (zuzendariak, erakasleak) ?

. Zenbategazteleraz ikusten dute elkar ? Denak izatekotan, zenbat aldiz ?

. Beste elkarpiderik ba ahal dago ?

g) Denboraren banaketa

. Zenbat klase-ordu astean ?

. Zenbat ordu astean ikas-sailetan : irakurri, matematika, idazkuntza, ortografia, saiaketa, konposizioa . . . horietatik . . .

ordu la pertsonalekoak dira; . . . ordu talde-lanekoak;

. . . klase-lanekoak.

. talde-laneko orduak : ekingen prestaera, eztabaidak, txangoen prestaera, murruetakoak, biltzarrak, eta abar.

. arte-lanei eskainitako orduak astero : musika, olerkia, antzea;

eta sortzapen-lanak : antzerkiak, erritmoa, plastiko-lanak.
 : zenbat ordu astean jinastikan eta jokoan . . .

h) Sariak eta zigorrak

Zer dute maiteena pndoko hauetatik ? (guruzetxo bat ezar da-
 gokion lekuan)

- zigor fisikoak - - -
- gauzaren baten ukoa (baratza, irteera) haurra ernatzeko
- aurrerapen pertsonalaren bizkortzea
- beste ikasleen arabera alderatuz
- berriz atzera egiteko aukera emanaz
- puntuketak erabiliz, hauek ikaskintza-puntuetan eraginez

4 - ESKOLAKO ZERTZELADA NAGUSIAK

- Eskolaren zuzenbidea
 - Batimendu bakar batetan ezarria, ala batzutan partitua
 - Patiorik bai ? - - - Patioaren zabalera, m²-tan - - - -
 - Zenbat estaia edo pisu ?
 - Zenbat ikasle guztira ? . . . - - - urtetatik - - - urtetara
 - Elkarrekin ari dira lanean mutikoak eta neskatilak (ezar gurutzeta) :
 - Lilitegian . . . - - - urte arte . . . eskolaldia guztian barrena . . .
 - Klase batetik hurrengora badago jarraitasunik ? Eta sailen artean ?
 - Pedagogi-gaiak ikertzeko batzartzen ahal dira erakasleak aldiro ?
 - Zenbatero ?
 - Pedagogiari dagokionez, berrikuntza-aztarnarik ba ahal dago? Zertan mamiitzen da ?
- Erantzun dituzun horien artean, zure eta eskolaren artean atxematen ahal duzu ezertan aurkatasunik ?
- baldintza edo egoera objetiboari dagokionez ?
 - pedagogiari dagokionez ?

HAR DAITEZKEAN OHITURAKERAKASLEAREN JOKABIDEAZ HITZ BATZUK

(nahia dagoelarik, jakina)

- beharrezkoa baizik ez esatea
- jokabide eta giro egokiak prestatu
- harrera eta gogortasuna (erantzukizuna)
- hutsik ez pasatzera utz; berriz egin-eraztea eta baketan geldi.
- benetan mirets, eta jator (naturala, gizatar jokabidea, literatura-izkribua)
- eginbeharraren aurrean gogotsu, gauza bera guztien aurrean.
- haseran fede-ona ez zalantzan jar.
- taldearen ekintza lortzeko, norberaren jokabideaz eta erantzunaz konda.
- eginkizunari buruz errespetua (giroa, egiteko modua)
- esandako betearaztea
- erantzunbeharrak eman
- sail guztietan jokabide langile eta egilea (lan, fintasun)
- besteen ulerküntza, tratu ona
- aditzen den hitzari erne egoten zaio; hitzegin aurretik pentsatu egin behar
- barneko eta kanpoko itxurak elkarri egokitzea (eragile-eragina, eta alde-rantziz)
- segurantzia konfiantza dakar; hazteko gogo, barne-poza, gorago helzteko gogo, ahalegina.
- hutsegina aitor; berriz egiteko gogo, baketu.
- izpiritu-sendikortasuna; balore-maila-diaaren sorrera.
- izpiritu zabaltasuna, onginahia, gogo, alaitasuna.
- egiazkotasuna, jatortasuna, bultzamena, besteen onginahiaz konda, laguntza eska.
- talde-sena; bidea taldeak markatua, neurgarri gisa taxuaren edo desordenaren maila.
- norberaren eta besteren lana errespetatzen. Eginkizun bakoitzak behar dituen baldinkizunak errespetu; norberaren jabetasuna (erregela, bide...)
- erregelari onets-araztea
- erantzunkizun-sena (gora aldera eta eta kidetasunean)
- jokabide langilea, segurantzia, aurre-rapena (eginkizun zehatzak, kontzi-entziaren egiazkotasuna)
- besteen bertuteak eta dohainak aitor, besteen gaitasunak aitortzeko gai izan apaltasunean, besteen lekuan jartzea...

- maila pertsonaleko diren gauzak, buruz buru esan: errita egitean gezur batengatik, ahalegina edo axolabekeria oharraraztean, edo-ta aurrerapena . . .

besteek dagokionez, kontzientzien barrena sartzea, barne-sakontzasunaren ikutua izan.

FREINET - EN INBARIANTE BATZUK

2 gn. Inbariantea

Handiago izateak ez du adierazten nahi-ta-ez besteen gainetik egotea

Test : Mahainaren azpiko tauladoa ken, keinu honek pedagogiaren mailan ondorio guztiekin **BERDE**
 Mahaina ikasleen mailan jar **LARANJA**
 Dena utz bere hartan, tradizioa errespetatuz **GORRI**

3 gn. INBARIANTEA

Hau baten jokabideak bere egoera fisiologikoan du oinarria

Test : Zenbait haurren jokabide bitxiaren arrazoin psikologikoak eta sozialak ulertzeko erabilia (gure pedagogi-bideak horretan lagunduko zaitu). **BERDE**
 Ez dugu gauza handirik egin honen bidez **LARANJA**
 Aintzinako pedagogiariek bezala jokatzeko dugu oraindik, gure ikasleen eragozpenak kontutan hartu gabe **GORRI**

4 gn. INBARIANTEA

Inork ez du maite -ez haurrak ez nagusiak- aginpidez agindezaten

Test : Aginpidezko agindurik gabeko pedagogia prestatu dugu eskolan **BERDE**
 Erdibideko soluzio bat ari gara bilatzen, aginpidea motelduz eta liberalizazioa bultzatuz **LARANJA**
 Kaso guztietan aginpidez jokatzeko erabaki dugu oraingoaz **GORRI**

10 gn (III) INBARIANTEAHAURRARENGAN EZ DA JOKOA BEREZKOA, LANA BAIZIK

Test : Ahalik eta gehiengan, lan-eskolaren saio bat egin **BERDE**
 Ariketak eta lana nahasian **LARANJA**
 Oraingoz ez dugu egiten benetako lanik **GORRI**

11 gn. INBARIANTEA

Ikastearen kakoa eta bide zuzena ez da oharketa, azalpena eta frogaketa, Haztamuzko Saiakuntza baizik, hau berezkoa eta eskuarra izanik.

Test : Heziketa bizian funtsatzea, eta haztamuzko **BERDE**
 saiakuntzan
 Gero eta gehiago, pratika ugariago Eskilan, zenbait
 sailetan halere azalpena onartuz **LARANJA**
 Ez da oraindik aldatu eskolastikaren bide
 ezaguna **GORRI**

13 gn. INBARIANTEA

Ikaspenak ez dira lortzen, zenbait aldiz hori sinetsi bada ere, erregelak eta legeak ikasiz, saiaketaren bidez baizik, Erregela eta lege horiek ikastetik hastea frantsesean, artean, matematiketan edo zientzietan, gurdia idien aurretik joan-araztea da.

Test : Lan biziaren bidez saiaketa egin (forjatuz egiten da **BERDE**
 forjaria)
 Saiaketak bai; baina baita, batera, zenbait erregelaren
 ikaspena, alferrik pentsatuz ezen erakaskuntza horren
 bidez hobeki joango dela **LARANJA**
 Erakaspide klasikoa, buruz ikasitako erregelekin eta
 ideiekin **GORRI**

17 gn. INBARIANTEA

Bere biziaren bidean baldin badago eginbehar bat, haurra ez da nekatzen: alegia, funtzionala baldin bada, nekerik ez.

<i>Test</i> :	Zenbait ordutan barrena ari da lanean haurra, eta nekatu gabe	BERDE
	Batzutan haurra nekatu egiten da, eta atsedena behar du	LARANJA
	Solasaldi bat behar du haurrak	GORRI

19 gn. INBARIANTEA

Puntuak eta ordenaketak beti makur

<i>Test</i> :	Puntuak eta postu-ilarak kendu ditugu, eta lan-mota berriez ordaindu ditut	BERDE
	Puntuak eta postu-ilarak kontuz kendu ditugu, eta hein batean lan-mota berriez trukatu	LARANJA
	Aintzinako moldeari jarraitzen gatzazkio	GORRI

21 gn. INBARIANTEA

Haurrak ez du maite artaldean bezala lanegitea, robot baten gisa. Lan eta eginbehar pertsonala maite du, edo elkarte-giroko lana

<i>Test</i> :	Taldean edo elkarte-giroan antolatu dugu lan pertsonala	BERDE
	Talde-lana egiten saiatu gara	LARANJA
	Aintzinako moldeak errespetatzen ditugu lan banaketari dagokionez	GORRI

22 gn. INBARIANTEA

Taxua eta lizifrina beharrezkoak dira eskolan

<i>Test</i> :	Lan-teknika zailak erabiliz, taxu bizia lortu dugu	BERDE
	Lana ez dago oraindik oso organizaturik, beharrezko taxuaren bilaketan aski delako	LARANJA
	Hurrek oraindik kanpotik onarrarazitako taxuketa behar dute	GORRI

HEZIKETA ETA PERTSONEN ARTEKO HARREMANA

“ Ikus ditzagun kontutan hartuko ditugun bi puntuak. Alde batetik, heziketa emateko pertsonen arteko harremana behar da. Beste alde batetik, haurra prestatu behar da pertsonen arteko harreman horretarako, eta honek besteekin bere gizarte-bizia molda dezan.

Bi aurpegiok oso lotuta daude. Haurrak harremanak baldin baditu besterekin, beste pertsonarekin, hazi egiten da, eta batera pertsonen arteko harreman horretarako gaitzen da. Baina, alderantziz, pertsonen arteko harreman hori teknika den aldetik, arreta berezia behar du erakaskintzari buruz ”.

ESKOLATZAILEA ETA HEZIKETA-GIROA

Orain arte esan dugunaz, egoera egokian gaude haurrari harreman sakona lotzea zer zaion ulertzeko, dela eskolatzai-learekin, dela lagun batekin.

Beste batekin harremanean hasteak, izanaren mailan delarik, bere buruaren mailan jartzen du haurra, eta pertsonaren eta harremanaren aberastasuna erakusten dio.

Bestea datorkionean, behar zuen segurantzia aurkitzen du haurrak. Orduan haurrak bere burua agertzeko gogoia du, bere barnea aitortzeko. Bestea zapaltzeko, bestearekin kontra egiteko kontua ez dela erreparatzen du orduan; baizik-eta laguntzeko eta elkar ez etsiarazteko. Pertsona baten hondoraino haur bat iritsi denean, esperantzaz beterik ikusten du bere burua. Bere aldetik eman egiten da; harremana egiazkoa delako, eman egin behar du eta honetarako bere buruaz jabetu behar du ahaleginez. Beste bat ondoratzen zaionean, eta segurutzat emanez gogo onez ari dela jakinda, eskaintzen zaiona bildu nahi duela, haurrak berehala hartzen du parte; egia esan, berehalaxe, orduantxe, nahi lituzke eskaini jokabide bat eta egintza batzuk.

Bere buruaz kontzientzia hartu du, bere buruaz jabetu da. Bere izatearen egiaz konturatu da, bere izanaren kontzientzia hartu du, eta hori bestearen aurrean paratu dalako.

Haurra txikia baldin bada batez ere, iraupen laburra izan dezake egoera horrek. Ondoko, elkarketek bere eginen kontzientzia emango diote haurrari, eta bere buruan jarriko du

Oso tristea da ondorio hau aitortu beharra: baina askotan hurrek ez dute gauza handirik ulertzen eskolatzailleekin dituzten elkarizketa sakon eta garrantzitsuetan. Izan ere, askotan egon ohi da, haurrari buruz, desegokitasuna eta mementoaren gaizki ulertua. Eskolatzailleak, haurra gogotan hartu beharrean, hitzek eraman dezaten uzten du “

Teknika-alderdia

“ Bestearekin harremanetan hastean, beste alde batetik memento hartan zertan den ezagutu behar du haurrak.

Oinarria hitzegitea eta aditzea dira. Hitzegiteari dagokionez, alde batetik badu hitzegiteak hizkuntzaren ikaspenarekin lotura duen arazo bat, jakina. Ez gara hemen horretaz luzatuko, baina hizkuntza azalpide gisa, mintzabide gisa, azaldu behar da. Gramatikaren aldertietan kokatzea, ia besterik gabe, azalpidearen aurpegia ukatzea eta bizigabetzea litzake.

Erakaskintzaren bidez haurrak hau ulertu behar du hizkuntzaz : ondokoekin mintzatzeko gizonak duen tresna dela. Hitzezko azalpidez nagusitzeraz jö behar du haurrak, nahi duena esateko gauza izan behar du, senditzen eta konprenitzen azaltzeko. Elkarrizketa edo izkribu baten haria jarraitzen saiatu behar du. Hitzen adierazia hartu behar du, esaldien gorabeheren gakoa konprenitu. Bere nortasuna aberastuko du hizkuntzaren bidez. Bere barneko ondasunak berezten lagunduko dio hizkuntzak, baita bere burua azpitzeko eta besteren esanak ulertzeko; izpirituaren mailan elkartzeko aukera izango du.

Norbera ongi ezagutzeak erakusten du ongienik erakaskintzan ama-hizkuntzaren garrantzia zerta datzan. Gauza bakar bat esan dezagun: barneko aurkikundeak batetik eta berauek azaltzeko baliatu den hizkuntza bestetik, funtsean bertan direla bat eta berbera. Areago: egiazki, pertsonaren parte inportante beste hizkuntza bat bihurtzen denean ama-hizkuntzaren ondoan, pertsona-harremanetan mintzabide izan den neurrian —sendimenduaren mailan, gonbarazio beterako— hizkuntza hori sartu egiten da sakonenean. Gure izaeran gertakariak eta pertsona lotu diren bezala, hizkuntza berria ere sustraitu egiten da guban.

Bide honetatik bilatu behar litzake hizkuntza bat baduen eskualde batetan berri bat onartzeak dakazkien problemen azalpena.

Beste alderdia hau da: ia komeni den entzutea ala hitz-egitea. Zenbait mementoan ezin zaizkio hitz batzuk esan pertsona bati : isiluneak batzutan beharrezkoak dira. Abots-doinu batek defentsiban jartzen du entzulea haseratik beretik, eta uxatu egiten du. Beste hizkera bat ihespidea da; eta haurrek honetara jotzen dute maiz gaizki hartuak direnean edo nagusien errita espero dutenean. Hizketa ala isilunea : badago hor erabakitzeke lanik! Denok dakigunez haurrek parte hartu nahi dute elkarrizketetan, pentsatzen dutena esateko joera dute, guztiz ziplo, freinurik gabe batzutan. Agertzapen hauek mugatu behar ditu eskolatzailleak. Parte hartzeko gogoia ez galtzea lortu behar da; baina, halaz ere, haurrak dagokion mementoan ez bestetan parte hartzea; alegia, entzun ondoren, zertaz hitzegiten den dakinean, gaian sartua denean, eta argitzapenak behar dituenen edo parte har dezakeanean.

Isilaren heziketa oso inportantea da besterekiko harremanari buruz. Egoera eta ekintza adierazten dituen isilaldia, ez geldikeria edo hieratismoa; prestaera eta entzuten duenaren bate-ratasuna adierazten ditu. Hitz batez, gure aurrean dagoenari buruz irizpide bat izan ahal izatea.

Gauza bera esan liteke keinuari buruz. Bere keinuaz bere burua azaltzen duela jakin behar du haurrak. Gurasoen edo eskolatzaillearen begirada batek gehiago adierazten du batzutan hitz askotan esan daitekean guztia baino. Barnea kanporatzeko bide bakar bat haur guztiei erakastea, desnortzea eta masa egitea litzake. Batzutan fameliaren bide bakar bat haur guztiei erakastea, desnortzea eta masa egitea litzake. Batzutan fameliaren plegua edo modua —edo-ta eskolako— onarrarazten saiatua, eta areago eskola batetan beste eskoletatik berezi nahian sarre-razten denean, masakuntza hutsa da, desnortze-lan nabarmena eta giza-harremanen standarkeria. Idaroki dugunez, heziketa “on”-eko moduak izan daitezke, eta izaten dira, barnetasuna izotzeko eta norberaren hazkundera geldiarazteko mozorro bat.

Gure artean, eta eskuarki hitzeginez, gauza erraza da mogitu den giroko keinuak eta pleguak haurraren gan somatzea. Jakina: maizago lotzen zaizkio haurrak keinuen itxurari mamia-ri baino, hau aitzekia bihurtu arte.

Hitza eta isila funtsezkoak dira arte-lanekin bat egiteko eta haietaz gozatzeko. Adierazten duten nortasuna ulertua, irakur-tua, aditua edo betesia izan behar da. Gizadiaren eginen aurrean modu horretara paratzeko beharraz nagusitu behar du eskola-

tzailleak, pertsonen arteko harremanetan gai izatekotan baldin badago bederen ”.

ZABALTASUN ETA HARRERA

“ Pertsonarteko harremanetako funtsezko jokabide horiek harreraztera eraman behar du eskolatzailleak haurra, eta kemenez egin behar du. Duen garrantziarengatik, hitza eta isila aipatu behar ditugu horri buruz. Beste puntu garrantzitsu bat: haurren arteko harreman joera da.

Beren artean sortzen diren arazoak beren burua garbitzen, norberaren irizkeraren errespetuan konpontzen, juzkatu eta erabaki baino lehenago bestearen arrazoinak entzun eta eza-gutu egin behar direla, agertu den izkutuari atxiki behar zaiola, besteen akatsez farregiteko eskubiderik ez dutela, erakaslearekin harremanak onak izan daitezzen erantzule direla, baita anai-arrebekin edo beste haurrekin, lagunen eskabudeak kontutan hartu behar direla, horra hor eskolatzailleak oso kontutan hartu behar dituen helburuak.

Bide beretik dator ere norberaren jokabidez azterketa bat egiten jakitea, aldeko eta aurreko alderdiak jator ikusiz, agertu diren eragozpenak, baita nola izan zitekean pentsatzea; lagunen aurrean egin dena aztertzea, edo atsegin ez zaizkigunen aurrean.

Bestearen bereketa edo zanpaera zein mailatan dagoen ikusi behar da, mesfidantza, sendimenduen jabetasunik eza, eta ustekeriak besteekiko harremanetan, edo erantzukizunak dituen lagunekin aurrera egin behar duenean, behar bezala noratzeko eta joateko.

Entzuten duenari hitzegiteko gogoaz besterik ez duenak, entzun ez baina bere buruaz hitzegiten duenak, lagunak bere umorearen arabera biltzen edo uxatzen dituenak, bere adiskideekin ez beste inorekin mintzo denak, kontu-kontari handiengana doanak, kontseiluak eman bai baina lagundu sekula laguntzen ez duenak, aurrerapenik eza erakusten du, baita pertsonarteko harremanetan hozidurarik eza ere.

Besteekiko harreman horiek gidatu behar ditu eskolatzailleak, mugaketa guztiak gaindiarazten; eta, areago, haurrak berak gainditu dituela sendiarazten. Beti haurren elkarrizketetan

sartzeak, oldea agortzen du, berezko etorria freinatzen; bertatik ez segitzeak, hondatzeko bidea libro utzi, Ezin-bestezkoa da, beraz, parte-hartzea beharrezkoa den egoeraren bila ibiltzea, eta haurrak besteekiko harremanetan nola jartzen diren hausnartzea.

Harreman eta elkarketa guztien ibilbidea jarraitu behar du eskolazaileak: itxura normalekoena ez-ezik, ustekabean gertatzen direnena ere, bai fameliaren giroan, bai eskolakoan.

Hitz batez, pertsonarteko harreman horien heziketak erraztuko ditu gero, bizian barrena, haurrak beste gizonekin izan beharko dituen harremanak, pertsona-kutsua beti erantziz; Hauxe da besteekin maitasunezko lotkiak eta elkartekoak funtsatzeko bidea; eta horietxek bizi-arazten dute gero gure gizarte-bizia ”.

HEZIKETAREN ERANTZUKIZUNAK

“ Gizonari ez zaio zilegi, esan dugunez, aldakuntzari hotezan egokitzea; pentsatu egin behar dela esan dugu, aldakuntza hori giza-aurrerapen bihur dedin alderdi onak bilatzen eta aurkitzen.

Giza-izakiari gizarte-alderdiak nolako garrantzia duen nabarmenerazi dugu, eta gure munduaren etorkizuna hizlatzen saiatu gara. Elkar-te-giroko pentsakera lortzeko heziketak zein aldetatik jo behar duen jakiteko modua badugu orain, pertsona guztiz jabetua izan dedin gizarte-biziera aberastutzaile horretarako. Elkar-te-pentsakera hori lortzea da, funtsean, egin behar den heziketa-lana.

Puntu horiek hemen aipatuz, haurraren gizartekuntza edo sozializazioaren aldakuntza aipatuko dugu.

BARNETASUNA

Gizonaren gizartekuntzak eta masakuntzak, pertsonaren barnetasunari buruz arreta berezia eskatzen dute.

Badirudi gizarteak barnetasun harrapatu nahi duela eta desegin. Hau dela-ta, badago etsi egiten duenaren jokabidea: alde batera uzten du barnetasun-nahia, eta sal-erosketako objeto bihurtzen da. Bere nortasuna hondatzen du zeharo, bide horretatik ohitutako gizarteak ez baitu galtzera uzten eskaini zaion produkto hori. Badartokean harrapaketa edo inbasio horren au-

rrean errezeloz hestea ere, ez da arazoaren soluzioa. Barne-gar-biketa debekatzen da —nortasun neurotikoa aipatu gabe— eta besteekin lortu behar diren giza-harreman egokiak debekatzen dira eta hauek dakarten aberasketa. Haurrak jakin egin behar du zanpaketa hori zer den, eta barnetasunaren azalketa zer den. Haurrak barnetasuna izan behar du, eta noiz eta nola agertu jakin behar du ”.

LAGUNARTETASUNA

“ Lagunartetasuna, lagunekin lotzeko dohaina, giza-harremanak, lagunartekoia izatea: horra hor gaurko gizarte-motak pertsonari harrerazten dion beste gauza bat, eta lehenagokoarekin lotua dagoena. Badago axaleko harremana: honetan ez gaude ez gu eta ez besteak ere. Harreman hori, ordea, arte gisa hartu behar da, bestea irabazteko estrategia bezala, eta honen bidez bestea biltzeko teknika bezala.

Loturak sortzeko aukera gisa ikusi behar da lagunartetasuna, trukabide gisa, geure buruen parte bat emateko era gisa. Horra hor haurrak ezagutu eta jabetu behar duena ”.

EGOKITZEKO DOHAINA

“ Gure gizartean gertatzen diren aldakuntzen abiadak, egoera berriei buruz, lanbide berriei buruz, eta abar, egokitze dohaina eskatzen du gugan. Batak, aurrera ateratzearen truke, dena sakrifikatuko du egokitu beharrez; besteek etsi egingo du dena aldatu behar horretaz, eta ez du kasorik egingo. Egokitze ahalmena heziketak prestatu behar du. Aldakuntzetatik at jar ezin daitekeala ulertu behar du haurrak; baita bere burua ukatuz egiten den egokiera ez dela on ez pertsonarentzako ez gizartearentzako.

Beste alde batetik, asmamenaren lanketarik egin ez bada, pentsatzeko ahalmenean eta gere buruan sintesiak egiteko ohitura hartu ez bada, ezinezkoa da egokitzea ”.

BEREZILARITZA

“ Lanaren zatiketak, gero eta handiagoa, eta lanaren be-

raren zailtasunak, gizona berezilari edo espezialista izatera bultzatzen dute. Gizonak ezin dezake dena besarka, ezin dezake alor desberdinetan frutuaz lanegin, Bat hautatu behar du; eta horretan gaitasun gaitz bat lortu behar du. Baina beste alorretako loturak ezagutu behar ditu ongi, hautatu duen horren inuruko gorabeheren sarea handia eginez. Sakondu behar honek batzutan ito egiten du, erotu, des-neurritzen. Baina gizonaren batasunaren alderditik hartzen badu, gizatartu egin dezake.

Heziketak, berezilaritza bultzatuz, ez du eskubiderik halere haurra des-nortze edo norgaltzearen aldera bultzatzeko. Pertsonaren hazkundearen baranoan jarri behar du berezitu-beharra. Pertsonarengan behar du funtsatu espezializazio hori; eta horrela barnakuntza serio eta aberastaile gisa aurkeztu ”.

ELKAR - LAGUNTZA

“ Beste batekin lanegitea, alegia. Baina beste hau adierazten du: elkarrekin jartzea. Gere buruarentzako gordez laguntzea ezin da. Beharrezkoa dena baino gehiago ez jartzea elkar-laguntza arriskutan jartzea da, bestea kontutan ez hartzea da. Pentsakera berekoia zokoratzen lagundu behar du elkar-laguntzak, eta elkarte-pentsakeran sartzen.

Talde-lanak hunkitu behar izan du haurra: lagun bakoitzaren laguntza beharrezkoa dela ulertu behar du haurrak, eta gogor lanegitea ere badela ”.

PERTSONA / GIZARTEA HARREMANA

“ Pertsonak gizartetik at egon behar duela, askotan esan dugu denok. Parte-hartzea, zaila bada ere, beharrezkoa da. Bere burutik irten behar du norberak: besteekin bizi behar du. Ekonomiaren, politikaren eta gizartearen gorabehera ezaguera gabe, egiazko elkar-laguntza batetara iristerik ez dago.

Bere heziketa berberari beste heziketa bat erantsi behar dio haurrak: egiteko gizartekoetan parte-hartzeko prestaera. Bi alderdien beharrak lotzen dituen batasuna ezagutu behar izan du ”.

Pere Carder eta Ramon Canals
 “ El nen i el altre ”
 Edit. Nova Terra – Barcelona
 Bigarren aritaraldia, 1.968

HAURRAREN BILAKAERA PSIKOLOGIKOA
GIZARTEAREN IKUSPUNTUAK

1 taldea (0 - 6 urte)

- 1 - Giharren hazkundera ez dago bukatua, baina ontzen ari dira eten gabe.
- 2 - Hurbilgo gauzakien ikuspena ez da arras hazi; eskuen eta begien elkarketa ez dago oso hazia.
- 3 - Geldirik egotea, nekez; korrika ibili nahiago.
- 4 - Sosegurik ez, eta nekaturik daudelarik hasarrekor; baina kaso hauetan gutxitan atsedena bilatzen.

2 taldea (6 - 9)

- 1 - Hqzkundera poliki eta giharre txikiena aurrera; soin-iraupena gorago.
- 2 - Eskuen eta begien arteko bateratasuna hobeki; hipermetropia behera.
- 3 - Nekatzeko joera. Soinaren aldetik, neskatilak haziago daude mutikoak baino.
- 4 - Sosegurik eza, oldez jokatzeta eta zalaparta hor daude beti; baina apalxeago. Atsedeen beharra ez da onartzen.

3 taldea (9 - 11)

- 1 - Gihar-bateratasuna hobeki; soin-hazkundera azkarra da.
- 2 - Eskuen eta begien arteko elkartzapena ona da.
- 3 - Sobera jokatzeko joera.
- 4 - Ez dute aski atsedetik hartzen. Temakor.

4 taldea (11 - 15 urte)

- 1 - Hazkunde-aldi eta fisiologiako aldakuntza larrien haroa; indarra ugari.

2 - 3 - - Eritasunak maiz gertatzen. Etenaldi laburrak.

4 - Moldakaitz senditzeko joera, beren buruez jabetuago.

1 taldea (0 - 6 urte)

5 - Luzaz arretari eusteko nahiko lan.

6 - Hiztegi mugatua

7 - Ezagutzak gora, baina oraindik oso mugatuak, oraingoaz eta aldameneko munduaz; kultura-jabegoaren ideiarik ez.

8 - Denboraz eta espazioaz ideia oso ahulak.

2 taldea (6 - 9 urte)

5 - Arretari luzaz eusteko oraindik neke da, baina gero eta errazago; jakin-mina eta trebetasuna oinarri funtzeko.

6 - Hiztegi-kontuan aurrerapen gaitzak, baina oraindik mugatu xamarra da.

7 - Jakin-mina elkartetik eta eskolatik at ere hedatzen da.

8 - Denborari eta espazioari buruzko ideiak heldu egin dira., baina ez dira oraindik zeharo haziak. Pentsakera abstraktoa poliki doa haziaz, baina jeneralizazioak hasten dira. Egia eta alegia berezteko lanak.

3 taldea (9 - 11 urte)

5 - Arreta luzaz atxikitzeke gaitasuna handitu egin da.

6 - Hiztegia aldatzen ari.

7 - Ondoko gizartearekiko interesa hedatu egin da, eta orain mundu guztia besarkatzen du. Gaurko bizimoduari buruz aintzinakoek egin zuten laguntza ezagutzeko gogoia agertzen da.

8 - Denboraren eta kronologiaren ideia ez da zeharo maitu; antzinako gertaeren segida ikusten hasten da. Tamañaren eta lekutasunaren ideiak agertzen dira.

4 taldea (11 - 15 urte)

7 - Eskolako, herriko eta munduko arazoei buruzko kezka emandaten da.

8 - Espazioa eta denbora obeki ulertzen dira. Arrazoinbidez pentsatzeko ahalmena gora doa, baita abstrazioak erabiltzekoa. Ondorio errazak onartzeko joera, konfiantza handiegiaz. Kritikamena sortzen.

1 taldea (0 - 6 urte)

9 - Pertsonen eta gauzen arteko berezketa. Pertsonen eza-
guera. Pertsonarekiko interesa. Maila honetan berezkoa da nagusi-
en iduriketa. Nagusien ontzakoa bilatzen eta haiei atsegin gerta-
tzea.

10 - Jabegoa eta besteen eskubidea nekez errespetatzen.

11 - Beste haurrekin lanegiten eta jostatzen ari jolastutzen
dira, talde txikitik batez ere. Elkar-laguntza eta aurkatasuna
agertzen dira. Mintzatzeko beharra. Eskuzabaltasuna, konfian-
tza, adiskidetasuna, nekea;

2 taldea (6 - 9 urte)

9 - Nagusien ontzakoaren beharra; baina norberaren ideiak
agertuz.

10 - Besteen jabegoaren eta eskubideen errespetuaren
arrastorik ez oraindik.

11 - Oso adiskidekor agertzen dira haurrak aldi honetan,
eta elkar-laguntzaren gaitasuna aldatzen da. Talde-funtsabideak.
Aginpidea edo itzala. Kirol-gogoia.

3 taldea (9 - 11 urte)

9 - Besteen eta nagusien kritika; pertsonalki ondorioak
dituzten liferentziak onartzen dira, ala ez.

11 - Besteekin kontatuaz ala kontatu gabe ari. Kideekiko
konfiantza ala mesfidantza. Txapelketarako gogoia. Gizarte-errege-
lak eta zuzenbidezko jokabideak sortzen; talde osoak onartu
dituen erregelak errespetarazten laguntzen du. Mutiko eta nes-
katilen artean ez dago adiskidetasunik.

4 taldea (11 - 15 urte)

9 - Lagunen artean hartzen den egoera edo postua balio-
sagotzat jotzen da nagusien ontzakoa baino. Aginpidearen
kritika.

Askatasun-nahiak istiluak sortzen ditu, baita adinak ere
(erdi haur, erdi nagusi); nagusien abantailak lortzeko gogoia, baina
beroien erantzunbeharra gabe.

11 - Gizabidezko legez ezaguera handiagoa, baina batzu-
tan taldeak ez dira demokratikoak. Bi setsuen arteko laguntasu-
nak agertzen. Fisikoan eta gizarte-mailan, taldeari atxiki nahia,

nolanahiko liferentziak baztertuz. Taldeko eginkizunetan nabar-mendu-nahia. Nagusien baiezkoa baino areago bilatzen da lagunen arteko egoera eta istimua.

1 Taldea (0 - 6 urte)

12 - Taldean postu goren bat izateko gogoia, eta baztertua izateko bildur.

13 - Partekatze desirarik ez da ageri adin honetan. Batera menpetasunezko eta askatasunezko sendimendua nagusi-ei buruz. Ni-tasunaren sendimena.

2 Taldea (6 - 9 urte)

12 - Talde txikien buruzagitza onartzen da, eta horietan buruzagiak segitzeko lagun gisa agertzen dira; talde handiagotan sartzen direlarik, talde-lana egiten dute. Beste haurren ontzakoa bilatzen.

3 Taldea (9 - 11 urte)

13 - Nitasunaren eta besteen kritika.

14 - Irakurrerarekiko interesa erakusten dute; jakintza-liburuak begiratzeko gogoia erakusten dute.

15 - Gizaarentasunari buruzko gurtza.

4 Taldea (11 - 15 urte —

13 - Nitasunaren ulerkuntza hobeia; norberaren jokabidea zuzentzeko erantzumen handiagoa. Hitzegiteko eta ihardukitze-gogozago, aditzeko baino.

14 - Liferentzi pertsonalen arteko maila sakontzen da, bai irakurketari buruz bai interes pertsonalei buruz ere.

15 - Ideialistak; gizaurenen betespenaren eta gurtzaren alde jotzeko jalkiak.

(Jaroziak-en “ *Les ciencias sociales en l'educació elemental* ” etik hartua, eta Mussen-en eta Hurlock-en oharrez osatua.)

HAURREN ARTEKO HARREMANAGIZARTE - BIZIERAREN HASERAELKARTERAKO SARRERALILITEGIAK

Gizartekuntzarako bidean egintza ezin garrantzitsuagoa da haurra lilitegira sartzea.

Eraso behar dituen arazoan desberdintasuna idarokitzen dio egoera berrien aurrean gertatzeak. Ekintza eta harreman berrien aurrean gertatzen da funtsean.

Bi urteetatik lau urteetara, hizkuntzak eta psiko-mogierak ematen dion beregaintasunari esker, bere burua libro atxikitzen du. Ez bakarrean edo abstraktoan, baina inguratzen duten beharretatik eta ingurunetik abiatuta.

2 - 3 urte duen haurra pozik dago beste haurren antzekoa izateagatik, baina ez daki haiekin nola joka. Haztamuzkoak dira lagunekin dituen ekintzak, eta ez da taldetan jostatzen.

Hiru urtetako haurra, ordea, gizartekuntza-krisialdi batetik igarotzen da; eta etengabe, bera eta bere lagunak alderatzen ditu. Bere burua neurtzen du horrela, eta sortzen dituen istiluetan beretan bere dohainen edo aukeren ahulezia jasaten du nagusien irmotasunaren aurrean.

Beste alde batetik, Lilitegiak ekintza mordo oso bat eskaintzen du hautuan: batzuk bederazkakoak, beste batzuk taldekoak.

Alegia : jostailuak, esku-lanak, sentidu-lanak, eta abar, denak daude norberaren esku; eta kantak, dantzak, ipuinak, elkarrizketak ere, denentzako dira. Horrela interesen bitasun horri, jokabideen bitasuna dagokio. Eta norberaren nahikariak librokori azaltzen dira. Ez da ahaztu behar haur bakoitzak bere abiadaberezia duela lanerakoan.

Lilitegiko lehenengo urteetan barreneko aldakuntzak aztertu nahi baldin badira, Piaget-ekin esan daiteke: "Elkartasunaren kontzientzia hartzeruntz doala, eta elkartasun eta elkar-trukagarritasun horri dagozkion betebeharren kontzientzia hartzera". Elkarrekiko truke bizitutik, truke onartura pasatzen direla dirudi. Haurra konturatzen da, hitz batez, harremanak bi

alderdietara gertatzen direla: beragandik besteengana, eta besteengandik beragana. Eta harreman hori, bikoitza, trukagarria dela.

Haienezako jokatzeko modua zena, orain irizteko modu bihurtzen da. Haurraren gan adimenaren hazkundea, nortasun osoaren hazkundeari lotuta dago.

Eta norberaren nortasunaz hitzegiterakoan, izate-baldintzak ez ditzakegu ahantz. Ingurunea osagarria da: hertsiki, ezinbestean eta alabeharrez osatzen eta mugatzen dituen emakaiei arabera.

Giza-saila berezten duena, hain zuzen hau da : inguramendu fisikoari, berak orain inguramendu soziala erantsi diola.

Lilitegiaren esperentziak, horretara, harreman zabalago eta anaikorragoak hartzera bultzatzen du.

Lilizainak lehenengo ikaspenak gidatzeko betebeharra du, eta haurra bere aukeretan eta funtsabideetan laguntzeko.

Gizartean haurra ongi sar dedin, erakaslearen eskuetan dago arazoa hein zabal batean: haurren arteko harremana erraztua behar du horrek, eta besteekin egokiro bizitzen laguntzen duen guzia bultzatu.

Piaget-en ustez 5 - 6 urtetan haurrak lehendabiziko gizartekuntza-haro bat igarotzen du. Gizartekuntza horretxek laguntzen du eskuarki " adimena " deitu dugun ahalmena agertzen eta mamitzen. Orain, beraz, pertsonen artean lotzen den harremana ulertuko du, gizarteko lagunaren artekoa, eta gauzen eta beren ideien artean sortzen dena.

Hiru eta bost urteen arteko epe horretan jaiotzen dira kezka-jokabideak, aski ez izateaz, eta halakoak; eta hauek haurra marka dezakete luzaz inguramenduarekin eta bere lagunekin izango dituen harremanetan.

Haurra sorionsu izatea lortu behar du andereñoak, berarekin harreman zuzen eta pertsonalak izan ditzala; familia kutsuko ekintzak egin ditzala orain giro berri batetan moldatu eta garbitu beharrekoak. Horrela prestatzen da haurra gizartera sartzeko., eta honetan haren partea gero eta zabalagoa izango da.

SOZIOMETRIA

Gaztigutza edo informazioa

Taldeen bilakaera, eboluzioa, eta organizazioa aztertzen ditu soziometriak, baita beretan lagunek dituzten postuak, baina pertsona bakoitzaren barne-egitura kontutan hartu gabe.

Haren sortzailea, Dr. Moreno, Bucarest-en jaio zen 1.892-an. Psikiatria ikasi zuen Freud-ekin Vienan. 1.925-an USA-ra joan zen.

Soziometriaren oinarritzat teoria hau hartu zuen: pertsonen arteko harreman mordo zabal ugariak zertzen duela gizartearen. Lotura horiek erakarpena / uxatzapena bitasunaren gainean sortzen dira, hori oso zabalean hartuta eta ez hertsiki gogoko / atsekabe bitasunean. Gizartearen izana, dio Morenok, erakarpen edo onginahia horretan datza. Badu zer-ikusirik bestek gure nortasuna nola osatzen duen erarekin, eta haren hazkundera laguntzen: maite duen jendearen artean batek bere burua aurkitzen duenean, hautatu duen jendetartean, bere buruarentzako aukera handiagoak ditu.

Soziometriaren bilaketak soziometri-testa du azterpide. Ondorioen irudia soziograma deritzana da.

Soziogramak hau ematen digu:

- soziometriazko status delakoa; alegia, haurrak taldean aurkitzen duen harrera-maila;
 - lagun kuttunak. Askok ote duen, gutxi, zenbat.
 - taldearen egitura: kuadrila, baterakuntza ote dagoen ala zatikuntza (mutiko-neska, katalanez mintzo direnak-gaztelera-zkoak . . .)
 - hesi horien gainetik pasatzen den haurrik ote dagoen, alegia, bateratzaile den elemendurik ote dagoen, eta aldioro erabiliz hau ikus daiteke.
 - egituran, status delakoan eta harremanetan gertatutako aldaketak;
 - taldeko buruzagiak;
 - baztertutako haurrak;
 - erdibideko egoera duten hurrek;
 - elkarrekiko aukerak;
 - arbuiatutako haurrak.
- Ez du dena adierazten :
- ez daki nola jokatzeko duen hauzoan, etxean, eta abar.

- adiskideak nor diren esango digu, baina ez adiskidetasunaren nolakotasuna;
- adimen-osasunaren maila ez du ematen, baina seinale batzuk ematen ditu;
- haren gizarte-jokabidea nolakoa den ez du esaten.

SOZIOMETRIAZKO TESTA

Taldeko lagunek nor bere buruz erantzun behar duten galdera-mordoa du.

ADMINISTRAZIO ERREGELAK

- Funtsabidea : Hurrek balio atxematea komeni da, eta zein hobari lortzen duten garbi ikustea. Adinaren arabera eskolan hobeki moldatzeko dela esan dakieke: lan-taldeak egiteko, mahainak banatzeko, eta abar : noski, gero baliatu egin beharko da soziograma !!!
- jator erantzun behar dute guztiz. Lagunek jakingo ez dutela esan dakieke.
- egiterakoan isilik egon behar dute; ez dute elkarrekin hitzegin behar ezta kinurik egin.
- ikastaldeko hurrei buruzko galderak dira, nahiz memento hartan bat edo beste ez egon;
- haurren bat hautatu behar da: " edonor " esatea ez da soluzio bat.
- ez dago denbora berezirik erantzuteko.
- txikiagoekin, galderak banan banan egitea komeni da, eta erantzun ditzatela. Lehenengoa erantzun eta bigarrena pasa. Galdera bakoitzak zer adierazten duen azaldu behar.
- alde z aurretik, izena, eguna, ikastaldea, maila eta eskola jarri behar dituztela gogorazi behar zaie.

SOZIOGRAMA

Izena ---- Adina ---- Eskola ---- Ikastaldea ---- Eguna ----
1 - zein bost lagunekin zaizu atsegina egotea? Eman itzazu ilaran;

- 1 - - - zergatik? ; 2 - - - zergatik? - - - . . .
- 2 - zein bost lagunekin izango litzazuke atseginena lan bat egitea?
Berriz ere nahi-ilaran emazkitzu.
- 3 - nork hautatu zaitu zu, zeure ustez?
- 4 - nor ez zenuke hautatuko?
- 5 - zergatik?

AUTOJESTIO - SAIAKETA BAT

- *Intereducación, 19 gna. - 71 - ko I - II.*

Ikastalde baten azterketa

igarokunde - seigarrena (11 - 12 urte)

Gidaritza, gidaritzarik ez, eskolan erakasleak parte hartu behar ote duenetz. Erakasleak oro galdetzen diote gaur beren buruari ikastaldean zer leku izan behar ote duen, eta zer leku duen egiazki.

“ Elkar-laguntza ” sailak Gauthier gure lankidearen saia- ketaren azalpen honetaz hasten du bere lana: egunkaria bat da, alegia egunero hartutako noten bilduma bat, eta piskanaka GFEN-ko zenbaki honetan eta ondokoetan argitaratuko dugu.

Geure irakurleen alderditik artikulua honek erantzun asko eragingo duela uste dugu; eta guri gaztiatzea oso interesgarria litzakeala uste dugu, argitara ahal izan ditzagun.

Ikastaroaren hasera : 1970-ko Irailaren 14-an

Ikasgela : mahainak leihorearen ondoan ezarri ditut, aulkiak zoko batetan pilatu ditut, batzuk mahainen gainean.

Ongi agirian, mahain zabalak gainean eta paretaren kontra, eta arreta biltzekotan, paperak eta liburu koloretsuak jarri ditut, zabalik. Inprimakina, eta berunen kaxa, agirian ere. Armairuen ateak zabaldua, eta matematikaren tresneria begi-bistan.

Bederatzietan sartu dira.

Haurrez arduratu gabe (ez mutikoez ez neskez), neure lekura joan naiz (aulkirik gabe, paretaren ondoan), hautsontzi bat bilatu dut, neure zorroa utzi, zigarroari ekin, eta abar. Etxen bakarrik dagoen gizonak egiten dituen gauza berberak

egin ditut.

Haurrak gelako erdialdean daude, neri so, zurrumurru batzuk entzuten dira, baina ahapeka oso, eta soinuak agertzen diren puntuetara begiratzen.

Zebait ikus-minek, sobera hurbildu gabe, liburuak begiraten ditu. Neure buruarekin mintzo banintz bezala, hau esan dut goratik: “ Exerita obeki nintzake ”. Eta aulki baten bila joan naiz.

Exeri naiz, paper batzuk begiratu. Ene inguruan, ez ber-tegi, inguru bat sortu da. Haurrak begira daude, eta neri begira-tzen didate; nik ez dut ezer ikusten. Neure notak hartzeko bene-tan gaizki moldatzen naizelarik, mahain baten bila joan naiz. Pasatzera uzteko, ingura eten eta lekua utzi didate.

9 - 15 - - - Mahainaren gainean ezarri ditut paperak. Esal-di batzuk ahapeka; zer esan ote duten ez dakit.

9 - 20 - - - Ezer egingabe ni zai. Irri urduri batzuk, laister itoak. Ahapeka haurrak berriketan ari, nigandik urrun dagoen zoko batetan, eta nitzaz arduratu gabe. Begiratzen ditudalarik, haurrek irribarre egiten didate izuti.

9 - 25 - - - Lekuz aldatu, mahaina eta aulkia hartuz. Ingurua aldatu egiten da, aurrez aurre paratzeko.

Nik galde: Hotz zarete? (Leihoak erdizka zabalik daude; ezezko zurrumurru arina)

9 - 30 - - - Nabarmen ekiten diot pipa erretzeari, hauts-ontzia neurekin hartuz :

- Keak galazten zaituzte? - Zurrumuruak ezetz dio.

Eta nik ekin: “ Galazten bazaituzte, oraintxe utziko dut. Pertso-na batzuk keak galazi egiten ditu ”. Ezezkoak

Nik ekiten : “ Esaidazute jator, eta utzi egingo dut ”.

Orduan nabaitzen da abots bat zurrumurruan, eta haur batek beste bati hau diotso : “ beharbada exer gindezke ”.

Ulertu ez dudala esan dut; eta barkatzeko eta berriz esa-teko :

- exer gaitzezke?

- noski! exer zaitezte!

Giroa arindu egin da. Nork bere aulkia hartu du. Mutikoek, laño, mahainetatik josten dituzte aulkiak.

9 - 32 - - - Ingurua beti, orain eserita, eta neri begira.

Liburuak begiratzen ari ni.

Galdera sail bat hasi dut.

- Zenbat gara ?

- Hamabi. - - - Erantzun batzuk, irribarre batzuk, galdera horren bidez gure artean harremanen bat sortua balitz bezala.

Artean norbaitek erauntsi. Hiru ikasle berri sarrerari du laguntzaileak. Berariaz ez-ikusia egin diet nik. Gauza bakar batez arduratzen naiz: ongi exerita egoteaz, eta pipako neure hautsa lurrera eror ez dedin.

- Zenbat gara ?

- Hamabost.

Zurumurru batzuk, haurrak beren artean mintzo, beren buruekin batzuk. Haiengana nik begiratzen badut, zurumurrua aurrera doa,

baina begiradan kezka apur bat ageri da, eta segundu parte batez etenda.

- Zenbat gara ?

- Hamabost.

Zazpi edo zortzi erantzun, aski bortitz. Gauza ageria da: zozotzat hartzen naute, eta sendi-arazi egiten didate.

Beste alderdi batera ni.

- Hamabost!

- Hamalau !

- Hamasei !

- Ados izan zaitezte !

- Hamalauan gara (hau joko bat da : zenbat gara, zer egun da)

- Hamabost ikasle gara !

- Nik hau galdetu dut: zenbat gara ?

Azkenean erantzuna lortu dut; 9 - 37 dira

- Maisuarekin hamasei !

- Eguna galdetu duzu zuk ?

- Ez, nik badadukat erloju bat eguteriekin.

- Baina zuk hau galdetu duzu : Zenbat ikasle?

Ez dut erantzun, eta berehala :

- Ez, maisuak hau esan du : zenbat gara , ez du ikaslerik aipatu !

Ia maisutzat onartzen nauten galdetu dut, ia ikastaldekua naizen. Anitz doinu desberdinetan, baietz. Ekin nik, eta baietz.

Hurbildu ni, eta inguru horren erdian eseri naiz. Aulkiak baztertu egin dira. Eta neure entzuleen aurrez aurre ni.

Oraindik berriz ere zehar ni, eta ingurua berriz sortzen ene ondoan,

Isilaldi aspergarria, ni zai begiak bazterreruntz.

9 - 43 - - - Dentistaren zai gaudela dirudi. Farre aspertuak, berkala isilduak. Isilunea berriz. Gelditasuna.

9 - 55 - - - Lanean hasiko gara ? - - - Orain neskatila bat izan da, eta mihia koskatu du segituan.

Onartu egin dut; ia denak zutik. Lehenengo gauza, geure burua organizatzea eta antolatzea proposatu diet, beste ikastaldeak ez galazteko nola egin genezakean galdetuz.

Eztabaidan uzten ditut nik parte hartu gabe; berehala ados dira: “ aulkiak zoruan banatuz, ala zoko batetan? ”

Mahainak hirunaka

Berehala dago dena taxaturik, eta haurrak exerita; egitera utzi dut, eta berriz ni zutik. Hasarretu egin naiz :

- Hara! Eta ni, ikastaldekoa naizen hau? Nun da ene lekua?

- Zoruan . . . lurrean . . .

- Zoruan ? kantatzen ari nintzelako ? Ez naiz Olympiakoa !

- Ongi da, hortaz aurrean jarriko dugu !

- Hau, ordea, ez da zoologiko bat ! Ni taldekoa naiz, eta zuekin egon nahi dut !

Urduri xamar mahain batzuk baztertu dituzte, atzekaldean leku zabal bat neri uzteko. Izuti erakutsi didate, bildurrez ere bai. Ezetz nik berriro: atzetik ez dut inor ikusiko, eta berek ere ni ikustekotan jiratu egin beharko dute.

10 - 10 - - - Isilune galgarria. Eztabaida bat hasi da, eta nik denak bultzatzen ditut parte har dezaten. “ U ”-ren moldean jartzeko ideia proposatzen da, arbelaren aldera zabalik dagoen parte. Saiatu eta mahainak falta.

Nora jo ez dakite. Batek horretan erabaki hau hartu du: “ Rektanguloa hetsiz gero, ez dugu arbela ikusiko ”.

Nik zakarki orduan :

- Nork aipatu digu hemen arbelik ? Nork daki arbelik erabiliko ote dugun ? - - - Eta arbelaren arazo horretaz ekiten badiote (lehenago haietako batek esana baitzuen arbelan ni jarritz gero arbelaren ikuspena galeraziko nuela) patioan jarri beharko dut.

Nunbait banuen nik zinez hitegiteko itxura, eta azkenean mahainak rektangulo-forman jarri dituzte (lekuaren txikiak

ez zuen besterik uzten hamasei lagunentzako); eta nik haien artean izan dut neure lekua. Oraindik ere berriz egin behar izan dut kontra: ene mahaina besteena baino 10 cm. handiagoa zelako.

10 - 33 - - - Exerita daude, eta begira. Neure burua presentatu dut (izena, jaiotza, Fontenay-rako heltze-eguna, aurreko urteetako eskolak). Txartel bat egin dut neure izen eta deituraz. Galderak egiteko eskatu diet.

10 - 55 - - - Musika maite duzu ? Kirolak maite dituzu ? Honek garbi adierazten du : kantatuko ahal dugu ? jinasia egingo ahal dugu ? Hala erantzun dut, zer galdetu nahi zuten ulertu dudala adieraziz. Entzuleria pozik oso, eta bi puntu horietaz lasaituta.

Isilune luze bat. Neskatala bat luzaz mogitzen da, eta lotsagabe izateko bildur dela esan dit; baina nik galdera egin dezan bultzatu dut: - Ezkonduta zaude? - - - Eta abiatu ondoren, eta nik erantzuteko betarik izan gabe: " Seme-alabarik baduzu? ".

Nik jator eta xeheki erantzun.

Harriturik, elkarri begiratzen diote denek. Azken galdera bat oraindik, lasaitasun-hasperen bat ekarle :

- Zenbat urte duzu ?

Nik erantzun, eta gazte atxeman nautela nabaitu dut pozez. Horma zulatua da.

11 - 20 - - - Berek beren burua presentatzeko eskatu diet. Nik : nahi duzuen esan, zuen lagunek galderak egingo dizkizue, baina zuek ez zarete erantzutera behartuak.

Neska bat presentatzen da, eta modari buruzko galdera bat egin diote: hasia da eztabaida. Neure iritzia eman dut lasai.

11 - 33 - - - Beste neska bat, baina hau bere lagun batek presentatua, bera bere buruz ez baita ausartzen. Itxura ausarta du, presentatzailea jaiki egiten da, eta abar.

Berehala galderak sakonago bihurtzen dira: " Bildurtia zara, zein da zure desirarik handiena, bizimodu modernoan atsegin zaizu ?

11 - 42 - - - Eztabaiden zuzendaritza hardu du Sophiek. Azkenera arte ez dut nik zertan sarturik : eztabaida bere buruz doa lasai.

Irten baino bost minutu lehenago, gaur goizean egin dugunez pitin bat pentsatzeko esan diet; oso pozik daude, el-karte bat aipatu dute, ikasgela apaintzeko behar diren gauzak

erosteko (landare, irudi, eta abar).

Egun bereko arratsaldea

14-etatik 15-etara, arazo administratiiboak; eta honela presentatu ditut, laiste ohikoa :

- Zerbait dadukat zuei esateko.

Bukatu dutenek liburutegiko dokumentoak begiratzeko baimena dute, baina baldintza bakar batekin, askotan berriz gogorazi beharrekoa: dena zein bere lekuan uztekoa.

15 - 10 - - - Gainerakoek (hamabik) beren burua ez dute presentatu nahi. Ahalik eta lañokienik nori bere txartela ematen diet, beren izenez.

Berriz ere elkarte aipatzen da. Nik lasai beren gisara uzten ditut.

Esku-lanak egiteko eta beharrezko gaiak erosteko elkarte bat egitea erabaki dute. Ingurrazti bat hartu, eta diruarentzako kaxa bat. Diru-sariak aipatzen dira. Diru askori buruz hitzegiten da. Juzkatu gabe neure erantzuna ematen dut.

Irailaren 15, ikastaroko bigarrena

8 - 15 - - - Oraintxe sartu gara; ikasle berri bat dago. Taldeari eskatu diot harrera egin dizaion. Zai, gizarajoa zoko batetan gelditu da zutik. Beti bere zokoan, hantxe dago geldirik eta aulki bat eman diot.

Gainerakoak nor bere lekuan jarri dira; neskaitila batek sosak gutun-bildumetatik. Zurrumurrua, iskamila. Inork ez du kasorik egiten nitzaz, ez etorritako berriaz.

8 - 25 - - - Ahapeka hitzegiten dute etorri berriaz (benetan estoiko eta gogor !). Besterik ezer ez. Organizazioaren az-tarnak oro, fini.

8 - 35 - - - neri galde: " lanegingo dugu ? "

- Zuek egin duzue galdera. Zeron erantzunaren zai nago.

Ulertu egin dute, dena antolatzen da, berria bere lekuan jartzen, galderak egin dizkiote, ingurraztia eman diote, txartelak, eta abar.

Beste ikasle berri bat. Berehala harrera egiten zaio, eta lekua ematen.

9 - 47 - - - Galderen azkena. Isilunea. Anka-zarata. Aulki-zarata. Kezkaturik egingo ote dugunaz; aukera baliatzen dut.

- Errezela zabal genezake ?

- Ez ! - Oso " ez " lehorra. Neskatila gorri-gorri dago; irribarre batez lasaitu dut. Zalantza. Jaiki, eta berriz exeritzen. :

- Ez dakit hesten.

Bi mutiko jaiki dira, bigiratu egiten dut materiala honda ez dezaten, saiatu, eta errezel guztiak bat ezik tiratzen. Eguzkiak bete-betean harrapatu nau: ez dut ezer esan, eta jolasaldia pasa arte ez dut hesten.

Goizaren hondarrean, bizia gainbehera doa. Badirudi elkar gorroto dutela. Kezkatuta daude: tresneriaz, egingo dute-naz, gure lanaz. Nik bi erantzun eman ditut bakarrik:

- Ez dakit ezer; nola nahi duzue jakin dezadan?

edo-ta beste hau :

Ze rok antola zaue dena, ni zuen zerbitzutan nauzue, ezin dezaket deusik erabaki, denon artean erabaki behar dugu egingo duguna.

Ikastaldearen egunkariaren ideia mamitu egiten da (beti elkartearantzako dirua ateratzeko, gela apaintzeko). Fonteney-ri buruzko inkesta bat egiteko asmoak agertzen dira. Nik baietza eman dut, baina baldintza batekin: denek antolatu dute dena, nik eskatuko zaizkidan berriak emango ditut, edo bene-benetan behar dituztenak.

Irailaren 16

Goiza elkarrizketa motel batez hasi da, eta ni biziago-tzen saiatu naiz. Kamalehoinaz mintzo; nik hiztegia eskaini dut eta dokumento batzuk; zeren-eta, noski, nik ez baitakit kamalehoin bat zer den. Informazioa beharrezkoa dela atxeman dute. Marrazki bat pasarazi da eskuz esku.

Fonteney-ri buruzko lana prestatzen hasi gara. Azterke-ta pertsonal bat eskatu dut, gero taldeka osatzeko, eta taldeka betetzeko galdegai bat. Taldeak beren gisara antolatzeko utzi ditut. Lanean hasi baino lehenago nola egingo duten pentsatze-ko eskatu diet. Eztabaida bi minutuz, mahain bat kentzen handik. Aulkiak rektanguloaren erdian jarrita. Dena denbora labur-rean egina, eta zaratarik gabe.

10 - 00 - - - Nik esaten :

- Gaur goizean hau atxeman dut: Alain kulunkatzen dela aulkian, Nacre barreiatu egiten dela, karrasi eta farre egiten duela; lagun batzuk horietaz arranguratzten direla; Jean Pierre,

Anne eta Fabrice biziki jolastu direla; Annek arreata handia jartzen duela paperak zakartokira botatzeko; atzo bi ikaslek txikleak jaten zutela eta ahoa beterik hitzegiten; eta gaur hiru zeudela. Eta nik noiztenka pipa erre izan dudala.

Galdera kezkatu bat :

- Ezin ote daitezke paperak zakartokira bota ?

- Ezin dela egin ez dut nik esan; egin duzuen esan dut, besterik gabe.

Oharra : berehalatik bukatu da txikleak (arratsaldean agertzen da maizago); haurrek berek arbela ezabatzeko eta paperak biltzeko erantzuleak edo kargudunak izendatu dituzte.

Kargudun horien izenak nik idatzi, eta leku agerian jarri ditut.

Neskatila batek :

- Zuk egunez ezabatuko duzu arbela, eta guk bezperaz garbituko dugu.

Beste batek :

- Maisuak ez du arbela ezabatuko !

- Eta, zergatik ez, ikastaldeko bat denez gero ?

Noski, ados naiz ni arbela ezabatzeko, eta beste izenen ondoan neurea markatu dut.

Ontzi bat eskatu didate, eskonfa bat, kolore-igeltsoak, eta abar. Nik denaren nota hartu, eta arduratuko naizela agindu.

15 - 00 - - - Iragarpen hau :

- Diapositiba batzuk emango ditut, eta beste ikastaldekook gomitatuko ditut. - Gauzak prestatzen hasteko eskatu diet ikasleei.

- Nola egingo dugu ?

Eztabaida, antolaketa. Bi minuturen buruan mahainak zoko batetan daude, errezelak botata, aulkiak inguruan (txikiak aurrean, handiak atzean), gomitaturik datozenek beren aulkiak ekarri behar dituzte (egia esan, ez dago libro atzeko lekuez besterik, baina proiezioa hasi aintzin denak daude nahasirik, alde aurretik pentsatu bezala), eta tresneria gertu.

Ez dut alde aurretik abisatzen, eta isila mamitu denean lehenengo diapositiboa eman dut : Matisse-ren biluzi bat. Garrasi, farre, urduritasuna. Behar den denbora guztia utzi dut pasatzera hurrengo eman baino lehenago. Inork entzuten ez dituen galderak egin dituzte izutiek. Atralaka gaitza.

15 - 30 - - - Proiezioaren bukaera (hamabi diapositiba)

Nik aztertzen :

Farreak, algarak, garrasiak, zaratarengatik erantzunik gabe gelditu diren galderak. Uste dut saltsa horren gakoa gizonak eta emakumeak biluzik ikustea izan dela.

Ikasle batzuk biziki jolastu dira, eta ez dute deus begiratu. Egiteko eskubidea dute, baina galderak ezin erantzutea ez zait gustatu.

Isilik, hitzegitera utzi naute. Eta, elkar aditurik, diapositibak berriz erakusteko eskatu didate.

Aldi honetan galderak eta solasak oso itxurakoak izan dira, algara gutxi, eta interesa jenerala. Irudiko gaia bilatzen dute haurrek, baina baita asmatzen ere : “ Bere “toilette” a egiten duen erregina bat izan daiteke. “ Baliteke erregeren ondoan egotea, eta berehala mainatzera joatea.”

Mahainak eta alukiak nola taxutuko ditugun pentsatzen ari naiz. Erabakia zart hartu da : gomitatuek zapaldu duten zoruaren gainean aulkiak (batzuek laguntza eskaintzen dute), gero taxutuko. Dena, gutxi gora-behera, pentsatua zen bezala egiten da. Buru egiten duenak ohar bat egin die ikasleei, korrika zetozen-eta. Gauzak beren lekuetan utzi ote dituzten ikustera joan naiz: dena bere lekuan, eta armairuko atea hetsita.

(1.970-ko Urriaren 17-an idatzia)

Ondo egunetan erreparatutako gertakarien azterketa

Irailaren 21, goizean :

Jolasaldia, farreka, libertsio. Lanegiteko gogoa azalez: K-2-ko oharrean : hurrengo egunetan ere gauza bera nabaituko dut. Gauza ageria da taldeak hau espero duela nigandik: erabaki guztiak neronek hartzea.

Eltzegintzako txarroak ez ditu harritu, nahiz agirian nik jarria (bi egun beranduago haur batek loreak eramango ditu, eta txarroa klasearen erdian jarriko); liburutegia begiratu dute bakarrik, goiz oso batez nik jarria; ez dute batere galderarik egin mahainaren gainean dagoen hosto-piloaz.

Denbora pasata, galdera heldu: “ Zer dira hosto hauek? ” Beti bezala, nik ez dakit, baina bilatu egingo dut. Azkenean begiratu egin dituzte, marraztu, zuhaitzen izenak bilatu, baina

beti lur-jo egin dute. Azkenean belartegi bat eraikitzekotan lehortzera utzi ditugu (Urriaren hastapenera arte hasiko ez dena)

Arratsaldean

Zaila. Egingo dituzten betebeharrak hautatu dituzte. Jokoaren beharra nabairu dut, eta egitera utzi ere bai (bloke logikoen bidez erreparatua): ene ustez haur hauek joko-falta dute.

Ez dakite eginkizun bat aukeratzen, dena nigandik espero dute, eta deusik esaten ez dudanez gero, kontra egiten didate hitzeginez eta nahasiz.

Nik begirutzen ditudanean, isildu egiten dira; baina beti lanpetua egoten saiatzen naiz.

Irailaren 25

Orain dela egun batzuk badira gogo handiko bolarak, eta segidan tristura-aldiak ere. Badirudi zerbaitek hasi behar lukeala, baina itzaldu egiten dela berehala.

Azkenean ezer ez dabil: pentsatua zen lana ez dago burutua (haur batek behin eta berriz esan digu : “ beti ari gara gauzak hasten, baina deusik ez dugu bukatzen ”) Hasia zen inkesta pikutara, ostegunean jarraitua izan beharrean. Markatutako biltzarrerara nehor ez doa.

Ez dago ez indarrrik ez arrazoinbiderik hasitako lanari eusteko. Harritzen dituen askatasun honetan nola moldatu ez dakite, eta batez ere askatasun horrek ikaratu egiten ditu.

Nik neure aldetik , dena ezin hobeki doala uste dut: kezka, koloka, beroaldiak eta segidan ilunaldiak. Zerbait astindua izan da. Orain baliatu egin behar da.

Irailaren 28

Test-en ondoan, lan bat hautatzeko minutu pare bat:
- 9 - 23 - - - Lanaren hasera. Lan-antolaketa ona dago. Ideia bikainak agertzen dira, baina kezkaldiak ere badira.

- 9 - 55 - - - Hau iragartzen : “ 32 minutu behar izan ditugu hiru letra idazteko eta ikasleak taldetan partekatzeke ”.

Irailaren 29

Esanekoaren ondoan (diktadoaren ondoan), harrituta daude, egin baitugu gramatika eta hiztegia baliatuz, atseginez ikusi dut haur bat jaiki dela, eta hiztegiarekin eragozpenak dituen beste bati laguntza ematera joan zaiola; hogei minutu gelditzen, eta irakurketa nehork ez du entzuten.

Irailaren 30

Matematika-erasaldia haurrekin. Ez ziren horretan: jinasia tokatzen zitzaien. Ene azalpenek ez dituzte lasai uzten, eta enganatuak izan direla uste dute.

Hogei-ta-hamar minutu pasata, gogoia behera doa nabarmenki. Berriketaren hasten dira, jostatzen, marraztutzen, eta abar. Egitera nik uzten.

Matematikek interesatzen dituzten bi haur deitzen ditut. Isilka matematika-txarteltegi bat eman diet, eta belarrira azaltzen diet nola balia daitekean; eta zoko trankil batetan paratzeko gomendatu diet.

Berehalaxe beste bi etorri dira. Gauza bera egin dut. Handik bi minututara interesez ari dira matematika egiten, baita gogoz ere.

LEHENENGO ELKARRIZKETAIrailaren 30

Aurreko egunean telebistako saio bat ikusi dugu: 1.934-ko oporrak. Horretaz hitzegite nahi ote duten galdetu diet. Eta hil berria den Nasser-ek, hasi dira hizketan. Galdera asko arabitar herriei buruz. Arratsaldean talde batek txosten bat prestatu du Israel-i buruz, zaharraz eta gaurkoaz. Gero minztatuko naiz honetaz.

Gero langabeez eta atzerritar langileez hitzegin dugu (badira batzuk ikastaldean). Eztabaida mamitsuak. Pentsatzen duten guztia esatera uzten ditut (herri honetara etorri diren atzerritarrak, eta abar). Elkarrizketa bat lotu da, ez zait zaila elkarrizketa zuzentzen (alegia: hitza eman, hiztunari entzuna-razi). Bururaino joaten saiatu gara. Orduan elkarrizketa.

Nekatu gabe mintzatu gara bi orduz.

Zer atera? Israel-i buruzko azalpen bat. Errekara joko du; baina puntu interesgarriak agerrerazten saiatu naiz, eta taldeak hobeki lanegiteko sortu.

Portugal-i buruzko azalpena uste baino hobeki prestatua izan da; ikasleek ongi baliatu dute lehenengo saioa.

Ez dut parte hartzen, ezta errekara doazenean ere, horrela organizazioaren beharra sendi-arazteko.

Honek guztiak Urriaren 2-ko egunera narama, enetzako alde askotatik oso inportantea.

Urriaren 2

Goizean . . . Israel-ez eta " maison potamique-"ri buruzko txostena (Mesopotamia). Paretetan informazio-oinarri ona, ikastaldea erne eta interesatua, hiztunak gogotsu (baina ez-jakin).

Oso txarra da-izan, baina inor ez da konturatu.

- Haien lanaz zorion-ematen.

- Egindako galderek beren arrapostua behar dutela esan diet.

- Lanean parte har ahal izateko eskatu dut baimena, dokumentoen hautaketarako, gidatzeko, eta abar (egia esateko, bilatzen ari diren informazioa zein liburutuan atxeman daitekean esateko baliatuko dut soilki)

- Denek miretsi dute azalpen asmoa, eta nik onartua izateak harritzen ditu.

Azkenean, galdera guztiak bildu, eta biltzar guztian barrena talde batek azalpen berri bat prestatzen du; lehendabizi biharko prestatuko dutela esanaz, gero astelehenariko, gero gaurtik hamabost egunetara . . .

Lana berehala eta aisa antolatzen da :

- talde bat Israel-i buruz,

- talde bat Portugal-i buruz,

- bi mutikok kolore-paperezko kolaketa bat hasi dute, eta beste batzuk gauza bera egiten dute zoko batetan. Bizkor ditzaten behar dute, eta nik halaxe egiten dut.

- bi mutikok hosto-sorta bat hasi dute, ene hosto haiek baliatuz. Hiztegia bilatzen dizkiet hitzak, eta erabilketa arbelean idatziz. Belar-sortaren barriuan jarriko duten orri bat, azalpenekin, prestatzeko proposatu diet.

- neskatila batek izkribu baten azterketa egiten du.
- beste batek ordubete luzea pasa du irakurtzen.
- Christian, beti bezala, denak galazten bain ezer ikusi

gabe . . .

Eginbeharrak desberdinak dira, baina gauza aurrera doa. Denak interesatuko dituen gaia falta dugu; baina, badakit, hori ere etorriko da . . .

14 - oo - - - Telebistan kondaira-aurreari buruzko tele-saio bat. Denak interesatu ditu, baina erabaki aurretik 15 minutu galdu ditugu (neskatilek kondaira-aurreaz nahi dute hitzegin, mutikoek jinasia nahiago)

ISTILUA

Christianek eta Annek elkar jo dute. Heetatik tiraka, zainetan daude eta sutan . Aldamenean nago ni, arriskurik gertatzekotan parte hartzeko. Erredizak zaintzen ditut. Ikusi naute, baina ezer esan ez dudanez gero, aurrera segi dute. Berezi egin ditut, mutikoak soinekotik tiratzen zuelarik. Berriz hasten, baina mutikoak galtzaira-bidea du, eta iseka badoa handik.

Neskatila kontsolatzen dut, eta honek berehalaxe azaldu dit istiluaren jatorria. Azkenean bere burua defendituz ongi egin duela esan diot. Aski handia da, eta neskatila batzuek beldurrez entzun dute hori.

Mutikoak ere exeri, eta istilu horretaz mintzo dira, jakina. Utzi nik. Bi orduz horrela. Txilinak jotzean, orain dela bi egun izkribuak aztertzen dituen neskatila batek, doinu salatari eta gogorrez hau esan dit: “ Matematika ote zen hori ? ”

Erantzuna : “ Ez, askoz ere inportanteagoa zen ”.

Izan ere, hala da.

Christian atsekabe, nahastaile, jasan-ezin hori zigortzeko asmoa aipatu da. Annak egin duen bezala, besteek ere defenditzeko eskatu diet.

Eman dakizkiokean zigor guztiak aztertzen dira, gramatikatik has eta CES-tik botatzeraino. Metraileta bat hartu eta hura garbitzea errazago ez ote litzakean izango galdetu dut. . . Ikara aldi bat izan da.

Eta bapatean, neskatila bat mintzo : “ Christian ez da zoriontsu bere etxean, horregatik nardatzen gaitu, Bi aita ditu, galazi egiten du, bideetan arrastatzen da, bere ama ez da beraz

arduratzen ”.

Izkutukien tenorea hasi . . .

Beste batzuek ere ez dute aitarik, edo amarik, eta esan egiten digute. Aitor guztiak entzun ditut, ezer erantsi gabe, eta lasai gelditu dira hori esanda, entzun dituztela ikusita, harrera ona egin zaiela nabaituta. . .

Zail dago gauza. Neskatala batek bere drama azaltzen digu , eta guk isiltasun osoan entzuten. Haurregitean bere ama galdu duen haurraren kaso a da, eta aitak abandonatzen duena.

Nik berriz hizketa Christianen kasora jendea ekarri.

Beste batzuk disimuloz mintzo dira berezitako fameliar: beti da izeba bat, edo lehengusu bat, hauzo batzuk edo “ hau ta hura diren haurrak ”. Inor ez da errugabe, inork ez daki beren buruaz mintzo direla.

Lotsatiak dira, xehetasunez beteak eta gaistoak ere hitzak ongi ulertu nahi baldin badira. Baina. Christian ?

Neure gain hartu izan ditudan haur batzuen kaso a azaldu dut, neure gain hartu ditut eta gaur ez dira gorrotagarriak.

“ Christian baino okerrago, bakarrik dago, bideetan arrastatzen da ”.

Hasarretu egin naiz, mahainean jotzen: “ Eta guk ezin dugu ezer egin haren alde ? ”

Ondorerik ez gaur. Egoera hauen gako a duen Chantal etortzean tentsioa jetsi: pelikula farragarri bat kondatzen hasi zaigu-ta.

16 - 00 ak dira. Txilinak berezten gaitu.

Noski, Christian ez zara baztarrean utzia izango. Hartaz arduratzen naiz, ez dut uste bakarra naizenik.

Klasearen barruan elkarrizketa lotua da. Harreman bat izan da eta elkarrizketa batzuk. Aurreko urteetan baino obeki senditzen dira.

Neskatala batek hau esan du: “ Aurten, libro naizelako, hobeki senditzen naiz ?”

Ez dut erantsi : “ libro . . . eta erantzule, erantzukizun-emale ” : joateko tenorea zen. Eta denbora izan banu ere, ez nukean esango.

Zeren-eta arrats honetan, erantzukizun horren garrantzia batzuek ulertzen dutela nabaitzen baitut, eta bizitzen hasiak direla . . .

(1.970-ko Urriaren 2-an idatzia)

BIBLIOGRAFIA :

LILITEGIA : LANA

- Lilitegiko eginkizunak
- Ikasgela : gauzen antolaketa
- gai baten prestaera : mamia, obrakuntza

EGB - Lehenengo maila : LANA

- Erakasaldia nola presta; ikaskizunak.
- Lehenengo mailan dauden lan-aukerak

LILITEGIKO EGINKIZUNAK

A) Heziketaren bidez haurren hazkundearen arazoak konpontzen dira, eta gizarte-ohiturak sortzen; inguramendurekiko loturak mamitzen, interesak hazten, lan-ohiturak, organitzatzeko ahalmenak azkartzen, baita nahimena eta zailtasuna.

B) Heziketari esker haurra bere beharren arabera aurrera daiteke, biltzen ari denaz jabetzen laguntzen, ondorio bate-raino iritxi eta laneginaren atsegina dastatzen; eta honek haurren hazkundera bultzatzen du.

Bi lan-mota behar ditu haurrak: bere buruzkoak eta talde-tan egitekoak.

A) Pertsonalek hau erraztu behar dute: psikologiazko dohainak hazi, soin-dohainak hazi eta ideiazko jabekizunak biltzea.

B) Taldeko lanetan, berriz, beste gauza hauek bultzatu behar dira haurraren: taldeari atxikiago izaten, eta denbora berean libroago; eta bere indarrak eta besteenak elkartzen.

SOIN - DOHAINEN HAZKUNDEA

Kontzientzi sentsoriala hartzen erabilitako gauzazkiez eta topatutako eragozpenez; norberaren gorputzaren kontzientzia eta inguratzen duen espazioarena. Abilezia, zorroztasuna, azkartasuna, erreflejoak, keinuren zehaztasuna, orekaren sena, eta norabidekoa; hau guziaz oso lotuta dago dohain psikikoekin.

Dohain psikikoen hazkundera

Dohain pertsonalen jabekuntza.

Nork bere burua kontrolatu; erabakimena, bultzamena. Garaitu-nahia, kontrolamena, espaziozko egituren hobekitzea. Adimenezko jabekuntzak baldintzen ditu horrek guztiak.

ADIMENAREN IRABAZIAK

Hizkuntza - Hizkuntza zehatzaren hazkundera, eta honekin batera doazen erabilitako gauzak eta bururatutako ekintzak.

Hizkuntza osatuago, egituratuago, espazio-lotkiak, den-

borazkoak, giroari edo inguramenduari buruzkoak.

Gizarte-hizkuntza, bizitutako esperentzier buruzko ahozko elkarrizketa, egoera baten azterketa. Berriz gertatzen eta aldatzen diren egoera ezagutuen bidez pentsamenduaren egituraren hazkundera, egokiera eta sorrera beharrezko eginez.

Matematika - Haurren adimen-hazkunderan gorako aldakuntza bat dago eskolara sartu eta bost urte t'erdi dituen arte. Lehenengo mailan, haurrak ez du zenbatasun abstraktoaren ideiarik, baina kolore, gauza eta formen pertzepzioa. Maila honetan, ariketaren bidez prestatu behar da haren matematika-gaitasuna. Ariketa hauetan garrantzitsuena mailatasun edo gradutasunaren arabera taxutzea da.

Alderaketazko ariketak karkulu-bidea prestatzen dute. Sei urterekin has daiteke benetako karkulu-aldia.

Sentiduen heziketa

Haurrak, hau ez da ahaztu behar, gauzen ikuspen orokor bat du; aurrerago, aldi analitiko bat; eta hirugarren bat, hau ere orokorra, globala: baina hau aberatsagoa da lehenengoa baino, tartean aldi analitiko bat izan delako.

Sentidoen heziketa egiteko ariketa batzuk egin ohi dira, denak sentsazioak taxutzeko modukoak. Ariketak bi modutara egin daitezke, eta haurrak bat hautatu beharko du : elkarketaz (berdinak elkartz) edo mailakuntzaz (ondokoen segidak sortuz).

Lehenego logika-urratsa parekatzea da; mailakuntzaz, berriz, alderatzeko dohaina lortzen da.

Azalpide dinamikoa

Haurren mogimendua dakazten montajeak, lehen-lehenik, haurren ekintza-nahi libroari esker lortzen dira. Dituen ahalmenen arabera, hartzen dituen eraginen arabera, haurrak egokibide pertsonalak prestatzen ditu, eta horrela bere helburuetaraino iristeko. Ekintza horiek puntu hauetan laguntzen dute :

- espazioaren egituraketa apur bat egin;
- espazioan gauzakiak ezarri, eta ezagutu;
- norbera espazioa horretan ezarri, eta besteekiko eta gauzekiko ere bai;
- gorputzaren atalak aurkitu, eta haien balioaz jabetu;
- haztamu-bidez sentidoen eta mogiden ohitura hartu

(beharraren arabera egoki eta desegoki diren mogiden artean hautaketa egin);

- “ ni-tasun ” az jabetu;

- besteen izanaz jabetu; eta norberaren mogimenduak eta besteenak ezkontarazi;

- norberaren ikaspenetan eta bizieran oso inportante diren bi ekintzatan parte hartu: “ bilakaera edo eboluzio funtzionala laguntzen duen ” JOKOAN (Wallon), eta IDURIKETAN, imitazioan.

Lotura eta eraikikuntza da mogimendua: ikastalde baten ondorio, erraztua izan daiteke heziketa egoki baten bidez.

Azalpide plastikoa

Haseran, berariazko agerketak xinpleak izango dira, eta haurrak ez bestek azaldu ahalko du bere lana.

Geroago, bere mogidak hazi eta eskuratu ala, eta bere pertzepzioen jabe bilakatu ala, mamitsuago eta argiago bihurtuko dira haren lanak; nagusiek lana zer den esan ahalko du, nahiz hau oraino ez osoa izan. Piskanaka haurrak anitz xehetasun erantsiko du, bere lana osatu nahiz.

Itxuraren bilaketak mila arazo jarriko dio, xehetasun horiek lan osoa ez direla erreparatuko du; eta kontutan hartu behar duela gauzen itxura eta izana. Gai desberdinak landuz landutako gaiaren legeak atxemango ditu; eta aurrerakoan hauek errespetatu beharko ditu.

Ez da aski esango halere erakasleak kontu handia izan behar duela eta haurren lanak ikertzerakoan itzal handia erakutsi behar duela. Gauza ageria da haurrek erabiliko dituzten teknikak ez direla beti izango egokienak, baina beren buruz saiatzera utzi behar dira. Bere buruz aurkitu behar du haurrak, eta bere buruz bildu behar du.

Andereñoak aldamenean egon behar du, laguntzeko eta gidatzeko, baina beti ere abiaburutzat haurraren beraren eskabideetatik hasita, eta beti ere bere problemaren soluzioa haurrak berak aurkitzeko moduan.

Adimenezko jabeakuntza hauek guztiek haurra bultzatzen dute bere buruz jokatzera, eta gertakari berrietan bere buruz erabakitzen.

“ Haurra gauzak erabiliz ez-ezik, asmatuz, somatuz eta idurituz ere hezten da haurra. Orduan sartzen da sinboloen

alorrean, gauza izendatua izan ezin daitekean lekuetan; eta han adiskide bihurtzeko ez da eskuz erabiltzea baizik ” (Le Chevalier).

IKASGELAREN ANTOLAKETA - LILITEGIA

- Lortzeko helburuak
- Jostatzeko eta bestetarako jolaslekua.
- Haurraren beharren arabera erredizak.
- Girokuntzan eta apainketan haurrak parte hartuko.
- Abereak eta landereak.
- Talde-tresneria.

Ikasgela batetan izan behar den tresneriaren lerrokada

(ikus “ Puff “ , Ed. Casals)

- - Egurrezko makilak, tamaina-sailean (Montessori)
- Ezar-zuloak (Montessori)
- Kubozko dorrea (gorago eta ttipiagoak)
- Kaja bat sentiduak lantzeko tresnekin :

Entzumena : hondarrezko hodiak, edo besterik, soinuak berezteko moduan.

Usaimena : botilatxoak, eta kotoina gauza desberdinetan buztia (kolonia, kafe, alkol, eta abar)

Ukimena : Mota desberdinetako zapiak, eta begiak estalirik berezteko modukoak (artile, ziriku, zaku, e. a.)

Dastamena : gatzez eta azukrez betetako botikak, kutsua berezteko.

Ikusmena : Elkartzeko koloreak, eta doia neurtzeko.

- Kiddikraft edo antzeko jokoak, erabil-errazak. Kolore alaiak, eta materiala iraunkor. Kontseilagarrri dira :

- - Piramidea
- kubo elkargarriak
- kutxa bat , eta sartzeko sos desberdinak.
- arrautza, tamaña liferentetan.
- Elkartzeko eta elkarri eratzikitzeko diren eraikikuntza-atal guztiak. Egurrezkoak edo plastiko gogorrezkoak. Zoruaren gainean edo lurrean jostatzeko modukoak.
- Haiztoak (punta motzekoak, istripurik gerta ez dedin),

eta zultzeko felpa lodia (20 x 15)

- Tablex-ezko ohol bat, zultua (25 x 20), eta plastikozko haria josteko.

- Lehenengo egurraren gainean (40 x 20) forma errazerako lerro geometrikoak erantsi, berinezko papèretan eginak (zentimetro bat zabalera), haurrek behatzaz segi ditzaten.

- Artelazki edo kortxozko xaflak, zentimetro pare bat lodiera, txintxetak gainean ezartzeko moduan (20 x 15).

Harilkatzeko gauzak, koilaretxoak moldatuz (bolak, botoinak, landutako plastiko-hodiak)

- Kolorezko arkatzak (bost kolore aski)

- Argizagizko arkatzak

- Barniza

- Arbeleko igeltsoak

- Plastilina (kolore bakarrekoa izatea hobe)

- Moldeatzeko buztina

- Margokia (funtsezko koloreak, urdin, gorri eta hori)

- Margotzeko pintzelak

- Lotzeko goma

- Goraize borobilak

- “ Gomets ” (atzekaldetik lotutako geometri-itxurak)

- “ Hiztegi-kartoinak ”, fotoz eta errebistetako marrazkiz eginak (beti haurraren hiztegiaren arabekoak)

- Banatzeko gauzak : neurriaren, kolorearen, itxuraren, erabilketaren arabera. Botoinak, barazki-aleak edo arropak izan daitezke. Baita jostailutxoak: kotxe, panpin, alimale, eta abar.

- Marrazki argiak ebaki, eta kartoin batetan jartzea (bi edo hiru puskatan)

- Liburu

- Paper couché

- Sedazko papera

- Aldizkari eta egunkarien papera

- Neurri eta mota desberdineko papera. Orri zuriak eta kuadríkula zabalekoak.

- Neurri desberdinetako potoak, urez jostatzen.

- Haur hainbat baso, nori berea.

- Panpina bat

- Garbikailuak (erratza, errauts-zapia, suila, baieta)

- Mokor logikoak

- Musika-tresnak (danborra, pandereta, triangurua)

AZTERGAI BATEN LANKETA LILITEGIAN

1 - Oharketa

Aztertzen den gauza haurraren aurrean dagoenean :

Lehengoz : gauza hori aztertzen eta aipatzen libro.

Hizketatik hasiz geroz : a) maisuaren esanak moldatu eta zabaldu ; b) haurrak bere ohiko hizketara bil dezakean hiztegia eman.

2 - ELKARKETA (alegia, batasun-kontzientziaren jabekuntza multzoetan)

Hau ere hizketaren bidez gidatu

Denboran eta espazioan egindako elkarketan kontutan hartu.

3 - Azalpide abstraktoa - Hiztegiaren ikasera, eta erabilketa egokia. - Olerki - Kantu - Ipuin edo kondaira (" Nola azal ipuinak ", S. Cone Bryant) - Matematikaren gertaera.

4 - Azalpide konkretoa - Mogida-ariketa - Ariketa erreflejoak - Esku - lanak.

OROKORTASUNA

Lau urtetako bere haurraren Claparède-k topatu zuen fenomeno bat azaldu digu: pertzepzio sinkretiko deritzana. Honek ezagu zezakean kantu-puska maitatuak zituen izkribua, nahiz ez idazkia bera irakurtzen jakin, irakurtzen ez baitzekien. Musikaren orrialdea eta hitzez ezagutzen zituen izenpuruak elkartzen zituen; eta bazekien ezagutzen, nahiz liburua alderantziz jarria izan, nahiz eta kantua hura sei hilabete hartan ez ikusia izan.

Atzeratutako haurren oroimenez Jonkherrek egin dituen oharketak fenomeno-multxo berean sar daitezke. Haur honek, nahiz irakurtzen ez jakin, gramofono diskoak ezagutzen zituen, eta jotzea nahi zuena hautatzen bazekien.

Horrelako beste kasu bat azaldu du Jonkherrek berak. Eskualde guztietako ezagugarriak biltzen zituzten kartointxoekin jokatu zen mutil hori; eta geru luzaz joko hura egin gabe egon ondoren, eskualde guztien seiluak eta erresumak zituen gogoan hauek edozergatik bere adimenara azaltzen zirelarik.

Bi urte t' erditako haur bat ezagutarazia du Decrolyk : bere jokoei buruzko esaldi asko ezagutzen eta konprenitzen baitzuen.

Gertakari berbera aztertu du Revault d'Alonnes-ek, eta hitza Kantengan hartuz, eskematismo deitu du joera hori. Revault d'Alonnes-ek Claparède-ek baino zabaltasun handiagoa eman zion. Adimenezko ekintzaren maila guztietan ezarri du hau, eta ez pertzepzioan bakarrik.

Fenomeno hori bataiatzeko " sinkretismo " eta " eskematismo " hitzen egokitasuna aztertu gabe ere, eta arretarekin duen loturaz, azalpen erraz honek eskaintzen duen modua baliatuko dugu haren ezagugarri nagusiak erakusteko. Hori eginda, ondorio pedagogigoak ateratzeko era izango dugu.

Gogoan har ditzagun, esate baterako, ondoko xehetasun hauek :

1 - Berriz pertsona bat ikusten dugunean, ezagutu egiten dugu, nahiz behin baizik ez ikusia. Ez dakigu benetan zertan jarri dugun arreta ezagu ahal izateko; eta lehenengo aldiz ikusi genuenean, ez genuen inolaz ere gogoan hartzeko asmorik.

2 - Margo bat, irudi bat ikustean, batzutan behingoaz esan dezakegu, xehetasunetan sartu gabe, lore bat, etxe bat, edo abere hau edo hura dela esan ez-ezik, areago azalpen bat eman ere: lore-sorta, suketa, ehize-pasadizu, eta abar.

3 - Liburu bat irakurtzen segi, edo eresi bat kantatzen, nahiz argitasuna aski ez izan, eta halere irakurtzeari eta ulertze-ari ekitea, nahiz diogu ilunpe erdi harek grafia guztia ikusteko hainbat argirik ez eman.

Takitoskopiko deritzaten saiaketak hau erakutsi digute: bakoitzaren atal hau edo hura ezagututa osorik ezagutzen ditugula.

4 - Eskala txikiko mapen ikuspenak, behingoaz, eta begi kolpe bakar batez, zein eskualde den esateko aukera ematen du.

Gertakari horiek guziek oinarri berbera dute: denek dute zer-ikusirik ikuspenarekin. Baina ikusmenaz kanpo ere badago hori bera erakusten duten beste gertakariak. Adimenezko ekintzak lotura berberak ditu entzumenaren, larruaren eta mogiden pertzepzioekin.

Gonbarazio baterako: entzumenaren aldetik, zaraten entzueran fenomeno antzekoak aurkitzen dira, eta gauza bera larruko edo mogidetakoetan, hauek guztiek pertzepzio-mordo edo multzo bat ematen baitigute: itxura, malgutasuna, laztasu-

na, tenpefatura, geldituak ala mogitzen ari. Aztertzeke asmorik gabe ere, eta argirik gabe, iltzen bat ezagu dezakegu, edo gani-beta bat, edo liburu bat, eta hau etxeko edozein lekutan.

Asmatutako zerbait kanpoaldera agertzeko eta mami-tzeko (ate bat egiteko, eman dezagun) badirudi xehetasun horiek gabe ezin dezakegula horren azterketa zehatza alde batera utz. Zur puska bat hartu beharko dugu, halako luzerakoa eta honelako lodierakoa, aserratzeko tresneria beharko dugu, neur-tzekoak, eta abar. Halaz ere, ongi jabetuz gero, ate horren prestaeran pausu batzuk besteak baino inportanteago dira. Ezin alde batera utz xehetasunak, ez; baina hauetakobatzuk azkenerako utzita ere, edo alde batera utzita, atea egin daiteke. Ate bat izan-go dute halere; nahiz markoaren moldurak ez oso egokiro ezkon-du atearekin, edo burdinazkoak izan behar bazutekean ere. Bastidorea egin orduko, atea hor dago funtsean. Herri arkaiko-en arteak honen froga eman digu: erdipurdi edo gaizki eginda-ko gauzek ere funtsean bazuten ideia zabal bat oinarri, xehetasu-nik gabe, lagungarririk gabe, bere baliotasunari ez besteri begi-ratuz. Langintza bat hasi aurretik, beraz, honek adierazten duenez, bazuten eskema bat barruan somaturik.

Orain beste egintza-mordo bat aztertzen baldin badugu ez materia moldatzeko edo mekanismoak elkartzeko, baina pentsamentuaren moldaketa, orduan ere errazketa eta eskema-tismoa berriz agertzen dira. Krokisa, plano, karikatura, eskema-tismo horren lekuko dira. Arte plastikoak eskemakiro azaltzen dira, ikusmenak pertzepzio-mota hori posible egiten duelako.

Musika ez da horretarako horren egokia; baina musika-ren egileak maiz erasotzen dio eginkizunari musika-esaldi batzu-en bidez, gero hauek handituz, zuzenduz, berretuz eta harmo-nizatuz.

Literatura-osaketak ere alde aurretik multzotasun edo osotasun horren ideia bat eskaintzen du: ia beti aurretik ideia bat du gidari, obraren eskema gisa; eta gero hau zehatzago, aberatsago eta zabalago egiten da.

Esandako horri darraikio, beraz, globaltasun edo oro-kortasunaren fenomeno hori adimenezko jokabidearen sustraian dagoela: pertzepzioan, oroitzapenean, pentsamenduan, arrazoin-bidean, azalpidean, ekintzan.

Hel dizaiogun, beraz, oinarritzko gertakari honi: adime-naren lana, edozein urratsetan, konkretua izan ala abstraktoa, hestua ala zabala, objetibo ala (batez ere) subjeliboa, axalekoa

ala barne-muinetakoa, beti egoten da, edo egon daiteke bederen, pertsonaren joera nagusien eraginaren menpean. Hau dela-eta, pertsona berberarengan oihartzun eta adierazki desberdinak hartzen dituzte, orduetan, egunetan edo urteetan barrena, gauzek eta gertaerek. Gauza bera pertsona liferenteengan, segun-eta adina, setsua, gizarte-klasea, lanbidea, politika, hizkuntza-jakin-tza, erlijioa, eta abar.

Pertsonaren joera sakon nagusi horiek —orain ikaslearenak dira— kontutan hartu behar dira gure lagunetik tratuan, eta heziketan ere bai geure arloari lotzen bagatzazkio.

Jokabide osatzeile eta orokor-tzaile hori gura izanaren agertzapen guztietan eragile dagoela esan ondoren, pedagogi-arazoetan sartzen dela gauza ageria da.

Hori, besterik gabe, ikuspen axalekoa izango litzake, ondorio azkarregia. Froga zabal batzuk ekarri behar dira beraz, eta sinestea ekarriko duten puntu batzuk.

Dato nagusi bat aurren aurrenik: haurrak eskolarakoan, lilitagirakoan, etxen hitzegiten duen hizkuntza: ama-hizkuntza. Familiaren heziketak moldatu du funtsean haurraren hizkuntza. Eskolak badu bere parte, jakina; nahiz zenbat esaten zaila izan. Baina, egia aitortzeko, zer erakats dezake eskolak haurrak hitz horiek konprenitzen ez baditu? Nola lortuko du haurrak horren zaila eta zorrotza den teknika hori? Haren amak, erakaspide didaktiko berezitara jo gabe, gauzen eta gertatuen azalpen hutsaren bidez, hizkuntzaren gorabeherak eta koskak erakasten dizkio, programatan pentsatu gabe, eta jokabiderik ikertu gabe. Bere burua iduri-arazten, kopiatzen, ulertarazten du. Mirari hau hezitzaileak ezagutuko balute —Decroly-ren hitzak dira— heziketaren eginbeharrak argiroago ikusiko genituzke.

Amaren erakaspidea orokorra, globala, eskematikoa, oldezkoa, berezkoa da; baina denbora berean logikoa, egokia, praktikoa, frutukorra.

Batez ere lehenengo urteetan, antzekoago izan erakaspidea eskolan amaren erakaspidetik, eta hobea eta egileagoa izango da, baita helburutzat hartu duena lortzeko dinago.

Karkulu-neurketan, osotasunezko irudiek biziki laguntzen dute aritmetika edo geometriazko problemak ulertzeko. Horrelaxe eskaintzen du berezko materialak: alegia, taldetan edo hamarrekotan gauzak aurkeztuz; gauza bera tresneria didaktikoak batekoaren eta hamarrekotaren ideia adierazteko pentsatua izan denean (pustarri, perla, kubo, artimometro). Eta beti ere gehia-

go eta gutxiago ideiak, asko gutxi, ugari urri, gehiegi, handi, txiki, luze, labur, lodi, mehe, denek dute orokortasun-idea bat funtsean.

Ezin daiteke uka problema baten datoak jokabide osatzailer horren laguntzaz antolatzen direla. Geometroaren problemetan oso maiz gertatzen dira intuizioaren bilaketak, eta Poincaré-k azaldu zuenez goiko matematiketan oso laguntza sendoa eskaintzen du intuizioaren bide horrek.

Izadiaren zientzietan, era berean, hauek ez badira hartzen fisika-kimikak, geologiak, biologiak, eta abarrek, zeinek bere bidetik bildu dituzten ideien bilduma borobildu gisa, sail honen erakaspentak okasio bikainak eskainiko dizkie ikasleei —hamalau urteak bete arte batez ere— oharketa-ariketak egiteko, eta Izadiaz funtsezko ideia nagusiak biltzeko, gizonarekiko loturak eta jatorriak aztertuz.

Munduaren jabekuntza oharketaren bidez egin du gizonak; eta era berean haurrak, sistemakuntza-nahirik gabe, bere buruaz eta inguratzen duten gauzez lor dezake ideia-mordo bat: hauek batzutan elkarren ukatzaile agertzen zaizkio, baina aski izan dakizkioke errealitatearen oihanean barrena bide egiteko.

GEOGRAFI ETA KONDAIRA

Lurraren eta giza-ekintzaren azalpena gizonaren eta honen inguruko gauzen ezaguera gisa hartzen baldin badugu, orduan bi horien lotura eta batasuna gauza ageria izango zaizkigu: biek eta Izadiaren zientziek funts berbera dute: “ espazioan biziera ” eta “ denboran biziera ” baitira.

Horrela hartzen ditu haurrak bere hastapenetan: gertaeran ilara eta gertatu diren lekuena batera hartzen ditu. Jostailuen kondaira, era berean, jostatu den lekuekin lotzen du. Ez dago zalantzarik, beraz: jabekuntza horiek osaketa edo orokorketa baten bidez lortu dira.

Zer egin dezake eskolak psikologi-bide berberetik jotzeko, eta bilduko dituen gaiak eta bilkizunak oro bide eta bilakabide beretik sartzeko? Haseratik —7urtetatik 12 arte— okasioak eskaini behar zaizkie ikasleei beren dokumentazioa handi dezaten gertaera nagusiei buruz, eta gertaera hauetako bakoitzari espazio eta denbora berezi bat erantsiz.

HIZKUNTZA

Azalpide baten jabekuntza gisa hartu behar da, ez erre-gela mordo gisa, hizkuntzaren ondotik sortuak bailiran eta hizkuntzak berak baldinduak. Ezin gaitzke luza hizkuntzaren arazoan, zaila baita; eta berex aztertuko dugun irakurketa orokor edo globalaren arazo didaktikoa hunkitzen duelako.

Pedagogia jeneralaz egin berri ditugun ohar horiek, eta jakintza-sailen artean dauden loturek, beste puntu batetara garamazkite: alegia, ez zaiela hurrei jakintzen mordoa presentatu behar adar berezi gisa, elkargandik aparte; baizik-eta arbola behar zaiela erakutsi, zuhaitzaren osotasuna, denak jasaten eta biziartzten dituen arbola. Ahal delarik, beraz, eta didaktikaren aldetik mintzatuz, emai egun ikasleei giza-jakintzen eske-ma nagusia: adar batzuk ditu, bai; baina enbor bakar bat. Eske-ma nagusi horri dagokio egia: errealitatean gauzak elkarturik daude, eta haurrari ere elkarturik daude hor, haurraren ezagueraren bitartez hain zuzen.

(Orokortasun-inarkunari buruz JM Bosch-enetik laburtua)

OROKORKUNTZA, BATERAKUNTZA
OBRAKETA KONKRETUAREN SAIOA

Txartel-eskema :

1 - Ideia nagusia

Bibliografia : erakaslea / haurra

2 - Abiadura

3 - Lan-jarraipide

4 - Egin beharreko oharrak

OHARKETA: errealitatearen

aurrean haurra paratzea.

5 - Eginak

6 - Beste azalpide-aukera :

Hizkuntza

Matematika

Plastika

Dinamika

AZALPENA - ELKARKETA

Oharketan ondoko obra-
keta. Alderaketa eta jener-
alizazio ariketak.

Begiratu behar diren katalogoak eta liburuak :

LEHENENGO MAIKAKOENTZAKO PROGRAMA - GAIA

- Aldamenean duguna oinarri.

Udazkena - - 1 - Zuhaitza, frutua, hostoak, zuhaitzetan bizi
diren alimaleak

2 - Eskola: eskola-bizian parte hartzea; lagunak.

Negua - - 3 - hotza, ura, arbolak; alimale iletuak

4 - Eguna eta gaua; erlojua (programatik at)

Udaberria - - - 5 - landareak, mamutxak

6 - etxeaz: famejia, famelia-bizian parte hartzea,
karrera, herria, aberria.

Uda - - 7 - lurra, bakantzak

Zuzenespena - Has gaitzen " zuhaitza eta frutuak " delakotik, haurragandik hurbil dagoelako, eta txarteletan, dago-kion matematikazkoak, lehenengoa izan behar lukealako (Beharko da; baina txartel honen apur bat utz dezagun udaberri-rako). Hizkuntzaren txartela hasteko aurreratuegia bada, utz

dezagun udaberrirako, eta balia dezagun gaia ahozko lana egiteko.

“ Eskola ” ere aurkikunde-lana izaten zaid haurri lilegitik eskolara pasatzerakoan, edo lehenengo aldiz eskola batetara doanean.

“ Negua-ri ” buruzko gaiak oso ongi funtsatuak izaten dira: hotza hasi da, egunak laburtzen ari . . .

“ Udaberriz ” “ landareak eta mamutxak ” azter ditza-kegu. “ Etxea ” ere jar dezakegu, matematikaren txartelak behartuta. Txartek horretatik gizarte-giroaz egin dezakegu lan bat; nahiz, egia esan, “ eskola ” gaian barne.

Ohar bat : Azpi-marraturik dauden gaiak udarako Eskolak landuak izan dira.

SAIAKUNTZA - ZABALERAK : “ B ” AUKERA

- Gakoa hau da : 6 urte duen haurra Izadiarekin, denborarekin eta espazioarekin, eta gizartearekin jarri behar da harremanetan; zeren-eta:

a - eskola-aurreko bizituen kontzientzia hartzen hasi baitaiteke.

b - bere burua era guztietara azlatzen ikas baitezake (hizkuntza, matematika, plastika, dinamika), eta ikastaldian memento garrantzitsua dela ahaztu gabe.

- Udara-ko Eskolak landu dituen txartelak taxutzen saiatu gara, eta URTE - ZAROAK eskaintzen dituzten interes-gaiak oinarritzat hartuz.

Eta legezko programak proposatzen dituen gainerako gai guztiak erantsi ditugu lehenengo Maila honetan, beti irizpide berbera gidari.

- Taxuketa edo gai-ilara batetarazgero, ez du horrek adierazten gaiak sistemakiro ilara horretantxe ikasi behar direnik, eta bata ustiatu gabe hurrengora pasatzerik ez dagoela.

Ezen, alde batetik, laburki aztertutako gaietan, haurrak haria segi du gero eta ondorioak ikusi (marrazki, kartel, eta abar)

Eta, bestetik, ahal den guztietan, gai berbera aztertzerako, eta horretara alderdi liferentetatik ikusi eta lehenengo loturak finkatzeko.

Esate baterako :

- ZUHAITZA izan daiteke ikastaroan barrena azter daithekan gai bat.

Hastapenean ikasgelako pareta oso bat hartuko lukean zuhaitz handi bat egin liteke, zuhaitz baten iduri (lorategikoa edo errepidekoa); haurrek ikastaro guztian barrena begira ahal izango lukete horrela. Estrazazko paperaz egin liteke, paper zimurrez, e . a .

Zuhaitza aldatu ala (hostoak horitu, gero erori, lehenengo muskilak jaito) ikasgelako zuhaitza ere aldatuko litzake, bertiereko oinarri gisa.

Denak lagunduko luke Izadia , aztertzen eta ohartzten, eta urtezaroen lehenengo ideia bat finkatzen (denbora).

- EGUNA ETA GAUA izan liteke egutegi baten hastapena (ikus txartela): ez luke hilabete batez iraunduko, ikastaro guztiaz baizik, Horren bidez haurra ohitu egingo da egunak, asteak eta hilabeteak erabiltzen.

- Ikastaro guztian barrena lotzeko hirugarren gai bat, funtsezko biziera-elkarteak izan litezke: eskola, familia, haurak, herria . . .

- Ez da ahaztu behar ikastaro honetan saiatu behar dela espazioaren ideia sarrerazten: barruan, kanpoan, urrun, hurbil.

BIZIDUNEN BEHARRAK

1-go HIRUHILABETEA

HAZKURRIA

- Bizidunek ura, hazkurriak eta aidea behar dituzte.

A - Gizonaren hazkurriak : ogia, haragia, frutuak, barazkiak, ura, esnea

- Gizonak landarearen parte batzuk darabilzki janari gisa.

- Ehizea eta arrantza egiten ditu.

- Nola aldatzen ditugun gauzak leku batetik bestera (nola biltzen ditugun janariak)

- Gizona laguntzen duten abereak.

B - Etxeko abereak (nola laguntzen duten gizona eta nola elikatzen diren)

- Uretan bizi diren alimaleak (nola serbitzatzen duten gizona eta nola elikatzen diren)

- Alimaleak alde batera eta bestera hazkurri bila.

2-gn. HIRUHILABETEA

D - Landareek haziak ematen dituzte (hazia da landarearen lehendabiziko hazkurria)

- Sustraiak, zangoa, hostoak eta loreak dituzten landareak (nola elikatzen diren landare berdeak)

(Landareak ez dira mogitzen ahal hazkurri bila joateko)

BABESPIDEAK

A - Soineko eta oski

- Herri eta hiri

- Argitzapena

- Jolasak : libertimendu eta ikuskari, joko eta kirol, bidaia eta txango.

3-gn. HIRUHILABETEA

B. - Anitz alimalek egiten du bere saizuloa, eta beren umeak zaitzen.

D - Belarren, zuhaitzen, zuhamusken hazkundera; zango eta kima.

- Frutuak loreetatik heldu dira (babesaren bitartez azal ditzagun puntu hauek, landareek ere babesa behar baitute)

Ohar jenerala :

- Udarako Eskolan prestatutako txartel bat, " Beharrak gizon guztiak dituzte " deritzana, programa honetako gai askoren iturri izan daiteke, gero horretatik zabalduz.

- U . E . delakoan prestatutako matematikazko txartelak, " neurri "ena ezik, eta " soineko eta oski " bereziki aipatzen baitu, inolako gai bereziri lotu gabe erabil daitezke; zeren-eta, lotuz gero, jarraitasun-haririk gabe emango bailirake.

Ohar bat : Azpimarratutako gaiak Udarako Eskolan
aztertu ziren

SAIAKUNTZA - ZABALERAK - - - " B " AUKERA

- Lehenengo aztergaian bezala, harremanak lotu behar dira:
- Izadiarekin, denbora eta espazioarekin, gizartearekin,
barneko bizituak era guztietara azal ahal izateko (hizkuntza,
matematika, plastika, dinamika)

- Udarako Eskolako txartelak eta bigarren Mailako legez-
ko programarenak taxutzen saiatu gara, eta horretarako BIZI-
DUNEN BEHARRAK hartu ditugu eragiletzat: HAZKURRIA
ETA BABESPIDEA.

- URTEZAROEN sorta berriz aurkitzeko (lehenengo
Mailan landua) eta denborari buruzko egiturari dagokionez
haurraren saiaketan bitartez aurreratzeko, egutegi bat prestatze-
tik has liteke, eta honetan hau ezar:

- urtezaroen araberrako txoriak, garaiko frutuak, soine-
koak (hotzerako, berorako, euritarako), ari duen eguraldiaz
(haizea, eguzkia, euria), festa nagusiak, ohiturak (futbol-aldia,
gaztain-saltzaileak)

EGUTEGI

URRIA

(egun bakoitzean, gehienik hunkitu gaituena idatz)

- Oharketa ahalik eta zuzenena izan dedin, balio luke
ikasgelan abereren bat eta landareren bat zaitu beharra izatea.
Egiten diren oharrak idatzi edo marraztu egingo dira.

- Eskuarrean haurrak duena oinarritzat, gizon guztiek
beharrak dituztela sendi-araziko zaio, eta nola batzuk denen
artean konpontzen dituzten (argia, herria)

- Espazioaren ideiei eutsi behar : barruan, kanpoan,
urrun, hurbil.

HIRUGARREN MAILARENTZAKO PROGRAMA - GAIA

IZADI - INGURUNEA , HONEN BALIAKETA ETA ALDAKETA GIZA-LANAREN

1-go. HIRUHILABETEA

- URA izadian (eta LURRA eta ura)
- Ura bizidunen hazkunderan
- Landareek sustraietatik edoskiz erabiltzen dute ura.
- Urte guztian hostoak dituzten zuhaitzak: pinuareak.
- Eguraldi hezeko zuhaitzak.
- Urpeko eta urgaineko bizikerako alimaleak: anfibioak.
- Bizidunen egoki-bideak: uraz elikatzen diren landareak,
- uretan bizi diren alimaleak, gizona.
- Bizi den AIDEA
- Aideak alderdi guztietara egiten du presinoa
- Aide beroa eta hotza
- Haizeak
- Landareak ugaltu egiten dira
- Haziak: barreiaketa, eta laguntzen duten bideak. Zangoaren eta sustraien hazkundera.
- Lurreko abereak: narrastariak
- Bizidunen egoki-bideak: uretan bizi diren landareak, aidean bizi diren landareak, gizona.

2-gn. HIRUHILABETEA

- GIZONAREN LANA
- Nola lantzen duen gizonak Lurra
- Nola lantzen duen Itsasoa
- Nola lantzen dituen Miak
- Nola lantzen duen Industria
- Nola erosten eta saltzen: sosak.
- Adimen-lana
- Lurrez, itsasoz, aidez, eta espazioan barreneko bidaiak; itsaspeko murgilaldiak

3-gn. HIRUHILABETEA

- Herri-serbitzuak: politzia, ponpariak, osasuna, eskola.
- Urrutirako elkarpideak: posta, telefonoa, telegrafoa.
- Egunkaria, irratia, telebista; liburua, zinema, antzerkia.

- SAIAKETA - ZABALERAK - " B " AUKERA

- Lehenengo gaien bezala, haurra harremanetan jartzea da heldurua: Izadiarekin, denbora eta espazioarekin, gizartearekin,

bere bizituak era guztietara azal ahal ditzan (hizkuntza, matematika, plastika, dinamika)

- Maila honetan gaudelarik, oso inportante deritzagu gaurzak eta hitzak batera emateari. Oinarrizko hiztegia sendotzeko eta zabaltzeko oso memento egokia da (4 gn. mailan haurrak beharko duen hiztegiak haurra ohitutzea oso komeni litzake: haran, klima, muno, e . a.)

- Haurrak oharketa arretatsu eta xehetan usatu behar du. Esate baterako: landare baten sorrerari buruzko saiaketa bat egiten badu, on litzake haurrak ikuskari hutsik ez egitea horretan, baina zenbatu, neurtu egin zezan, egunak, orduak eta gertakariak idazkiz markatuz; eta batez ere, ez zezala egin saiaketa bakar bat, baina landare batzuen aldera zitzala, ingurunea aldatuz: lurra, eguraldia, argia eta abar.

“ Aide bero eta hotza ” deritzan txartelean meteorologiako hiztegi bat proposatu da; eta on litzake hari urte guztian barrena eustea, urtezeroak kontutan hartuta.

Aldiro bete behar litzakean egutegia, bertako herri edo hiriarri buruzko berriak bilduko dituen: azokan aurki daitezkean frutuak eta barazkiak, garaian garaiko berriak, merkataritzaren gorabeherak (merkaketak)

- Denborari buruzko ideietan, bizi izandako gertaerak oinarritzat aurreratu behar litzake: “ Hori halako hilabetean gertatu zen ”, “ Udazkenean ”, “ aitonen garaiko kontua da hori ”, “ lehen . . . orain . . . ” “ gizonak nola lanegiten duen ” txarteletan (tratoreaz, tratorerik gabe)

- Espazioari buruzko ideiarri dagokionez, lau puntu nagusiak ezagutzeko tenorea da, eta noratzen edo orientatzen ikasteko. “ Haizeak ” gaia izan daiteke okasioa.

- “ Gizonak nola lanegiten duen ” txarteletan, ahal den guztietan bertako herria gainditu eta eskualde-aren ideia haurrari ulertarazten saiatu beharra dago, 1-go eta 2-gn. mailetan erabilia. Txartel horietan bidez erakats dakioko haurrari irudien mamia ulertzen (postal, egutegi-orri —, hau lehenengo abstrazio-maila gisa. Gero fotografiak eta geografi-mapak ulertzeko oso balios izango zaio.

ZAPALTZEN DUGUN LURRA

1-go HIRUHILABETEA

1 - Lurraren irudia (gai honek hilabetez iraun dezake aisa). Lau puntu nagusiak eta norabidea oso kontutan hartu behar dira, 3 gn. Mailan ikutua.

2 - Bertako eskualdea; eta, zabalketaz, Valencia eta Baleareak.

Itsasertzeko Kataluña:

- bazterrak: itsasoa, mendiak, ibaiak, landareak, alimalek
- gizonaren lana: nekazari, abeltzain, industri-gizon
- bizilekua, soinekoak (bizikera bereziak)

Barnealdeko Kataluña

Kataluñako Ahuñemendi

2-gn HIRUHILABETEA

Levante : bazterrak, gizonaren lana, bizilekua, ohiturak
Baleareak: Gauza bera.

3 - España eta Portugal. Ideia nagusiak.
- mendiak, erreliebea, klima, itsasoak, ibaieta, landaredia (Españaiko landareak), alimaleria(Españaiko alimalak).

3.gn HIRUHILABETEA

- nekazaritzaren ondasunak, azienda, industria, miak.
- herria, bizilekua, ohiturak.
- LUR-azalari buruzko gaiak geografia ikasteko txangoak oinarri aipatzea onena.

Lurra bizidunak hazten diren leku gisa

- Lurrean bizi diren alimaleak
- Lur-mota guztiak antzekoak ahal dira ?
- Lantzeko lurren ugaritasuna
- Lurraren gordetzearen garrantzia
- Belarra, zuhaitz eta zuhamuska loreduak

- Lorearen ikerketa: lorezilak eta hazkarria ugal-bide gisa

- Ernaketa xomorroen eta haizearen bitartez
- Zenbait landare eta zuhamuskaren gainean bizi diren alimaleak : marraskiloa.
- Organizazio xinplea duten landareak: alokak, omttoak, goroldioa eta bakteriak.
- Ustela dakarten onttoak eta bakteriak: ekonomiazko garrantzia, eritasunak eta mikro-bizidunak.
- Fisikari buruzko gaiak bertako industria baten ikusaldien ondoren azter litezke, edo burdinola bat ikusi ondoren. :
 - Beroa, urketa, berotasunaren eramale on eta txarrak
 - Beroak. gauzak handitzen
 - Mogimendua sortzeko bideak : indarrak.

Azalpena eta ohar batzuk

Lehenengo aldiz Maila honetan egiazko grafia erabiltzen denez gero (lehenengo hiru mailetan, funtsean gauza bat bilatu da: haurra eta bere inguramendua lotzea) uste dugu oso egokia litzakeala eskualdeko geografiatik hasia; hau da, bizi den lekuaren inguruko gauzetatik. Horregatik erantsi diogu " 2 / " puntu osoa programa ofizialari.

Ahalik eta gehienik erabili behar lirake oharketa xuxena eta txangoak egin inguruetara. Txango horiek oinarri, " lurra " eta " beroa eta indarra " gaiak ere sar litezkeala uste dugu.

Matematikazko txartelak beren aldetik erabil daitezke, ala besteekin nahasian.

SAIAKETA - ZABALERAK - " B " AUKERA

Benetako geografiaren hastapenak, 4-gn. maila honetan egina, iduriketa grafikoaren problema dakar. On litzake urratsak ez ahanzteak:

1 - " Ardatz oker " eko aidetatikako fotoak hartu behar dira hasteko; alegia, kanpandorre edo mendi batetik hartuak direnak; eta etxeetako pisuak kondatzen eta errepideen itxura konprenitzen diren fotoak izan behar.

2 - " Ardatz zut "eko fotoak, lerroez besterik agertzen ez den fotoak, baina hiriaren gorabeherak xeheki agertzen diren

fotoa (mapa askoz ere hotzago eta erregelatuago da: haren abstrazio bat baita)

3 - Piskanaka planoaren erabilketara pasa (ez maparik oraino). Ahal delarik, eskala handikoa: 1/ 50.000 esate baterako. Horrelako plano batetan, parteek badute elkarrekiko araberak eta proportzioa oraindik (aurreko mailetan ikasgelaren eta etxearen planoak egin behar izan dira). Ez behin ere ahaztu geografiko lau puntu nagusiak markatzeaz (aurreko mailen birrikuspena)

4 - Egin bitzate haurrek berek ibilibide batzuk (etxetik eskolara, egindako txango bat) eta asma bitzake araberako sinu bereziak: zuhaitzenak, landentzako, etxeentzako, lantegientzako, kolore desberdinetako markak erabiliz.

5 - Kataluñako pareta-mapa handi batetan (estrazazko paper lodiz egina, eta Kataluñako hegia baizik ez ekarki) postalak eta erabakitako sinuak erantsi, lanean ari asmatuak.

6 - Ahal den eta eskalarik handieneko mapa baten gainean lanegin (Seix y Barral-eneko paretako bat, eman dezagun); ez mapa handiak izenen ugaritasunaren aldetik, itxura onarengatik baizik. Horrela betetzeko aukera ederra emango du.

7 - Mapa bat egin : norik berea, kuadrotako paper batez paretako mapa kopiatuz (Seix y Barral-enekoa, edo dena dela), eta hari erantsiko zaizkio erabili izan diren elementu guztiak, beti sinu berberak erabiliz (mapakoak berak izan daitezke: zelaiantzako berde, mendi apalantzako marroi argi, e . a .)

Tamaña (10 cm. x 10 cm. eman dezagun) paper bejetaletan marka daiteke, esate baterako, eta gero mapatik norberaren paperara aldatuz joan. Erakasleak esango die zer zabaleara behar duen izan, handian hainbat lauki gerta daitezten.

Mapa txikoak izanez gero ere (“ atlas ”), neurri bera erabil daiteke.

8 - Haurrak berak Kataluñako, Valenciako, Balearretako eta Españako mapak eginak dituelarik, mapa mutuak egin daitezke: hauek azkarrago egin daitezke, baina aurreko urratsa emana izan behar da, eta horrela iduribide grafikoez ongi jabetua izan.

- Aurreko mailetan bezala (ez hau ahantz) EGB-ko Lehenengo Maila guztian hauetan barrena aurreratu behar dela:

- Izadiaren oharketa jarraikia eta zientziazkoa
- denboraren eta espazioaren estruktura-eraketaren bitartez

- gizarte-oinarriaz ongi jabetuz

eta horiek funtsatu behar dutela haurraren oiharmena eta azalmena (hizkuntza, matematika, plastika, dinamika)

- Ahaleginak egin beharko dira, programak bereziki eskatzen baitu, denboraren ideia argikuntzan, benetakoa Kondairaren gakoa horretan baitago.

Bizilekuaz eta ohiturez mintzatzen den bakoitzean baliadateke okasioa, eta bertako oroitarriak, istorioak, pasadizuak, eta abar, aipa.

Mendearren ideia lortu behar litzake, joan den mendea aipatuz.

Kurritutako eskualdeen irudiak edo fotoak baliatuz sorta bat baldin badadukagu, oroitarriok antzinatasunaren arbera taxu ditzakegu.

Aurrerapenaren ideia berri eman dezakegu, ahalean gizonaren lanaren bitartez.

Baita aginpidearena: nola bizi diren herriak, nola organizatzen diren.

Kondairaren sarrera on bat ere: eguneko berriak azaltzea.

BOSKARREN MAILARENTZAKO PROGRAMA-GAIA

A) BIZIDUNEN INARKUN EDO FUNTZIOA

1 - Elkartzeko inarkuna (programan ez dator)

- - Hezurak, giharrek, zainak, gizonarengan.
- Higierak alimaleengan: era batzuen alderaketa: zaldia, txoria, apoa, sugea, sardina.

2 - Elikatura-inarkuna

a) -Egos-tutua : gizonaren egospideak

- oinarritzko janariak : haragia, arraina, arrautzak, esnea eta esnekiak, koipeak, irinak eta azukreak, zelulosa eta bitaminak.
- egospideak alimaleengan: batzuen alderaketa: behia, zerria, untxia, oiloa, arra

b) - odol-sistema : - odol-kurriera gizonarengan

- odol beroa eta odol hotza duten alimaleak.

d) - arnas-pidea : - arnasa gizonarengan / arnasa alimalengan
(arnas-mota desberdinen alderaketa:
hegazti, otarrain, arrain, igel, kattagorri.

e) - egotz-sistema : - hondakinen egozte

Landareen elikatura :(hazkurria prestatzen duten izakiak)
Alimale eta landare bizkarroiak

3 - Ugalketa-inarkuna

a) - Ugalketaren aparatoa : gizonarengan / alimaleen munduan (mota desberdinen alderaketa: ugaztunak, hegaztiak, anfibioak, narrastariak, arraina)

- landareen ugalketa berriz ikus (4 gn. mailan ikusiak)

Lantegi bat ikusi ondoren (hala gertaturik, edo ESPAÑA-ri buruzko gaian) 5 gn. Mailako FISIKA-gaiak azter litezke :

- Lana erraztutzeko bideak, Makinak.
- Makinak ikatzez, petrolioz, olio, eletrikaz eragin daitezke.
- Gotorkiak, urkiak eta gazak higitzen hasten dira.
- Argia. Argiaren iturriak.
- Soinua. Nola sortzen, nola iristen

B) ESPAÑA

1 - Herriaren, probintziaren eta erresumaren mailako gobernaketak.

2 - Españako hiru herrialde nagusien ikerketa :

a) Lehordiko España

“Meseta” - Klima, dorreak, mendiak, ibaialdeak, eskualdeen aurpegia, nekazaritza, azienda, zingirak, presaburuak eta ubideak.

Eletrikaren prestaera, Industria.

Baserriko eta herriko jendetzak. Madrille. Bideen eta treinen sarea.

- Gaztelako idazleen izkribuak : “ Kijotea ”, Machadoren olerki bat, Azorin-en azalpenak, Cela.

- Gaztelako bazterren eta gizonen pintatzaileak:
El Greco, Solana.

- Ebro-ko isuraldea, eta Guadalkibir-koa.
Mendi-kateak. Ebro ibaia. Klima. Nekazaritza. Ebroko hiriburua.
Guadalkibir. Mendiak. Nekazaritza. Sebilla eta ibaiko kaia.
- Garcia Lorca-ren eta Valeraren izkribuak.
- Andaluziako margolariak (Murillo, Zurbaran)

b) Atlantiko aldeko isasertza.

- España lehorra eta España hezea. Iparraldeko klima. Bizilekuak. Ibaiak. Bilboko kaia. Mendiak, landak etaazienda. Esnekiak. Nekazaritza. Itsas-aldiak. Galiziako " riak ". Arrantza. Kontserbategiak, ikatzezko miak, burdinaren eta mekanikaren industria.
Españako Iparraldeko hizkuntzak.
- Iparraldeko idazleen izkribuak : Pereda, Rosalia de Castro.
- Iparraldeko margolariak : Zuloaga.

d) Mediterraneoko herrialdeak

- Klima. Udatea. Landareak. Mendiak, ibaiak, kaiak. Ekialdeko hizkuntzak.
- Idazleen izkribuak : Maragall, Joan Santamarina, Gabriel Miró, Pau Vila, Blasco Ibáñez
- Margolariak : Sorolla, Nonell, Rusiñol.

D) " HARRIAK MINTZO " (Legezko programan " Españako oroitarriak ")

Kondaira-gaiak proposatzen ditugu, dauden lekuen arabera egokituz (Barcelonako haurraz pentsatu dugu; baina hiri bakoitzak bere programa berezia prestatu behar luke)

- Gizon arkaikoa (Monjuich-eko Arkeologia-Erakustokia, Kondaira-aurreko aretoak)
- Laietanoak : Barcelonako dorreak; " El Pais dels lacets-en irakurrera.
- Erromatar Bartzelona : Arkeologi-Erakustokiko Erromatar etxea, akueduktoa, Elizanagusiko enparantzaren murrua.
- Mahomatar zibilizazioa: Cordobako mezkitaren diapositibak, Granadako Alhambra-renak. Barcelonako Alman-sur-en setioa.

- Gaztelu eta Monasterio. Romanikoa Kataluñan: gaztelu edo monasterio bikain batetarako txangoa egitea balio du, Pere de Roda-rena eman dezagun - eta bestela Pau del Camp-erako txango bat.
- Hiriak eta Katedralak. Gotiko katalana (hauzo gotikoa)
- Errege Katolikoak eta Colón (El Tinell : Colon-en Bartzelonarako iristea)
- Carlos III eta Bartzelonako kaia.
- Bruc-eko danborra. Napoleon-en aurkako gudua.
- Bafore-makina. Industriaren haroa, RENFE-ren trein-erakusketa.
- Cerdá-Plana. 1.888-ko Erakusketa (Ciudadela-ren Parkea, Triumph Arkua)
- Narcis Monturiol eta Juan de la Cierva : Monturiolen oroitarria, Itsas-Erakustokiaren ikusaldia.

Ohar batzuk

- Marratutako gaiak Udarako Eskolan aztertu dira.
- Guk " Programan ez datoz " oharraz erantsi ditugun gaiak, oso inportante iruditzen zaizkigu A, B edo D alderditik 10 urteetan aztertzeko. Beste alde batetik, ugalketaren gaiak oso bide egokia eman dezake setsu-arazoaz sarrera on bat egiteko, adin horretan beharrezkoa.

SAIAKETA ZABALERAK – " B " AUKERA

Sistemakuntza apur bat egin nahiz, 2-gn. urratsean egokia, saiaketaren zabalerak hiru gai nagusitan zatitu ditugu :

- a) BIZIDUNEN INARKUNAK
- b) ESPAÑA
- d) " HARRIAK MINTZO "

A) Maila honetan lehendabiziko banaketa batetara heldu behar litzake, eta oharketa xeheren bidez osatu; esate baterako :

a) beteko diren galdegai eta eskemaren bidez, hezurduen ezagugarri nagusiak bildu :

_____ arnasa, larrua, higiera, ugalketa, adibide.

III ugaztunak, hegaztiak, narrastariak, anfibioak, arrainak

xx birrikak, lumak, arrastatzen dira, metamorfosi, sardina

b) igelaren aldakuntza edo metamorfosiaren oharketa :

eguna	oharketak	marrazkiak
Martxoaren . . .	arrautzak elkarri lotuta uraren hondoan	
Martxoaren . . .	arrautza bakoitzean ageri . . .	

B) 4-gn. mailaren osaketa da Españaren ikaspena. Oinarritzko ideiak Españako herrialde nagusien arabera birrikusten dira. Garrantzi handia eman behar litzaeike herri-aldaerei, komunikabideei eta merkataritzari.

Estadistikaren hastapena ematea on litzake, eta honen irudikerarena; datoak ulertzen erakastea (ikus “ Levante ” txartela)

D) KONDAIRA - SARRERA :

4-gn. mailan Geografi-hastapenez mintzatu gara, oraingo boskarren honetan osatuz; eta, era berean, orain da egiazko Kondairan barrena abiatzeko tenorea.

Izadiaren oharbidea ematen duenak berak —haurraren ondoko giroak, alegia— eman ditzake ere kondairazko oharretaren oinarriak : eboluzio, bilakaera, aurrerapen eta aldakuntza batez mintzo zaizkigun seinaleak daude (bilakabide baten aztar-nak, nahi bada). Eta beste anitz xehetasunek ere zerbait adierazten digute: jazkerak, lanabesek, erabilitako materiek. Eta haurrek hau jakin behar dute : badaudela “ jakintsuak ”, kondairagileak, hori guztia “ irakurtzen ” dakitenak, eta guri azaltzen.

Aldakuntza eta bilakabide hori aztertzen ikasi behar dugu; eta aldakuntza horren “ Gakoa ” hartzen ikasi behar da. Horretarako fetxa batzuk behar dira, mugarri batzuk. Programak proposatzen dituenak berak izan daitezke.

Konkretotik, xehetik, abiatu behar da, bero jeneralera, zabalera heltzeko.

“ Konkreto “ hori ez da beti izango gizauren apartak, gizon puntuzkoak; baina, batez ere, eta hemen Kondairaz genuen ideia aldatu behar da eguneroko bizia. Askotan fetxa bat gertakari izangabe bat izan daiteke, asmakari apal bat (gurpil hotz-tua Erdi-Haroan)

Barnatu egin behar dira fetxa horiek haurraren, horretarako garaikide-koordinadak emanez: haurrak, horretara, “ hau hori baino lehenago ” gertatu zen esan ahalko dugu; edo-ta “ beranduago ”, edo “ garai berean ”.

Baina sena hau: arkitekturaren edo musikaren aldiak eta pleguak ikasteko bezala —landu egin behar da, oso poliki lortzen da, eta ez da azken sintesia baizik. Orain zimenduak jarri behar.

Haurraren lanak dokumento grafiko mordo bat bil dezake, eta horiek gero banatu egin daitezke: hemen dugu, beraz, taxutzeko beste modu bat, antzinatasunaren arabera.

Noski: Maila honetarako markatua den aginpidearen ideien aldakuntza, gai nagusia da.

E S K O L A K O I N S T I T U Z I O A K

(Aida Vasquez eta Fernand Oury-ren “ Hacia una Pedagogía del Siglo XX ” liburutik hartua, Siglo XXI , Edit.)

1 - ESKOLARTEKO GUTUNERIA

Idazteko kontua da, sinbolo batzuen bidez barneko pentsamendua ongi azaltzeko, egokiro eta zehazki, eta horrela irakurleak ideia edo azaldua ongi konprenitzeko modua izan dezan. Definizioz, beraz, jabetu behar duen gizarte-harreman bide hau ez du haurrak (idazkuntza, idazkera, hiztegia, sintasia, eta abar). Bere burua keinuen bidez azaltzen saiatzen da haurra, baina hitzegiten ere badaki, eta hizkuntza mintzatuaren ezaguera horrek balio dizaioke hizkuntza idatziaren abiaburutzat.

Oldezko testo edo izkribuaren ikaspidean, erakaspena haurraren beraren saio moldakaitzetatik abiatzen da, hofrek bere pentsamendua izkribuz eta famelia eta eskolako giroak emandakoa baliatuz egiten duenean. Saio horiek arrakasta gisa hartzen dituenan, behin eta berriz ematen ditu. Erakasleak arrakasta horiek bultzatzen ditu, lehendabizikorik kultura-giro bat haurraren inguruan sortuz eta erabilgarri diren elementuak ugalduz (izkribu, hitz), eta beste batzuk erasten. (Erakasleak eta eskolakideek hiztegia eta beharrezko formak ematen dituzte)

Noiz idazten du eskuarki ? Entzun ezin dezakean bati

zerbait esan behar dionean; bai urrun dagoelako (gutuneria), edo irakurleak ugariegi direlako (Inprimakinak orduan).

Beti idatzi ohi dugu pertsona batek edo gehiagok irakurriko diguten esperantzan.

Ohar ezagun hauek honetarako ere balio dute.

Haurrak idatzi nahi duelarik : a) hunkitu edo interesatu duen gauza bat azaltzeko gogoak eraginda; b) besteren batek irakurriko duen usteak erakarrita.

Ezin dezake beste honek entzun, baina gutun hori espero eta desiratzen du, edo inprimakina berdin.

Lehenengo mailako eskolan elkarketa horiek eguneroko bizi bihurtzea bilatu behar da : gutuneria edo kaset, Freinetek proposatutako teknikak, gaur osoturik, edo arazoa askatzeko lain direla dirudi. Bere pentsamendua beste bati edo beste batzuri azaltzeko moduan aurkitzen da, besterentzako lanegiten du (bere gutun-kideentzako), eta maiz beste batzuekin (bere lan-kideekin)

Bere gogoak berak bultzatzen du azaltzera; eta eskolako erakaspen bihurtuta aurkitzen du, baita gizartetuta ere; gutun-kideekin eta laguntzaileekin ez-ezik, taldean errespetatzen delako (alegia, ikastaldea talde elkartu bihurtzen baita); eta, uste dugunez, xedeen, interesen eta ekintzen batasunak ere bere gogo hura azkartzen du.

ESKOLARTEKO GUTUNERIA

Elkar-trukabide hauen bide garrantzitsu bat aztertuko dugu aurrerago: eskola-kaseten trukea, inprimatuak ala multikopiatuak (zortzi, edo gehiago, klasetako lagunen artean egina) eta oraingoan gutuneria " normal "aren gorabeherak aipatuko ditugu. Talde bakoitzak bikote egiten du beste batekin, ahal delarik maila eta jende-kopuru berekoa, eta aldioro eta sistema-kiro gutunak, izkribuak eta dokumentoak trukutzen dituzte elkarrekin.

Egoki da bi taldeak, geografiari dagokionez, bi eskualde liferentetakoak izatea, horrela interesa piztutzeko. Ohi denez, urtero aldatzen dira kide normalak. Osaketako talde honek hauekin izan du gutunezko kidetasuna: Loir et Cher-ekin lehenik (baserri), gero Ardèche-kin (mendi), Gragnignan (Mediterraneoko klima), Lausana (Suiza), Château d' Olonne

(itsaso), eta Saint Fons (Lyon-go inguru).

Jakina, klase-bikote bakoitzak bere buruz erabakitzen du kidetasunaren eta gutunen itxura eta maiztasuna. Etsenplu bat baizik ez dugu emango.

A-Esku-gutunen trukea

Hamabostero, haur bakoitzak bere kideari idazten dio, eta haren lagun bihurtzen saiatzen da. Erakasleek adinaren arabera “ bikoteak ” egiten dituzte, baita jakintza-mailaz eta interesaz antzekoak; argi eta garbi elkarketak frutu eman dezan. Gutuneria-mota honetan sendimendua da nagusi, itxura denez. Kide horrek —batera urrungoa eta alegiazkoa, eta egiazkoa— psikologi-lan inportantea bete dezake. Haur bakoitzak nahi duenean eta nahi duenez idazten du. Borradorez egindako gutuna, erakasleak zuzendu eta borobildu egiten du. Orduan haurrak berriz arreta guztiaz kopiatzen du (ezen gutuna irakur ezina bada, ez baitute irakurriko, eta hau eragile aparta da) eta apaindu ere egiten du. Zenbait kasutan irudi edo postal batzuk erasten dizkio.

B) TALDE - GUTUNEN TRUKEA

Gehienetan galdera eta arrapostu mordo bat izaten da mamia, eta hauek ikastalde guztia interesatzen dute. Hartu bezain laister, eskolan irakurtzen dira galderak, eta haurrei eskatzen zaie erantzunak bilatzeko; honek bilaketa pertsonal sorta bat sortuz, edo talde txikitan, harik eta inkestari erantzun oso bat aurki zaion arte.

D) Inprimatutako izkribuen trukea astero

Loturarik gabe idatziak, kasetaren-tzako hautatuak eta inprimatuak, zenbait izkribu astean egiten dira, eta irakurketarentzat eta idatzitako hizkuntzaren ikaspenarentzat baliatzen (gramatika, ortografia). Tiraldi bakoitzak kasetarentzako orri batzuk ditu, beste batzuk ikastalde kidearentzako eta beste batzuk azkenik inprimatzen duen taldearentzako berarentzako.

E) Talde-dokumentuen trukaera

Albunei, banakoei, fotoei eta gainerako lanei (rafian, ihian, eltzegintza, margoketa, e . a .) banda magnetikoak erants

dakizkieke , aukera-zabalera handi baten eskaintzaile.

F) Talde opariak, eta pertsonalak

Erakasleek aldez aurretik egiten duten elkarraditzeak garrantzi handia du, elkarrekiko oparien alditasuna, berdintzasuna eta trukea segurtatzen baititu. Trukeen maila honetan, haurren barne-orekarentzako kaltegarri gerta daitezkean “ustekabeak” izan daitezke. Ikusi denez (ikus S. Béri, Lilitegia) haurrak ez dira kidearen bidez bakarrik hazten, baina baita gutuneriak berak ere. . . baita idazkuntzaren eta irakurreraren eraspenaren bitartez ere, erregalien trukeak ekarri ohi duen etsipen apurraren ondoren.

Truke hori, beraz, behar bezalakoa izatea oso inportantea da; eta gauza bera haurrak, oldez ala moldez, eta erregelak errespetatuz, gogoz saiatzea. Hona hemen erregela horiek:

1 - Berdintasuna - Haur bakoitzak bidali duen erregalien balioko beste bat jaso behar du.

2 - Elkar-trukea : “ ahaztutzeak ”, bakarrik izanda ere, drama txiki bat ekar dezake. Gutunik hartzen ez duen haurrak etsi egin dezake, eta berearen truke beste opari bat hartzen ez duena nardatu egin daiteke osoki (plegu horretako ahazpenak arriskutan jartzen dute pedagogi-bide honen balioa)

3 - Adierazkia - Ez dira gauzak trukutzen, elkartasunean baliatzen baizik. Trukatzen diren opariak ez dute balio objetiborik, baina balio bihozkorra batez ere. Batzutan hautaketan lagundu behar zaie hurrei.

G) KIDETASUNEZKO BIDAIAK

Aurreko trukaera eta kidetasunan koroa izan daitezke.

Bigarren hiru-hilabeteren azkenaldean proposatzen den **bidaiak, gutuneria azkartzen du eta elkar-lanak sorrarazten.**

Sendimenduen, gizartearen eta kulturaren mailetan dudarik gabeko balioa baldin badute ere trukaera horiek guztiek, berariaz mugatu dugun azterketa honetan ez dira sartzen gutunen bidez hizkuntza idatziaren ikaspenean izan dezaketen garrantzia agerrera zetea. Gaurko legediak, bestalde, ez ditu alderdi hauek oso bultzatzen.

I - ESKOLAKO KASETA

A) Definizioa

Haurren izkribu-multzo bat da kasete, 13, 5 x 21-ko orrialdetan inprimatua eta agrafatua; aldiorokoa da, aldizkaria: hilabetekari, bi hilabetetan behingoz, edo hirutan behingoa. Ikastaldearen irudia da, sinboloa, eta zenbait aldiz izenpuruak berak markatzen du haren izakera.

B) Gertabidea

a- Libertate osoa baliatuz, azalmena bultzatzea: idazkuntza. Haurrak nahi duena eta ahal duen moduan idazten du. Bai idazten ez dakien haur ttipiak, bai beldurtiak (nahiz idazten ez ausartu), badakite hitzegiten edo marraztutzen, eta izkribuen aurkezpenekoan edo bestetan egin egiten dute. (Marrazki bat azaltzen dute, edo izkribu bat esanera ematen, n behar delarik maisuak berak irakurria).

b- Azalpide hori gizartetzeko, agirian irakurriko dute beren lana. Nork bere saioa presentatzen die besteei. Garrantzia du presentazio hori aldioro egitea —azaltzen ari garen geure ikastaldean astelehenetan edo ostiraletan— eta handi-giro apur bat elaten zaio. Biltzar-buru batek ematen dio hitza idazle honi eta hari. Sekretario batek arbelean idazten ditu lanen izenpuruak. Nahi-ta-ezkoa isila.

d - . . . eta besteen irizpidea ontzat hartuz, hautaketa, aukera. (handien taldeetan). Norberak bi kezka izan behar ditu bizi-bizi : bata izkribuak atsegin izan behar neri, eta bestea atsegin izan behar besteei ere zabaltzekoa denez.

Hemen aukera eskua altxatuz egiten da. Maisuak azkenuk ematen du bere boza, eta bere aukeraren arrazoinak azaltzen. Zenbait eskolatan beste boz bat emateko eskubidea du; kasu honetan kideen ordezkaria da, eta bere boza azaltzen du.

Horrela jokatzuz, haurren parte hartzea laguntzen da, eta handi-giroa sortzen.

Juzkatzen duen talde baten aurreko presentazio hori froga bat da, eta erne ibili behar du erakasleak: eskuarki, 5 edo 10 izkributatik bakar bat hautatzen da.

Batzutan beharbada lurjotzeen kakoa azaldu beharko da; baina erraza da ere ttipitzen, eta interes apur bat duten izkribuak

gerorako utziaz. Nork bere izkribuak zuzendu ondoren, izkribuok bildu eta kideren bati bidal dakizkiote edo alun batetan jar, edo bir-kopiatzek eta talde-interesen arabera taldekatuak. Esate baterako: gure jokoak, ametsak, abereak, e . a .

e) Hautatu den izkribua denan artean osatzen eta zuzentzen da.

Aukera egiterakoan, haurrak jutzen aurrean zegoen. Orain, aldiz, haren lagunek lankide jokatzeko dute, eta pentsamendua moldatzen laguntzen. Denek elkarrekin, erakasleak eta ikasleak, galdera batzuen bitartez zehaztuko dituzte puntu batzuk, beharrezko joskerak eta hitzak eskainiz. Beste aldetik, ahalik eta gehienik laburtu behar da izkribua, funtsera bilduz, eta azaldu behar ematen du muga. Arrisku bat dago: haserako haurraren pentsamendua horrela lardazkatzea, taldeak edo erakasleak laguntza aberatsegiarengatik. Behar-beharrezkoa da egileak bere izkribuaren askatasunari eustea; maisuak, kasetaren zuzendaria denez, artikulu baten sarrera erabakitzeke askatasuna duen bezalaxe.

Istilua gerta liteke : hautatutako izkribu bat, eman dezagun, ezin-argitaratuzkoa izatea (mami zauritzaile, gizalegerik gabea edo antisoziala) eta zabalketa txikiagoa alun batez aberastu beharra gertatzea.

f) Osatutako izkribua elkarte-giroan argitaratzen da.

1 - Moldizketa : letra-moldeak moldiztegiko kajatan daude pilatuta. Freinet-en kajak, metro bat luze, lau ikaslerentzako ematen du aukera batera. Ikasle bakoitzak latoinezko moldiz-leku bat du, eta honetan lerrokadan ezar eta finka daitezke letra-moldeak.

2 - Tirajea : Esku-lakoak, Freinet-ek asmatua, hiru ikasle batera elkar lagunduz lanegitea behar du :

a) martimuiloa darabilen tinta-emalea;

b) lakoa (edo prentsa) darabilen inprimatzailea;

d) ateratako orriak liburu batetan pilatzen dituen hirugarren bat, honek orrion kopurua jarraituz.

Teknikaren alderditik, lana ez da oso frutukorra: orduan 100 orritatik 200-tara. Heziketari dagokionez, beti bat izanik, lan-mota honek arreta eta haurren elkar-laguntza behar ditu, eta gaitasun desberdinak erabiltzea eskaintzen du. Zailena kontrolleko lana da (tintaren keta neurtu behar da etengabe, presinoa neurtu ere). Beste alde batetik, bospasei urte duen haur baten esku-

arrear dago.

3 - Edertza-teknikak : kasetaren edertzak, haurren marrazkiak baliatuz, ez du arazo gehiago sortzen erabiltzen den teknikak berak baino.

a) Limografoaren bidez marren, puntu-segiden eta abarren ugalketa.

b) Alkolezko bikoitzaileak kolore batzuk erabiltzea uzten du. Hauek apaltzeko joera dute.

d) Linolioak zuri-beltz onak eta berezituak ematen ditu. Kolore batzutako linolioa posible da, baina arazo zailak dakazki.

e) Monotipoak (alegia, ohol tintatu baten kontra presatzen da orria) arte-ondorio ederrak eskaintzen ditu, baina ez ilaratan lanegitea.

Mimeografoa, patata-ren grabaketa eta barba-papera ere erabil daitezke.

D) Ohiko eragozpenak

Idazten ez dakiten edo ezin duten haurren izkribuak nola hauta eta eginaraz daitezten ikusi dugu. Oso ona da heziketaren aldetik beren izkribuok idaztaraztea. Idazteko gauza direlarik (erakaslearen ustez) honek bere laguntza urritzen du, eta azkenean zeharo kentzen; orduan haurra zailtasunen aurrean dago, eta hau handiegia iruditzen zaiolarik, idazteari uzteko arrizkua har daiteke.

3 - INKESTA BILA EGITEN DIREN TXANGOAK

Eskolan gelditu beharrean haurrak eta erakaslea “ pasean ” ateratzeko asmoak, errezelo sakonak sortzen ditu zenbait langile-girotan; hainbestearino non “ inkesta-irteera ” esaten zaiola lehen “ eskola ibiltaria ” esaten zitzaionari, nahiz hau 1.923-ko arauetan legezko instituzio gisa jarria izateko zorian egon bazen ere.

Maiz gutuneriak eta eskolako kasetak eragiten duen inkesta-irteera edo inkesta-txango delakoa, gure ustez nahi-ta-etzko osagarria da oldezko izkribuaren ondoren, batez ere inguramenduaren laguntza urria denean edo zalantzakoa (kaletar haurrak, edo osasunik gabeko eskualdeetan). Ikasleak ikastolatik ateratzeko era bat eskaintzen du, baita beren arazo pertsonalen eta giro hertsitik, ezen gidaritzarik gabeko oldezko azalpenak haur-

-mundu txiki batetara eraman bailezake behin eta berriz.

Nagusien mundua ez da haurrenganaino heltzen ubide hertsitatik baizik, eta horiek berak ongi kontrolatuak Administrazioaren aldetik. Zer egin du zilegi esku-liburuak? Zergatik aipatzen da beretan behin eta berriz antzinako baserri-mundua, nahiz hau haur itzaltzeko abiadan egon? Esku-liburuetan agertzen den etxeakoandreak, batzutan etxetik kanpo lanegiten du. Zergatik? Arazoaren sustraia aldatuko ote dute telebistak eta begi-belarrizko erakaspideak? Eskola beti da gizartearen egina, eta zer mami duen gizarte horretxek erabakitzen du. Desiragarria da, edo desiratzen ahal da, haurrek egia zuzenki hartzea?

Baliteke arazoaren alderdi hau lege-egileari itzuria izatea; "eskolaldi pasean" hitzei berehala dagokio iduri ameslari bukolikoa, eta maisu naturalista batek haurtxoak irribarrez gida tze ari, kakalardo bila irtenak. Gauza ezaguna da hau: kale barruan galtzarako arriskuen kontra babestu behar da haurra.

Erakustokien bisitak arrisku asko du, baina 15 ikaslerentzako laguntzaile bat bidaltzeko erregela ezagunak ez ditu herriko eskolak laguntzen.

Segurantzi-legediak lantegien eta eraiki-oruak bisitatzea debekatzen du (Fraintziako eskolako legedian), eta erabaki hori txalogarria da. Beste alde batetik, benetan da desiragarria haurrek beren gurasoak lanean ari ikustea? Ez da aski etxeako oskitan eta telebistaren aurrean hartu dutena?

Horrela, beraz, kalean, eta ongi organizatutako eskola batetan, inkesta-txangoa noizik eta behin baizik ez da gertatzen.

Baina gure erakasleen zorroztasuna eta jaiera gauza ezaguna dira . . .

4 - ESKOLA BARNEKO TALDETXOAK

Ikastalde baten organizazioa ez da eskema huts baten maitzea, edozein antolakerarena; baizik-eta eskolan agertzen diren beharrei maisuak ematen dien erantzuna. Berritzen eta aldatzen diren arazoei erantzun bakar eta iraunkor bat emateko asmoak beti jotzen du errekarra. Geure ikastaldetan, ordea, uste dugunez, erantzun-mota horixe ematen zaie arazoei.

Geure buruz erantzun aurretik, saia gaitezen antolatzen eta bir-antolatzen. (Haurren parte-hartzea bada balio duen erantzun bat)

Halere ulergarri da klase horiek zergatik presentatzen diren zail gisa. Itxurako desordenuaren atzean begi ernea behar da funtsezko antolamendu xehea somatzeko; hots, hauxe da talde langile batek behar duen lehenengo gauza. Eskola-lantegia aipatu izan da, “ lana ” eta baita batzutan eskola-lantegia; horrelako lan-tresnen antolamendu zailak lan-lizifrina bat beharko luke, “ ontziko lizifrina ” Freinet-en hitzez esateko; eta honek ez du ezer ikustekorik kasernan agertu ohi den lizifrina koloregabe eta funsgabearekin.

Kaso guziretarako antolakera-eredu bat azaldu nahi izateak funsgabekeria dirudi; erantzun-ereduaren ideiak hitz erantzunaren mamia bera kenduko luke.

Irakurleari, halere, beharrezko zaio azalpen bat: areago izanik hori hiztegia-kontua, heziketa-aldietan proposatu ohi diren azalpen osoak baino. Horretatik heldu da arazo honen presentazio errazegia. Hitz batzuk mugatu eta funtsatu nahi dira: maila-ikastaldea, lantegiko taldea, talde administratiboa eta halabeharrezko taldea.

A - Maila desberdinerako ikastaldeak

Edozein erakaspideatan, erakaspide hori ona izango bada, eskola-maila eta adimenezko ahalmenak berdintsuak izan behar dute, denentzako egokiak diren ekintzak proposatuz.

Garaiko pedagogi-teorien arabera, guztiz bidezkoa da erakasle bakoitzari entzule-mordo berdina bana eskaintzea, egin-kizun bakarrak egiteko gai. Erakasleak haurren erdia du begien aurrean, alegia, normal esan ohi diren haurrak. Desberdina den haurra “ anormak ” deitu ohi da, eta bilakatzeko arriskua badago.

Āaina, erdi hori gidari eta neurritzat duen antolakera hori, zergatik ez da benetan eta zinez eztabaidatua izan ?

Baliteke, teoriaren mailan soluziorik onena den lan pertsonalak bilatzaileen arreta bildurik izatea. Ez dira ikusi ohi haren muga pratikoak; esate baterako, tresneriaren garrantzia eta gertaeraren denbora.

Banantzeak ere hau du oinarri: haurrak aurreratzeko borondatea izatea. Hots, ez ote da hori, hain zuzen, arazoa konpondutzat ematea ?

“ Lana banadu eta pertsonal egin nahiz ikastaldea haus-ten eta desegiten badugu, hain zuzen ere “ baztertuak ” bidera ekartzeko bidea bera hondatzen dugu. Zer erabakiko dugu,

beraz ? Talde-lanetara jotzea ? ”

Teoriazko behaztopa ezguna da : txarteltegi batzuek eginbeharra mekanizatzerantz bultzatzen dute, arrazoinbidea eta gogoeta kamustera. Hortaz, txartelen bidez sor dezagun mekanismo-mordo hori (operazioen auto-zuzentzaile diren inguraztiak)

Onar dezagun bere horretan haurren desberdintasuna. Joan den mendean nagusi egon dena ideiarri (denentzako berdina eskola), ordain dizaiogun besta hau: guztien neurrirako eskola.

Erabaki ditzagun sei maila lau ikas-sailetan: irakurreran, idazkuntzan, ortografian, eta problemetan. Eman dezaiogun kolore bana (sistema honek judoa du eredutzat)

Era honetara antolatutako eskolak, bere mogierarengatik eta bere zailtasunarengatik, izutu egiten du harako etorlea; baina haurrak, horretara ohituak, nahiz zuzenean ikutuak izan, lasai daude, nun diren badakite, eta honek du munta.

B - LANTEGI - TALDEAK

Helburu jeneral bakar batek biltzen du talde guztia egingizun baten inguruan. Aldakuntza honen kakoa hau da: hasitako lanaren akabera lortzea: ikastaldeak haurrak sortu behar ditu oso bereziki, eta hurrek eta erakasleak ikusi behar dute bere ahaleginen frutua. Baina, dena dela, arrakasta hau bete behar hertsiki eta teknikoan menpean dago, nahiz horiek izan haurren banaketaren kakoa.

Haur handi eta trebeekin, ordea, laister nabarmentzen dira ekintza-askatasun horren eragozpen praktikoa: lantegiak beterik, edo alderantziz, hutsik; lan aspergarrietan laguntza emateari uko; berezketari gero eta sakonagoa, eta egunero heziketa-baliorik ez duten istiluak egunero.

Organizazio hestu bat, lantegi batekoaren antzekoa, ez zaigu lankideak hautatzeko eskubiderik ematen, beharrezko ez-erik pedagogiaren aldetik desiragarri ere; ezen egiazko bizi oinarritzeko egingizuna du eskolak, bizian askotan ez baita posible izaten hautatzeko aukera beti izatea.

Egunero finkatzen da talde-lana buruzagi-biltzar azkar batetan.

D - LAN - TALDE ALDAKORRAK

Consinet-ek gomentatzen zuen lan libro loturagabea, eta taldetan egina. Lan zehatz bati buruz eratzten dira lanak; eta hauek, konkretoki izanik, ondorio konkretoki eta egiazko batetara eramaten gaitu. Horrek hau adierazten du: taldeak badituela mugak denborari dagokionez, eta interes agiriak badaudela; eta, zirikatzen bagaituzu, legezko izaterik.

Taldetan lanegin honek frutu handiago bilduko luke eskola-harreman merkatarietan ere; esate baterako, antzerkietan, eta inkesta eta marrazki batzutan ere. Iruditzen zaigunez, eskola helburuei buruz erabiltzea oso zaila iruditzen zaigu, haurrek aski elkar-biderik ikusten ez badute; egia esan, erakaslearen laguntza —beharrezko paperak lortzeko bederen— ezin baztertuzkoa da.

Helen guztiz beharrezkoa da maila honetakoa, eta inork bere gisa bere desiren arabera bortxatu gabe. Erakasle baten eragina, gure ustez beti, indar nagusia du, eta hemen bai hitzegin daitekeala talde-lanaz.

E - TALDE ADMINISTRATIBOAK

Oso ugaria ez den ikastalde batetan, talde-biziera egin daiteke, eta ozta sortzen da bestelako talde edo taldetxorik sortzeko beharra; baina; kaso jeneralean, harrigarri da hautxoa, honengatik edo hargatik, eta nahiz bihozkorra ez izan, berrogei eskolakideren taldera aisa biltzea. Horregatik, gizarte-biziera eraman dezaten, taldeak sortu behar dira, haurrek horrela parte-egilea ere beren gain har dezaten.

Administrazio talde hauek, ikastaroaren haseran bertan sortuak, aldagaitzak, iraunkorrak, talde handiaren erabilketa dakarte; horretarako taldetxotan zatituz (bi lagunetatik seitara), hauek biziera autonomoa eginez, eginkizunak taldeen arabera banatzen direlarik, eta horrela talde horiek egiazko harremanak sor ditzakete.

5 - INSTITUZIO BAT : ELKARTE - ZUZENDARITZA

Teknikak azaltzea lan erraz xamarra da: xehetasun batzuk kenduta, ia-ia ez da batere aldatzen eskolaren bilakabidea. Beharren arabera talde bakoitzak prestatzen dituen antolakera

azaltzea egin ahal daiteke? Ikastalde batetik bestera ez-ezik, aldatu eta bilakatu ere egiten dira soluzioak, eta hauxe da inportanteena, aldioro aztertzen baitira zorrozki.

Zeri deritzagu guk "instituzio"? Etsaitu gabe xalboinaz baliatzen jakitea bera bada instituzio bat. Eta leku edo tenore honetan eta hartan egin behar dena, eta egin behar ez dena, markatzen duen erregela-mordoa, alegia, eskolako legeak, instituzio bat da era berean.

Baina guk sortzen dugun instituzioan, badago besterik: lekuen azalpena, mementoen eta norberaren aukeren azalpena, eginkizunak (zerbitzuak, karguak, erantzukizunak), postuak (lehendakaritza, sekretaritza), biltzarrak (taldeenak, maila guztietakoak), horien ekarria segurtatzen duten bideak, eta abar.

Dena azaldu nahi bagenu, irudi zehatz bat emango genuke, baina faltsua, irudi gelditua eta hitsa, eta irakurleak baluke orduan irudi hori zabaltzeko eta hedatzeko eskubidea.

Adibide bakar bat emango dugu: elkarte-buruzagitzarena, pitin bat sistemaren giltzarritzat baitugu; zeren-eta biltzar horrek eskolako instituzio berriak sortzeko ahalmena baitu.

Gutuneriak, kasetak eta inkestek bizia eman diote ikastaldeari. Gertakariak denek ezagutu eta bizitu dituzte, baina ez beti denek bide berberetik. Espazioaren eta denboraren moldaketak, lanaren antolaketak eta neurbideak oraingoz tinkadurak eta lehertzapenak baztertu dituzte. Halaz ere, agertu ez dena ere isilean ari da. Izkutua izanik ere, desordenua hor dago, eta baliteke taldearen lehertzapena eta desegitea hor egotea ere. Dena aztertu behar da berriro sinboloen mailan, eta agian bir-konpondu; horra hor elkarte-buruzagitzari dagokion eginkizuna.

Gertatzen dena ulertzeko ikastaldearen arazoak ezagutu behar dira, gaurko haren arazoak. Soegileak, aztertzaileak, ezaguna, onartua eta taldeari bildua izan behar du. Bakoitzaren eginkizunak eta erantzunbeharrak, eta instituzioak, ongi ezagutzea beharrezkoa da, eta taldearen hizkera ulertzen jakin; zeren-eta hizkuntzarentzako memento inportantea baita. Hain zuzen ere, kideek beren postuaren jokoa uzten dute alde batera, beren ohiko jokabidea, eta hortaz defentsabide batzuk ere bai, elkarrekin gaurko arazo batez hitzegiteko, bizia den arazo batez, baita gogorra eta traumatikoa batzutan.

Elkarte-harremanen mailan finkatzen dira harreman horiek, denen errespetua segurtatuz, gauzen, eginkizunen, pertsonen eta gertakarien funtsa argituz.

Elkarte-sendimenduen babesean, maila sakonago batetan finkatzen da elkarrizketa, eta ondorio oparo izan ditzaketen mementoak agertzen.

Zer da gakoa ?

Halako batez, aldez aurretik erabakitako tenorean, lanari uzten zaio. Eskuarki burukideak inguru bat osatuz exertzen dira. Lehendakari bat izendatzen da bilkura hartarako. Aztertutako gaiak eta hartutako erabakiak markatzen ditu Sekretarioak ingurrazti batetan.

Lehendakariak ordenuari eusten dio, edonork hitzegin eta beste guztiek entzunarazteko moduan. Martxa bera beti, eta hitz giltzarri batzuek moldatzen dute biltzarra. Oso maiz denbora mugatu da. Erakaslea aginpidez ez jotzen saiatzen da: " besteak bezalako " bat bihurtzen da, obratzeko ahalmena denei dagokie, taldeari. Halere, beti taldearen erantzule maisua denez gero, betatzeko eskubideari eusten dio.

Jator eta xingleki, eguneroko beren eskolako bizieraz mintzo dira haurrak eta erakaslea, eta hobeki jokatze saiatzen dira. Hau da, beharbada, gauzarik garrantzitsuena: nor bere administrazioa bere lepora hartzea, oraina eta etorkizuna nor bere eskuetan hartzea.

Funtsatutako ekintzak, munduarekiko zabalerak, lanaren antolaketa zehatzak, gauza bera taldeei buruz eta lekuen eta tenoreen desberdintzeari buruz, horrek guziak lan burutsu, fruktukor, oparo eta hezlea ematen du.

Zenbait " eskolatzaille langile " horrekin gelditzen dira pozik, eta aurrerapena dago horretan dudarik gabe. Ez dago zalantzarik: langileak, gizartetu diren teknikoak eta ordenua errespetatzen duten jendeak prestatzea, oso gauza ona da. Hots, klase langilea, ikastalde barea ere, teknokrazikutzuko diktadura bilaka daiteke; nahiz eskolaren betebeharra hiritar onak prestatzea izatea. Baina, egile-xahutzaile baino gejiago balitz gizona ?

Nolakoa da kontseilu edo buruzagitza ?

Desiragarria ahal da haurrak elkarrekin mintzatzeko gauza izan daitzezen, hautuak egiten eta erabakiak betearazten ?

Jakina: buruzagitza hori ez da tribunal baten moldera antolatuan alegia, erakaslearen begiradaren menpean biltzarra

sortuz : lehendakari bat, sekretario bat, diruzain bat. Ez. Hemen inguru batetan daude denak, eta honek erraztu egiten du kidetasuna eta elkarriketa egiazkoa: denek ikusten dute elkar, inor ez dago babesturik. Egoera berbera denentzat . . . bi agintariak, biltzarburua eta erakaslea, biltzarkide gisa ageri dira, ez buruzagi gisa.

Beste ohar bat egin behar: zuzendaritzarik ezak eta aginpi-derik ezak ez dutela ekaslearen egona ukatzen, ez haren pisua ezabatzen.

BURUZAGITZA , TALDEAREN BEGI

Zer eginkizun dagokio buruzagitza horri ?

Norberaren jokabidea denen aurrera agertzen da: maiz istiluak aipatzen dira, pilota kendu didate . . . landareak zapaldu dituzte . . .

Erantzuleak, arduradunek alegia, ikastaldearen lanen gorabeherak ematen dituzte. Haurren arretaren gakoa eman dezake horrek, alegia, informazioa denei buruzkoa eta denengandikakoa izatea. Berriz ere “ zehartasun ” deritzan joera horren aurpegia da hau, eta instituzioen terapeutikak salatzen du : baldintza hauetan pertsona batzuek elkartzen dute beren lana, eta denen erantzukizuna benetakoa da maila guztietan. . .

Buruzagitza horren bilera ez da eskolako biziaren une bat baizik; baina harreman abiadak astean 30 orduz lanegiten du maila eta eginkizun askotan batera. Halaz ere, oharketaren sena azkartzen duen tresna gisa agertzen da, soziologi-aurreko egiturak agerrerrazten dituen optika-ikusgailu gisa egiten du lan, “ Comp-tador gregari ” baten antzera —psikiatra bati entzun diogunez— eta horrek taldearen indar inkontzienteaz ematen digu berri.

Sentidu honetan aipa daiteke “ begia ”.

Haurrak jator eta loturarik gabe taldean mintzatu, eta informazioa gora doa. Erakasleak agirian nekez jakin zitzakean gertakariak, zakar edo ustekabeen batzutan, hantxe agertzen dira. Heziketaren alorra zabaldu egiten da, eta eskolatzaila gero eta erantzukizun handiagoren aurrean jartzen du.

BURUZAGITZA , TALDEAREN BURU

Azterketa-tresna gisa eta talde-erabakien erabilia, eskola-

tzaileen aldetik juzkuak eta zigorrak ekarri ohi dituzten egintzarik gehienak, aztertuak izan ondoren hau agertzen da: ez direla izaten hutseginak, baina organizaziorik ezaren ondorio, leku eta tresneriaren faltaren frutu.

“ Bila dezagun jostorratza ”, dio Alaineek. Batez ere buruzagitzak gertatuak aztertzeko eta “ jostorratza bilatzeko ” aukera duelako, eta hortaz garrasien eta amorruen sustraietara iristeko, instituzio horrek badirudi dramatismoa kentzeko instituzio egoki bat. Hamar kasotan bederatzitan, jokabide txarrak eman lezaketanak, oso xinpleki agertzen dira ezagutzen ez ziren gertakari xume izkutuen arrapostu, eta zenbait aldiz haurrari ezinegonaren iturri diren batzuen.

Hobe da antolaketaren akatsa bilatzea, haurraren hobena baino, eta hitz batez soluzioa bilatzea. Frogaketan soluzio horiek jarri ondoren, eta oparo ez gertatzekotan, buruzagitzak berak alda ditzake.

Istiluei dagokien erantzuna ez da sermoi bat, antolaketa berri bat baizik.

Antolaketaren eta erantzukizunaren arazoak istilu, okasio eta horrelako gauzen itxuran agertzen dira. Haurrek eta erakasleak galderak eginez, arazoa agertu egiten da eta argitu ere bai. Soluzioak proposatzen dira, eta hauek ez dira nagusitzen ahal bidezkotzat taldeak jotzen ez baditu. Eztabaida eta bozketaren ondoan onartuta, proposamenduok lege bihurtzen dira.

Harritu egin gaitu honek: Haurrek eta haulek noraino hartzen dituzten gogoan erabakitako puntuak. Horri buruz, esana izan da legeak markatzen dituen ingurraztiak duen inportantzia, eta nola ematen dion denboran barrena ahultzen ez den itzala. . . Erabakiok denek beteko dituzte, erakasleak haurrek baino gogtsuago, horrela elkar-lege horien inportantzia eta pisua azkartzeko. Biltzarren agirian ingurraztia begiztatzea bezalakorik ez dago instituzio honen balio pratikoaz jabetzeko. Taldearen abotsa den lege honen indarra azaltzeko, hiru puntu agerrarazi nahi ditugu:

1) Egia esan, erakasleak ez du egiten legearen arabera dagokion agintea besteren eskuetan jarri baino. Haurrek hartzen dituzten erabakien erantzukizuna hartua du bere gain, legez eta moralki. Konprenigarria da betoaren eskubideari eutsi nahi izatea. Baina baliteke agintearen uztea teoria hutsa izatea (baita batzutan erakaslea bera ohartzen ez dalarik) eta, kaso horretan,

instituzioa ez da seriotan hartzen.

2) Elkarrekin hartutako erabakiak errespetarazteko egoeran jarri behar da buruzagitza.

3) Elkarte-lizifrina ikasleek onartu dutelarik, talde-zigorra ere frutukorrage izaten da.

BURUZAGITZA, GARBIKETA - BILKURA

“ Joan-ek gurina zuen ogi-puska kendu dio Pau-ri. Gero alderantziz. Bai, baina Joan-ek bihurtu beharko dio Maurizio-ri Karlos-ek, luma baten truke, eman zion azukre-potoa; hau bestalde Enrikek lapurtua zion Lluisi, eta Lluisi-ek ostiko bat emanda lortua zuen Marcel-engandik, baita beste mehatxu batzuk eginez ere; Marcel-ek, bestalde, lau pustarri lapurtu dizkio Pau-ri, honek hari utziak ”.

Buruzagitza ez da izan tribunal bat, eta egiaren bilaketak garrantzi txikiagoa du istiluak berak baino. Biltzarraren helburua hau da: eskolaren abiadurari eustea, haurren heziketa segurtatuz, eta, ahal delarik, psikoterapia esan genezakeana egitea. Inportanteena, hortaz, ez da esan den hori bera, baina esana izan dela eta entzuna izan dela baizik.

Beste gauza bat hartu behar da kontuan, gainera: hitzeko eta ideiazko istiluak luzatzeko arriskua dagoela, berriktaren arriskua dagoela eta berritsuena, eta hauek biltzarrez balia daitezkeala iskilu batez bezala. Dударik gabe badago aurrerapen apur bat: “ biltzarrean salatuko haut ”. Eta hau ostikoaren orde. Baina aurrerapena ez da egiazko izango harik-eta istilu horiek bere beren piperra galdu duten arte. Taldearen gogoak pertsonarteko herrak luzaraz ditzake.

Hitzegitera utziko ? Hitzeringo ? Edo, alderantziz, isileraziko ? Eta hau eginez, hondatzeko arriskua hartuko ? Isilarazi : nor ? noiz ? nola ? Biltzarburuari agertzen zaizkion galderak dira, eta areago erakasleari, ezen hau isilik baitago han, baina aurrean eta beharrezkoa baita. Problema honek, jakina, ez du soluzio orokorrik.

Halaz ere taldea agertu egiten da, eta erakaslearen egozarriak kolpe latzak hartzen baditu ere istiluak, gurinezko ogi-puskak, erritak, eztabaidak eta saltsak entzunda, haurrenak ez

du gutxiago sufritzen. Taldeak berak moztuko du, istorio pertsonal horiek bost axola baitzaizkio. Bortxatu gabe ikusiko du haurrak berak kecatzen direnez kecatzen direla, eta kritikatzan dutenak kritikatzan.

Hunkitua den neurrian, taldeak jasan eta entzun egiten du. Funtzik ez duen istoria, berez gelditzen da baztertua. Gakoa hau da: hitza segurtatzea: hurrei berei ez-ezik taldeari ere. Orduan konturatuko gara nola batzuk, konturatu gabe ere, taldearen izenean mintzo diren eta jarraituak diren . . . Erakasleari dagokio hautaketa hau bultzatzea edo gelditzea, juezaren papera onartuz ala gaitzetsiz edo bere burua bultzatzea edo gelditzea, juezaren papera onartuz ala gaitzetsiz edo bere burua nagusi-arazi nahi duen mendekatzailarena eginez. Jakina, nahiz entzun eta ulertu, batek hitzei farrengingotzeko die, eta egintza berak adiera desberdinak hartuko ditu pertsonen arabera.

BURUZAGITZA, TALDEAREN BIHOTZ, HIZKUNTZA - GUNE, INDAR BERRIEN SORTZAILE

Egoeren arabera hurrek nola ikusten gaituzten jakitea zail izan zaigu. Ez da gakoa, edo gako bakarra bederen, adierazpideen txirotasuna edo areago hiztegiaren urria. Hemen dau den gertakariak baita ongi eskolatutako nagusiek berek aski lan izango luteke galdegaietan zehatz azaltzen . . . Hurrekiko bizierak eta hitzei egin diegun arretak honetara eraman gaituzte: hizkuntza bereziaren okasioa dela biltzarra.

Lantegian, erakaslearen irudiak udalekuetako arduradunen irudia gogorazten du; eskolan aurreko irudiak dakazki gogora; baina biltzarrekoan egoera berria da, eta talde-jokoa idarokitzen du, baina erakasleak parte hartzen du eta dena klase-barruan gertatzen da. Gertatzen dena aztertzeke, azterketa sakon bat behar litzake eta azterpide berriren bat. Jokabideak ez dira banda magnetofonkoan markaturik gelditzen, filmak laguntza bikaina eskaintzen du, biltzarrean dagoen ikertzaile edo soegile gisa doanak.

Buruzagitzaren eginkizunen banaketak segidan eta elkarren ondoan gertatzen direla pentsaraz lezake. Jakina, haren eginkizunen garrantziaren proportzioa aldatu egiten da denbo-

ran zehar, baina ez da ahaztu behar eginbehar horiek elkarri loturik daudela, eta biltzarrean dena dela bat.

Lilura hutsa litzake haurrak inguru batetan exer-araztea, hitzegitera uztea, eta besterik gabe, berehala ala geroxeago, tan-keran horretan azaldutako kondairetan eta aitorretan taxua berez sortuko dela pentsatzeko.

Buruzagitzaren biltzarrok dira hain zuzen taldea senda-tzeko bide bat, eta haren martxaren kontrola zail xamar gertatu ohi da.

BURUZAGITZAREN BILAKAERA (eboluzioa)

Buruzagitzaren bilakaera edo eboluzioa, taldearen errai-
nu , ez da inolaz ere berezkoa, ezin-bestezkoa eta zuzen-zuzena.

Hala ere, bilakaera-eskema bat eman daitekeala iruditzen zaigu: 1 - Isiltasuna. 2- Atralaka. 3 - Hizkuntza.

Nahiz bilakaera hori zenbait ikastaldetan segitua izan, hala ere arriskurik gabe ezinezkoa iruditzen zaigu denboran urrats horiek finkatu nahi izatea, ezen bilakabidea mila gauzaren menpe-ko baita.

Haserako isiltasunaren ondoren (hazaroa, abendua), baita Urtarrilekoa ere zenbait aldiz, bigarren aldia dator: zala-parta eta atralakarena.

A) Isiltasunaz ; ; ;

Soegile ez-ikasiaren iritziz, biltzarreko isiltasunak biltzar ordenatuaren seinale izan liteke; baina oso maiz, haua badakigu, ikastaldearen desordenu sakon baten lekuko izan daiteke.

Zergatik daude hor bildurik, beren harrigarri horretan, pertsona horiek guztiak? Hitzegiteko ? Zertaz ? Beren buruez ? Ikastaldez ? Haurrek ozta konprenitzen dute.

Ez dute ezer esatekorik, jendartean batez ere. T-talde baten hastapenetan gertakari berberak ikusten dira (“ training group ” edo talde lekuko), eta gauza bera magnetofono bat talde bati erasten zaionean.

Jokoan eta lanean esatekoa erakusten du haurren joka-bideak, Mesfidantza dago, azalmenezko eta ohiturazko bideen eskasia. Halaz ere beti bada zerbait hastapenean hitzegiten has ahal izateko.

Ohartu beharra dago, halere, haurren taldeek egituratzeko

joera dutela. "Gobernu paralelo" bat sor ez dedin erne ibili behar du erakasleak, ezen erraza baita buruzagi baten egokitasuna ukatzea.

Nahiz gauza gutxi gertatu, astean bizpahiru aldiz bilduko da buruzagitza; denek badakite horrela badagoela mintzatzeko aukera bat. Oraingo gorabeherak azterketa berri baten mamia izango dira.

Norberaren idurimenean sortzen da aurrenik buruzagitza hori. Ekintzen mugatasuna dakar izate horrek berak; akozko azalpedeare zabaldu zaio aukera bat. Bakoitzak, eta erakasleak berak berdin, pentsatzera eta oroitzera behartua da. Horrela, uste dugunez, haurren hazkundean eragin daiteke.

Aldez aurretik taldean hitzegiteko ohitura hartua ez bada, alferrik da hizketarentzako baimena ematea. Buruzagitza ez da, bere handi-kutsuarengatik eta bere jarrerarengatik, lekurik egokiena agiriko hizketa hori laguntzeko. Nolanahi ere, saiaketa egunero egiten da goizean, elkarrizketaren ikasaldiak baliatuz, hauetan bakoitzak zerbait kondatzen baitu: herriak, eta abar. Horrela, beraz, taldearen aintzinean mintzatzen ikasten dute haurrek, nahiz buruzagitzari ezer berezirik esan beharrik ez izan.

B) Zalapartaz

Agertu egiten dira istiluak eta tirabirak. Zai gelditutako haurrak orain taldetara bildutik daude, eta gizarte-biziaren saioak egiten ari. Eztabaidan ari dira, ekintzaren arabera desberdintasanak ere aurrera. Kontrolatzeko hesietatik libro, anarkian eta desordenuan azalduko litzeke haurren oldartasuna. Hizketaren bidez oldartasun hori azaltzeko bidea ematean, erasoapa-lago izango da, baina bolara hau oso nekagarria da, zeren-eta irudimenezko erakaslea hil behar baita horretan barrena. "Neure ikastaldea eratzen zen mementoan bertan, mila modutara akabatu naute".

Zenbait mementotan, grinen lehertzapenak atzera daraburuzagitza, eta oldarbide arkaikoak agertzen dira; erreparatuak izan nahiz, bai haurrek bai erakasleak garrasiari emateko joera dakarte. Nola isilaraz, ordea, hizketa agortu gabe? Nola eman hitzari dadukan inportantzia?

Une horietan biltzarraren taxua atxiki ala galdu horretan datza buruzagitzaren etorkizuna. Dramatismoa kenduko duen lanabes bat izan behar da orduan eskuartean, eta honek erakatsiko dio taldeari behar bezala hitzegiten:

D) Zerimonia.

Zerimoniari esker, norberak badaiki zer egin behar duen eta zein erregelaren bidez entzun-araz dezakean bere burua: hizkuntza moduko zerbait jaiotzen da. Denek dakite zer gertatuko den: horra hor grinak eskuratzen, eta instituzioaren indarra sustatzen eta gotortzen duena.

Bere burua entzunarazi nahi duenak, hortaz, erregela hauek errespetatu behar ditu :

1 - Ingurrazti batetan biltzarrari dagozkion puntuak marikatuko dira : a) eguna; b) zuzendariaren izena; d) alderdi txarrrak ; e) arrakastak eta zorion-emateak; f) lurjotzeak, kritikak, proposamenduak; g) erabakiak.

2 - Nik galde : Lehendakari ? Eta esku batzuk altxatzen. Bat hautatu dut, edo lehendakari gutxitan izan delako, edo psikologi-arrazoinengatik behar duelako, arrakasta izanez edo errekarä joaz.

3 - Orduan lehendakariak hitz giltzarriak erabiltzen ditu: "Ixo. Biltzarra hasi da". " Lehengo biltzarrean hartutako erabakiak ". Sekretarioak, neronek alegia, egina izan behar zena oroitartazten du. Erantzukizuna dutenek aman beharko dute egin ez denaren azalpena.

" Nork uste du taldea gaizki doala "? . Lau esku altxa. Haur hauek funtsatu beharko dituzte berehala beren kritikak.

4 - Orduan hau aztertzen da : a) egin ez dena; b) sail guztien gorabeherak; d) taldearen abiadari buruzko kritikak; e) eguneko jarraipidearen puntuak.

5 - Biltzarra bukatzerakoan, berriz irakurtzen dira erabakiak.

D) Hizkuntza

Ez gaituzte ikusten, ez aditzen, ezin gaitzakete errepara: bakarrik ginan, erreta eta denen kontra. Hiru istilu egin berean, zalaparta, sesioak han eta hemen, masaileko bat, " bakea otoi " bat, eta, ifernura ari gara ? Mintza gaitezen elkarrekin axola zaizkigun gauzez, arinak edo inportanteak izan. Ongi mintza gaitezen, talde baten aurrean gaude-ta; baita gezurrezko hitzak baliorik ez duelako.

Eta horra hor lana jaikitzen hasia. Berriz ere beste modu batez ikusten dugu geure burua. Galduak ginduzten, eta elkarre-

kin egoteko pozik aurkitu gaituzte herriro. Galdua genuen hizkuntza aurkitu dugu berriz. Baina horrek ez digu azaltzen gertatuaren gakoa.

Beste alde batetik, batzutan aste osoak eta hilabeteak ere behar izaten dira lanb hura altxatzeko. Ela argia gutxitan agertzen da eskola-kasernetan: urtero ekin behar zaio lan berberari, lan agorra, baina hastapenetako beharrezko eginkizuna.

Beren artean lobroki mintzatuz, haurrek, gisa denez, interesatzen dituzten gauzak aipatzen dituzte, baita egiteko asmoa duten gauzez. Kasu, halere: eskola eta eskolako lanak ez dira perretxikoak bezala jaiotzen. Gauza bera gertatuko ote litzake, eskolaldiaren haseratik, haurrak beren eskolako giroa prestatzen ohitu izan balira ?

Haseran, pertsonen arteko herrek eta burrukek hartzen dute leku guztia. Haurrek lizifrina-kontuei ematen dieten garrantzi hori, adinaren ezagugarria da, ala gizartekuntza-mailaren kontua ? Jokabide hori lotuta dago eskolatzaileen jarrera sokinarekin, edo segurantziare eskasiarekin ? Edo eskola-giro berezi bati ematen zaion arrapostua da ?

LILITEGIA : ESKOLA

- Kontutan hartzeko gorabeherak
- Guraso / eskola harremanak
- Heziketaren arazoa gaur.

LEHEN MAILAKO ESKOLA : ESKOLA

ESKOLAREN ANTOLAMENDUA

Eskolako bizia

Lan-giroa eta giza-bertuteen hazkundera.

Eskolan, gauzak ikasiaz gain, lanean ikasten da. Lanerako ohiturak eman behar dira, hauek lan hori baliagarriago egin dezaten.

Eskolan ikasten dira, era berean, elkartasuna, besteekiko

errespetua, eta besterekin lanegiten.

Hori guztia berez eta bortxatu gabe ikastea lortu behar da, handien lekukotasunaz, bizituaz eta ez ikaskaiez.

· Pratikan erregela hauek erabiliz lor daiteke:

- Lanari dagokionez :

Alaitasun-giroa: eginkizuna atsegin izatea.

Taxuketaren ohitura: Orduetan zintzo. Orduak errespetarazi, haien esklabo ez presaka eta muturka. Beta hartu dena ongi burututa uzteko.

Errespetua tresneriari.

Desordenua erazteko, beti lanean.

Isiltasuna. Trankiltasuna (ahapeka handiak). Lanen artean liferentziaz ohartu.

Eskola barrutik ordenuan ibiltzen ikasi, oinez ez korrika, ez besteak bultzatuz. Txikiak diren artean, herrenkadan joan, hau beranduago alde batera utziz.

Leku argiak, garbiak, eta estetikaren alderditik apainduak.

· Erredizak eta tresneriak ximple baina polita: egurra, e. a.

Apainkera arruntetik ihes egin, haur-kaseten plegutik urrunduz.

Kontutan izan estetikaren heziketa giroaren bidez ere egiten dela. Haurrek lagundu egingo dute apainketan: marrazki, kartel, e. a .

- Besteekiko errespetuari dagokionez :

Erakasleek haurrak, beste erakasleak eta edonor errespetatzen dituzte.

Saia zaitezte besteen arazoak entzuten.

Hau eskatu behar: haurrek elkar laguntzea, eta gauzak elkarrekin partekatzeke (eskolako gauzak, eta etxetik ekarrirakoak)

Haurrek besteez arduratzea (eriak, nolana hiko eragozpenak) . Kontu-kontari ibiltzera ez uztea.

Koskak beren artean gainditzea. Barkapenak eskatzea, Jatortasuna. Egia esateari garrantzi handia eman. Zigor txikiak hori lortzeko. Segurantzia eta askatasun giroari eutsi.

Erantzukizun eta elkar-laguntzaren giroa. Haurrek ikastaldearen abiada onari eusten laguntzen dute. Karguak.

Besteen lanaren errespetua dela-ta, lizifrina eta isiltasuna eskatu behar dira.

Haurren lana

Duen balioa. Duen heziketa-balioa batez ere, eta eskola-
-emaitza.

Gogoz egiten denean lanak hezi egiten du. Haurrarentzat badu interes nabarmen bat: gauza berriak ikastea.

Bere eginahalaren kontzientzia izan behar du haurrak, eta eginahal horrek gero eta gertuago eta gaiago egiten duela. Mailak gainditzen ari dela. Honek bere buruarekiko fidantzia indartzen dio; eta desegokiera asko baztartzen dio.

Beti ere maila guztietan eginahala eskatu behar zaio haurrari, baina ez haurraren gaitasunetatik gora, honek etsiarazi eta alde batera uztera eramango bailuke,.

Lanak, ahal delarik, haurrak bere buruz ikasteko modua eskaini behar du. Oso lantsua izan behar du, eta ohartzeko, ikeritzeko, ondorio ateratzeko, arrazoin bidez joateko, eta abar, lagundu behar du.

Norberaren ahalak neurtzen lagundu behar du lanak, norberaren mugak ikusten, honetatik izugarrikeriarik somatu gabe. Gizatasunaren desberdintasuna eta aniztasuna erakutsi behar ditu, onartzen ikasi behar du, baita baloratzen ere.

Talde-lana. Gorago esandakoaz, talde-lanaren hobariak berehala agertzen dira: denen dohainak batera jarrita, eginkizuna frutukorrago izango da.

Talde-lanak, bestalde, besteen beharraren kontzientzia emango du, eta elkar-laguntzaren aberastasuna sendi-araziko.

Taldetan egin daitezkean lanak kartel batetik hasi, eta ikerketa-gai bat prestatzeraino joan daitezke.

Erakaslearen betekizuna: erakasleak aurretik markatzen du haurrek segi beharko duten bidea, eta hai eusten laguntzen. Ez du azalpen luzerik egiten, baina eginkizunak proposatzen; eta hauen bidez haurrek berek beren buruz aurkituko dute. Oharketa-tresneria eta lan-tresneria ematen du. Baina egitekoa ez du berak egiten.

Memento bakoitzean nori bere bidea proposa ahal izateko, eta taldeak egokiro moldatzeko, norberaren dohainak eta akatsak ezagutu behar ditu ongi.

Lanari dion itzala, hau ez ebakiz erakutsiko du.

Egitekoaren ordenua eta itxura ona eskatuko ditu, baita bukatu gabe ez uztea ere. Hobe da gutxiago baina ongi eginik. Badaki nori ezin zaion oso letra ona eskatu, eta nork ezin duen.

Ez du lana bultzatu behar besteekiko burrukaren bidez, ezta besteekiko alderaketaz. Honek gizarte-heziketa hondatuko luke, ezen funtsean bestearen zoritxarra nahi izatera baitarama. Maila bakoitzean berberak egindakoak erakutsiz lagun dezake eta susta.

Fameliakiko harremanak

Fameliaren eragina da haurrak hartzen duen handiena. Gurasoekin lotzen duten sendime-loturek, eta etxeko eskolako giroa baino iraunkorrago izateak, ezin ordainduzko egiten dute eragin hori.

Erakasleak lagundu egin dizaike gurasoei, hauek eman ezin ditzaketen gauzak emanaz. Hauek dira : eskolaren beraren erakaspena, eta gizarte-heziketaren partea. Ez dugu inola ere sinesten heziketa guztia guk ematen dugula.

Halaz ere, haurraren heziketa alderdi hauek ezin daitezke eman nork berea bere aldetik. Elkar-aditu egin behar dira, eta helburu beretara jo behar dute. Eta ez hauek eta haiak elkar ukatuz eta deseginez.

Eskolaren eta fameliaren arteko nabaitu behar du haurrak; bestela eragin osoa galtzen da haren gainean.

Ezerk ez du kalte handiagorik ekartzen gurasoen desberdintasunak, haurrari buruz, honek erreparatzeak baino.

Txosten. Elkarrizketa. Biltzar. Elkar laguntzeko elkarri berri ematea beharrezkoa da, eta elkarrekin moldatu gero elkarrekin betearaziko den plana.

Haurra eskola batetara baino lehenago, gurasoek arraz ongi jakin behar dute nun sartzera doazen, eta zer nahi dioten eman. Hortaz, haurra eskolan sartu baino lehenago elkarketa bat egin behar da, eta honetan zehatz jakin behar da zein diren programak, eskolaren maila ekonomikoa eta gizartekoa, erlijio-arazoari buruzko jarrera, hizkuntza, eta abar.

Orduan berek haurren jokabidea etxean azalduko dute, osasuna, izakera, famelia bizi den giroa, eta abar.

Eskolak aldiro esango die gurasoei eta ; zehazki haurra nola doan. Berri horiek emateko bide batzuk daude, izkribuz edo ahoz. Kontutan hartu behar dira alderdi guztiak: lana,

egokiera, jokabide pertsonala eta besteekikoa, jokoa, mogimenduak, marrazkia, ahozko azalmena.

Txostena izkribuz egiten baldin bada, gero beharrezkoa da hitzez argitzea eta besteen iritziekin alderatzea, jokabideak gonbaratuz eta elkar-aditurik erabakiak hartuz. Ideia gidari gisa, gauzak mementoko burutazioaren menpean ez uztea da onena.

Elkarrizketa guztietan aitak eta amak parte hartzea beharrezkoa da. Aldioroko elkarrizketez gain, haurraren edozein aldakuntzarengatik edo besterengatik beste elkarrizketarik egiten baldin bada, bai eskolako bai etxekoa, elkarrekiko berri-emate hori beharrezkoa da, beti ere dagokion jokabidea hartu ahal izateko.

Baita gurasoek memento batez eskolaz kutsu txarra harturik badadukate ere, segituan hitzegitea da onena.

Gurasoen biltzar jeneralak, edo taldeka, beharrezkoak dira informazioari eutsi ahal izateko, eta denengan eskolako alderdiei buruz sendikortasun berezia sortuz joateko: pedagogiaz, ekonomiaz gizarateaz, eta edozein asmoz.

Gurasoek parte hartu behar dute eskolaren abiaduran. Kontura-arazi behar zaie gurasoei denek osatzen dutela eskola, honen abiadaren erantzukizuna denek dutela elkarte gisa, eta lagundu egin dezaketela.

Parte hartze hori eta lortu behar diren leburuak zein ote diren, hau eskola askok dute nabarmen jarririk galdera gisa, eta bakoitzak ahal duen bezain ongi eman behar dio soluzioa: guraso bultzatzaileengandik hasi eta guraso-elkarteetaraino edo, besterik gabe, eskola-laguntzaileenganaino.

Erakasleen lana

Laguntza pertsonala. Erakasleek ongi behar dute jabetu haurral beren gain hartuz beren lepora gaineratu duten erantzukizun larriaz. Haurraren etorkizuna izan daiteke lan horretan : bai gora heltzea, edo baita lurpera sartzea.

Ez du balio esateak ezinezkoa dela eskolari osoki ematea. Laguntza pertsonal osoa eman behar da, lan sakon eta zinezko baten bila, eta egitekorik eta koskarik baztertu gabe.

Egitekoa ongi behar da prestatu, azken mementoko oldekeriak alde batera utziz. Kontutan hartu behar da ere haurren bakantzak eta gureak ez direla berberak izan behar.

Bestetik kontutan hartu behar da pedagogiaren orua gaizki landuta dagoela, programa onik ez dagoela ezta istudioetarako gertaera egokirik ere, ez dagoela liburu eta tresneria onik. Arazo hauen egoerak handiago egiten du gure emaitzaren beharra: hutsune horiek betetzeko bixiagoa izan behar du norma-lean baino.

Prestaera. Jakina, zaletasun hutsez egin daiteke lan hau. “ Haurrak maiteago ditzagun ”.

Erakasleak oso ongi ezagutu behar du bere lana, bere teknikak, haurraren psikologia. Astakeria galantak egin ohi dira pentsatuz dena dela zentzu-kontu bat, eta askojakiten dela.

Horrez gain, eten gabe eutsi behar zaio heziketari. Esperentzia berriak egiten dira, teknika berriak agertzen, haurraren psikologian aurkikundeak egiten dira. Jakinaren gainean egoten saiatu behar dugu, irakurtzeari ekin behar diogu, eta ikastarotan parte hartu. Eta geure erakaspideak beharrezko diren aldakuntzen bidez aldatu.

Haurrekin dugun jokabidea aztertu behar da ere etengabe, eta hobetuaz joan. Geure burua ezagutu behar dugu, ere berean eta geure jokamoldeak, geure sistema pertsonala fintzeko, horrela geure psikologiazko jakinduria egokiro erabiliz.

Talde-lana. Ideia nagusia bakarrik, beste batzuek nik baino hobeki azaldu dutelako.

Nahiz pertsona bat oso ongi prestatu egon eta haren irizpidea oso sendoa eta argia izan, haren erabakiak desegokiak eta makurrak izan daitezke. Erakaskuntza bezain garrantzitsu den alor batetan, makurrik gehienak baztertzea balio du. Denen ideiak aztertu eta eztabaidatu, eta honen ondoren lagun-talde batek hartzen baditu erabakiak, gauza ageria da deskalabro asko bazter daitekeala. Bertan lanegiten duten pertsona guztien artean hartu behar dira eskolari buruzko erabakiak eta erantzunbehar-ak.

Beste alde batetik, batasun handia lortu behar da eskolako ikastalde guztien artean; haurra taldez aldatu, edo mailaz, eta guztiz giro desberdin bat topatzeak ez luke funtsik, edo ikaspi-deak eta irizpideak egokialdi berri batetik pasa beharrak. Beste hau ere hartu behar da kontutan: pertsona nagusiengandik datozkion irizpideak beti berberak baldin badira, eragin handiagoa izango dutela haren gain.

Honen arabera, hortaz, ezin dezake bakoitzak bere gisara

asma eta joka. Ikastaldez haurra aldatu, eta ez du gauza bakar bat baizik topatu behar liferenterik: adinaren pedagogi-betebeharrei dagokien desberdintasuna. Aurreko eta ondoko mailetako klaseekiko lotura leunki egin behar da, maila guztien artean oinarri berbera atxikiz.

Hortaz, alde batetik pertsona batek bere buruz eskolako lana zein den erabakitzea nahi ez dugu, eta bestetik lan hori batua izango bada, badirudi soluzio bakarra hau dela: lanerako irizpideak elkarren artean harturik izatea, ideiak denek eskaintzea, ezaguerak eta prestaera denek ematea, eta denen artean egokiena hauta dedilla. Erabakietan denek parte hartu badute, errazago izango da gogoahitu gabe berorri egokitzen saiatzea.

Denbora behar da horretarako, baina erakasleen eta haurren ordubidea eta haurrena berberak ez direla esana dago. Ez dugu bilatu behar abantailik beste lanbideen arabera.

Erakaslearen pedagogi-jokabideak - - - EZ da onartu behar goreneko aginpiderik, legeen emale; ezta dena dakienik eta nahas ezin daitekeanik; baina beste lagun baten gisa ere ez da hartu behar : ideia honek lurjotzera darama askotan. Haurrek seguruago egon nahiz behar dute pertsona nagusia.

Erakasleak, zabal eta atsegin agertuz, konfiantza piztuko du. Eragozpenak ulertuko ditu. Denak onartuko ditu, denak eta denon arazoak. Adu egingo du. Bultzamena lagunduko du. Ez du jatortasuna agortuko.

Kidetasunezko eta lanari buruzko beharrak bete-arazteko, ermotasun handia behar du. Erakaslearen ermotasun honek segurtatu egin behar du haurra, lasaiago utziz.

Zigortu behar delarik, egin egingo du, baina zuzentasunean. Hasarretu gabe eta patxara galdu gabe. Ez garrasirik ez aurpegi muzinik. Leunki. Haurren ohiturak sortzen eta beren burua hezten lagundu behar dituela pentsatuz, haurraren onerako egin behar duela, eta ez bere zainak lasaitzeko.

Ermotasun leuna : hona hemen, pedagogi-gisa, aurki daitekean esaerarik egokiena.

Nuria Ramos-ek 1.968-ko Udako-Eskolan irakurritako hitzaldia.

GURASOEN ETA ERAKASLEEN ARTEKO HARREMANAK

(Nova Terra 1.968, Gertrude Driscoll-en “ L’ estudi del comportament dels infants ” etik hartua)

Eskolatzailen eta gurasoen arteko elkarrizketak oso emankorrak izaten dira haurraren jokabideaz ezaguera sakonagoa lortzeko. Elkarrizketa horietan pertsona berberari buruz ezaguera sakona duten bi parte daude: gurasoak batetik, eta erakaslea bestetik; eta biek interesa badutela pentsatzeko oinarriadago. Urteetan barrena eratutako iritzi bat dadukate gurasoek. Erakasleak zenbait astetan, edo zenbait hilabetetan, eratutako beste bat. Gurasoen ezaguera, denboraldi luzean oratua, oso garrantzi handikoa da; horrengatik lehenengo elkarrizketak gurasoak dira berri-emale nagusiak, eta ondokoetan ere parte garrantzitsu bat eskain dezakete.

Beren haurrei buruz gurasoek eman ohi dituzten txostenak edo berriak maiz xamar izaten dira faltsutuak; eta hau bi arrazoinengatik: lehendabizikorik, zeren-eta erakasleak egiten dituen galderen gakoa gurasoek ikusten ez dutelako, amak batez ere. Oso maiz haurra nolakoa nahi lukean azaltzen dute, eta erakasleak haurra begi onez ikusteko bidea prestatu. Bigarrenik, haurrak oso liferente jokatzen du etxen eta eskolan: hartan badaki maitatua dela, baina honetan bortxaturik atxeman dezake bere burua. Gurasoen eta erakasleen arteko elkarrizketetan, oso bereziki esan daiteke, bigarrenaren trebetasuna da parte nagusia, batez ere amaren konfiantza eta laguntza lortzen dituen ber.

.

Elkarrekiko informazioan, haurraren lortu nahi den jokabidea elkarrekin bilatzean, eta bai eskola bai etxen helburu horiek eskuratzekotan bide berberak erabiltzean datza gurasoen eta erakasleen arteko laguntza-oinarria. Jokabide honetan gurasoak eta erakasleak maila berean jartzen dira. Erakasleak, heziketa-emale gisa, elkarrizketa horiek abiaburu on batetik abia daitezten erabakiak hartzen ditu. Aldez aurretik onar daitezke hauek eta haiek emango dituzten berriak eta informazioa inportantea dela.

ELKARRIZKETETAN erakasleak ondoko puntu hauek lortu behar ditu:

1 - Elkarrizketa batetan barrena, aitak eta amak denboraluzera berberaz mintzatzea.

2 - Beste bigarren batean, amak sinestea erakasleak benetako interesa duela haurreenganako.

3 - Beste batean, gurasoek erabiltzen dituzten hezibideak onartuko ditu erakasleak.

4 - Beste batean, amak gero eta konfiantza handiago duela aitortu behar du.

Orain eskola-helburu batzuei buruzko galdera batzuk egingo ditugu. Galdera bakoitzaren ondoan, hiru bide daude aurrera jotzeko. Bide edo era hauek ez dira beti elkarren ukatzailer, eta askotan elkarren antza handia dute eta elkar ordaintzen dutela dirudi. Horrez gain, horien alderdi ona agerrarazten idatzirik daude. Galdera bakoitzean gidatzeko bide bakar bat eman dugu: alegia, inportanteena eta osoena deritzaguna; eta besteen bat oso inportante iruditu baldin bazaigu ere, ez dugu markatu.

ESKOLAKO PROBLEMA NAGUSI BATZUK

ERAKASLEEN TALDE - LANA

1 - Gizatasunaren mailan, erruz laguntzen du erakasleen arteko adiskidetasun onak.

2 - Programak lantzekotan erakasleak elkarrengana biltzen dira, eta horrela jarraitasuna bilatzen.

3 - Eskolaren aldakuntzak mugatzeko biltzen dira erakasleak.

ESKOLAKO ERAKASLEEN HEZIKETA

1 - Titulua denek izanik, denak parean izan eta denak batera aurrera joateko bidea dago.

2 - Erakasle bakoitzaren lan-lekua beraren lan normalerentzako egokiena izatea hartzen da kontuan.

3 - Erakasleak eskola barruan eta eskolatik at heziketa-aldi bat izatea bilatuko da.

GURASOEN ETA ESKOLAREN ARTEKO HARREMANA

1 - Erakasle-guraso harremanak haur bakoitzari buruz eta heziketa zabalari buruz.

2 - Haurraren arazo xeheei buruzko harreman sistemati-koa, hau gurasoen eta haurraren arduradunaren artean.

3 - Erakaskuntzan ari den taldea ezagutzen dute guraso ek, eta haurraren heziketa horren eskuetan jartzen.

ERLIJIO - HEZIKETA

1 - Gurasoen ardurapean uzten du eskolak erlijiozko heziketa, eta honetaz hitzegiten du haiekin.

2 - Eskolak zuzenean hartzen du ikasleen erlijiozko heziketa,

3 - Eskolak kontutan hartzen du ideologiaren heziketan haurraren trazendentzia.

BIMINTZOTASUNA

1 - Orduen arabera, maila bera ematen zaie bi hizkuntzei.

2 - Ikastaldean nor bere hizkuntzan lanegiten du bere heziketa osatzeko, eta beste hizkuntza bigarren hizkuntzatat hartzen.

3 - Heziketa ez zailtzeko, berezi egiten dira haurrak hizkuntzaren arabera, eta horretan egoten bigarren lantzen hasi arte.

IKASLEEN KOPURUA

1 - Erakaslearen lan egokiaren araberakoa.

2 - Behar pedagogigoak eta soziologikoak elkartzen saiatuko da.

3 - Inor eskolarik gabe gelditu ez dadin saiatu behar erakasleak.

IKASLEEN ARTEKO GIZARTE - DESBERDINTASUNA

1 - Haurrek honengatik jasan ez dezaten, handia ez izateko saiatzen da eta Eskolan gaundi dedin.

2 - Erakasleak kaso bakoitzean ezagutzen du, eta arazo-

ari oldartzeko gai ikaslea egiten.

3 - Eskolak gizarte-kerak hobe baten jaiotzan laguntzen du.

HEZIKETA ELKARREKIN

1 - Neskak eta mutilak elkarrekin eskolako bizieran, baina talde bakoitzari dagokion lanetan berezita.

2 - Neskak eta mutilak elkarrekin maila guztietan, eta tratu bera hartzen denean.

3 - Neskak eta mutilak elkarrekin, mailari dagokion ikaskizunen arabera.

KASO BEREZIAK

1 - Kaso horietako bakoitzean erakasle bakoitzak bere klasekoak hartuko ditu bere gain.

2 - Ikastaldeko guztien elkartasuna zainduko du, baina berezi horien heziketa osatzailea beste erakasle apropos batekin egingo du.

3 - Liferentziarik ageri ez dedin, taldeak ez du izango habaila segi dezaketenez besterik.

HAURRAREN EZAGUERA ETA BALIO NEURKETA

1 - Erakasleak badu psikologiazko heziketa bat, eta horrela ongi ezagutzen du haurra, eta ongi istima dezake haren balioa.

2 - Haurraren ezagueraren eragozpenetan laguntzen du erakaslea psikologoak, baita gidatzen eta balioa neurtzen.

3 - Psikologi-bulego baten txostenak haurraren ezagueraren eta balio-neurketaren hoztasuna segurtatzen.

MASA - ELKARBIDEEN ERAGINA (Telebista, TBO, eta abar)

1 - Gure herrian benetan da kaltegarria, eta erakasleak haurra gerizatu behar du hartatik.

2 - Ezina da ez-ikusia egitea; eskolara sartzen saiatu behar da, baina duten alderdi onak eta txarrak agerrarazten.

3 - Irudiaren munduaren aurrean, erantzun pertsonalak bilatzen dira.

ESKOLAKO TEKNOLOGI - AURRERAPENAK

(erakats-tresnak, begi-belarrizkoak)

1 - Erakasleak nola erabiltzen diren jakin ala, eskolara sartuko dira, giroan daude-ta.

2 - Eskolan haurrak-erakaslea harremana izango da inportanteena.

3 - Eskolako lanaren alderdi batzutan, erakaspide berri hauek tresna egokia dira gaur.

ESKOLATIK KANPOKO EKINTZEN DENBORA- BANAKETA

1 - Gauza hauek zeharri uzten dira eskolatik kanporako.

2 - Larunbat goizak horretarako emanak.

3 - Eskolako ordubidearen barruan egiten dira.

HAURTEGIA ETA LILITEGIA

JOKABIDE NAGUSIA

1 - Haurrak zoriontsu bizi dira beren adinaren araberako giroan.

2 - Programarik ez izatea baliatzen da alde zuzenetikako ezaguera batzuk biltzeko.

3 - Giroak bide emanik, haurrak jator eta oldez agertzen dira, eta horretatik abiatuz zuzenbide pertsonala hartzen.

TRESNERIA

1 - Badago tresneria ugari : heziketa, jokoak, jolasak egiteko.

2 - Ekintzaren mugen barruan hautatzen dute erakasleek eta gertatzen eskolako tresneria.

3 - Eskola-barruko tresneria badago, baita batioko jokotarako.

AZALPIDEAK

1 - Eskolako lanetan, azalpideen ereduak ikasteko uzten da denbora berezia.

2 - Bai haurtegia bai Lilitegia funtsezkoa da azalmenaren bideak eratzea eta heztea.

3 - Haurraren urrats nagusi bakoitzean, azalpideak hartzen dira kontutan.

LIZIFRINA

1 - Autojestioaren aldera jo.

2 - Arau arrazoinetako batzuen osagarri.

3 - Erakasle bakoitzak bere klasearentzako bideak markatzen.

GIZARTE HEZIKETA

1 - Egiazko gizartearekin haurra harremanetan jartzen saiatzen da, eskolatik irtenez, prentsa-solasak aipatuz, eta abar.

2 - Aldez aurretik markatutako programa bati eutsiz, gizarte-heziketazko eskolak egiten dira.

3 - Gizadiari zerbitzu batzuk egiten zaizkio.

BI - MINTZOTASUNA

Iturburu desberdin asko izan dezake eskolako bimintzotasunak:

1 - Gogoz ala gogorik gabe onartutako kultura-gailentasun batengatik, fameli-hizkuntza eta eskolako hizkuntza ofiziala ez dira berbera; hori da grekeraren kaso antzinako Erroman, gero latinarena ikas-maila askotan, zenbait kolonitakoa, eta inglesarena Hego-Ameriketan.

2 - Eskolako legezko hizkuntza eta haurrena ez dira berbera; politika-zapaketa dagoen kasoetan gertatu ohi da hau, eta eskolatik kanpoko beste zampaketa-molde batzuk ere gerta daitzke: hauxe da kolonietako kaso eskolarik gehienetan. Alsazia

1.870, Filipinetan 1.898.

3 - Eskolako lege-hizkuntza eskuarki hitzegiten dute haur batzuek, baina beste batzuek beste bat dute, eta batez beste bigarren hizkuntza ongi xamar ezagutzen da, edo guztiz ongi; hauxe da maiz gertatzen dena aurrerago joanak diren politika-zapalketetan.

4 - Giroko bi hizkuntzen paretasuna legean, dela antolamendu politiko baten ondorioz —Kataluñaren kasoa 1.932-ko Estatutoan— dela bilketaren gertakarian egiten den amoremate gisa - - - hauxe da Ipar-Ameriketako eskola batzutan gaztelararen egoera inglesaren ondoan, Mexico-ren ondoan.

5 - Bada azkenik, kaso bitxia hau, kanpotik etorritako haurren eskolen kasoa, eta hau ez da gertatzen bi herrien arteko egoera horrela gertatzen denean.

Maiz iturburu asko du eskolaren bimintzotasunak, eta eskualde berean maila eta doi desberdinak izaten ditu.

Mami politikoa duten bimintzotasun-egoerak alde batera utzita, honi deritzagu guk eskolako berezko bimintzotasuna: eskola berean haurrak hizkuntza batean edo bestean eskola badaitzke, biek legearen aurrean errespetu berberaren hartzailerak, eta helburutzat, bai batean bai bestean, herrialdeak etorkizunean eskatuko dion hizkuntza-jabetasuna lortzeko bidean eskaintzaile.

Agertzen den problema nagusia, Psiko-pedagogikoa, hau da: nola egin giroko hizkuntza-bitasunak eta heziketarenak elkar kalte ez dezaten; aitzitik, kultura berrien sarrera emanaz, eta denbora berean haurra bere giza-elkartean bertan hobeki paratuz.

Soluzio hori lortzeko. hauek dira psikologiari dagozkion erabakiak:

1 - Hizkuntza hau eta hura hitzegiten duten haurrak, elkarrengana ongi biltzea psikologiaren mailan; ez bide komeni elkargandik bereztea, ezta izen berezi batez deitzea: “castellans”, esate baterako, gaztelaraz Kataluñan mintzo diren haurrak izendatzeko.

2 - Giro bi hizkuntzen ikasketa sistemaz egitea, beti ere haurren adinaren arabera, bai lotura bat egiteko bien artean oso hizkuntza desberdinak direnean —galesa eta inglesa— bai antzeko direnen artean nahasketak baztertzeke: katalana eta

gaztelera, esate baterako.

3 - Hizkuntzaren heziketak gainditu behar dituen eragospenak sistemaz taxutzea:

- a) hazkunde pertsonala eta elkarrizketa segurtatzekotan, egiturak eta hiztegia ongi finkatzea;
- b) irakurtzen eta idazten ikastea;
- d) hizkuntzaren eta gramatikaren ikaspen jenerala hastea;
- e) modu pertsonalak lortu, bizi-gertakarien arabera egokitua: lana, ikasketak, jolasak, eta abar.

Urrats horietako bakoitzean badirudi egokia dela lehenengo pausua ematea, zailtasun berria gainditzea, eta gainditua izan delarik, bigarren hizkuntzan gauza bera ikastea.

4 - Eskolako tresneriaren parte bat egitea (liburu, diapositiba, banda) eginkizunak erraztu beharrez.

5 - Bimintzotasuna eskolan erabiltzen den lekuetan, egiazko heziketa sakon bat erakasleen taldean.

ANTZINAKO PEDAGOGIA

Gizartea : - tradizioa / nagusitutako ordenua / kontserbadorekeria

Gizona : - aldez aurretik emandako eredu baten arabera ados / nagusitutako ordenuari bai.

- Ezaguerak hedatzea / Nagusitutako gizarte-kerak batetan egokitutako pertsonen heziketa.
- Moldaketa, egokikuntza, asimilazio / baterakuntza moldearen arabera
- Ereduari hurbiltzeko tresna diren ikasketak klasikoak
- Diplomak gidari
- Ikastaroa / Ariketak
- Erregelak, araudiak / Lizifrina, zigorra.
- Ikaspedia ikasleari nagusitua / Ikaslea erakaslearen menpean.

PEDADOGI BERRIA

- Gizartea : - aurrerapena / eskubideen paretasunean eta parte-
-hartzean finkatzen dira erakaspide berriak
- Pertsona : Askatasuna / Bultzada, erantzukizuna / Nortasuna-
ren hazkundera
- Nortasuna hazi
 - gizartearen aldakuntzak sinesteko eta bultzatzeko jokabideen alde
 - Autonomia / Bultzamena / Erantzukizuna / Ekintza
 - Gizonari eta gizadiari buruzko ezaguera asko
 - Lan-bideak eta enziklopedismoa
 - Talde-lana / Ekintza eta sortzapena dakarten lanak / Erakaspideen aniztasuna (begi-belarrizkoa, eta abar)
 - Autonomia, autojesteioaren alde
 - Erakasleen eta ikasleen arteko elkar-laguntza
 - Erakaskintzaren mamiaz ikasleek beren iritzia ematen, baita erakaspideen aukeran eta heziketaren kontrolean.

HELBURU NAGUSIAK

- Gizarteari buruzko asmoen izanaz.
- Pertsonari buruzko ideiak

PEDAGOGI - HELBURUAK

- Heziketa-lanen ondorioz zer nahi da pertsonarentzako.
Pedagogi-bideak // Barnea // Bideak // Instituzioak
Jokabideak.

ESKOLA EGILEAREN KRONOLOGIA BATEN LAGUNTZAN

Heziketa berriaren mogimenduaren egiazko jatorria KIK-mendeko azkenaldian jarri behar da.

Ez da Rousseau egiazko aintzindaria. Beharbada —dio Renzo Titonek, Planchard segituz — XVIII mendearen bukaeran beharko litzake jarri, edo XIX-mendearen haseran: lehenengo mailako erakaskuntzaz, Dr. Itard, Condillac-en ikasle bat; eta beranduxeago Eduard Seguin, anormalen pedagogiaren sortzailea.

Gero Pestalozzi eta Froebel izan dira gaurko pedagogian barrena zuzenki sartu gaituztenak.

Eta badago sistematzailerik bat : Herbart.

Beste aldetik eskola berriekin lotura egiten diguten izen batzuk daude: San Joan Bosco, Leon Tolstoi, Francis Weyland Parker (John Dewey-engan bere eragina izango baitu), eta Rabindranath Tagore.

Baina “ mogimenduaren hastapen gisa, eskola-instituzioen jaiotza da, hauetan teori-egile horiek proposatutako ideiak pratikan jarri direlarik ” (Planchard). Eta hemen, jakina, “ teori-egile ” gisa goraxeago aipatutako izen horiek hartu behar dira.

Pedagogia berriak geografi-hedadura zabala du.

Esan dezagun ere, bidenabar, eragile batzuen bateratasunak sortu dituela eskola berriok XIX-mendeaz geroztik:

- psikologi-ikaspenen ugalketak (psikologiaren haroa, eta entseguzko pedagogiarena)
- erakaspideei dagokionez, eskola zaharraren kontrako matxinada;

- Geldikeriari eta “ puntuzko ” kutsukoi dagokionez, eskola zaharraren kontrako joera.

(“ E.B.” letrez “ Eskola Berria ” adierazi nahi dugu aurrerakoan)

Kronologia

- España : 1888 : Granadan, A, Andrés Manjonek " Ave Maria "ren eskolaiak sortu zituen. Eta beste bat gogorazi behar litzake era berean :
F.Giner de los Rios-ek, 1878-an, Madrillen sortu zuen Institución Libre de Enseñanza delakoa.
- Inglaterra, 1889 : Edith Reddiek Abbostholme-ko eskola sortu zuen, eta hau da eskola inglesen " eskola ama" (E.B. honek eskola berrien ezagugarri diren 22 puntu onartuko ditu, 30-tatik)
- Inglaterra, 1893 : E.H. Badleyk Bedales-ko E.B.
- Italia, 1894 : Brescian Agazzi anaiek Liliitegi bat sortu dute Froebel-en eraginaren azpian. Bartzelonako italiar eskolan, Agazziren erakaspideak Montessori-erakaspideen aldeko lehen urrats gisa hartzen dira.
- Alemania, 1896 : Ilsenbergen (Harz-en) " Landerziehungsheim " edo Nekazaritza-Eskola sortu zuen Lietz-ek.
- Erresuma batzuk 1896: John Diewey-k, Txikago-ko Unibertsidadearen eras-
kin gisa, Entseguzko Eskola.
- Frantzia, 1899 : Paris-en ondoan, Verneuil-en, Démolins-ek " Ecole des Roches " delakoa (honek 30-tatik 17-puntu onartu zituen)
- Suiza, 1899 : Génèven Adolf Ferrièrek "Bureau International des Ecoles Nouvelles "; eta hauen helburutzat, eskola berrien arteko harremanak eta ortodoxia berriaren zaintzea.
- Bartzelona, 1905 : Paul Vila Dinares-ek, Mercaders-kalean, " Escola Horaciana " delakoa, Bartzelona zaharraren muinean
- Bartzelona, 1906 : Joan Bardinak "Escola de Mestres" delakoa (hor
dira Alexandre Gali erakasle, eta Artur Martorell ikasle)
- Belgika, 1907 : Ovidi Décrolyk, " L 'Ermitage ".
- Italia, 1907 : Maria montessorik, Erroman, "Case dei Bambini".
- Bartzelona, 1908 : Joan Palau Verak "Collegi Mont d' Or ".
- Alemania, 1910 : Oberhambach-en Paul Geheeb-ek " Odenwaldschule" delakoa sortu (E.B. hau izan zen 30 puntuak ontzat eman zituen bakarra)
Geheeb Gustav Wynnecken-ekin izana zen, eta hauxe izan zen Alemaniako mogimendu gaztezaletaren bul-
tztatzailea; baina aipatutako eskola hori eraikitzeko berezi zan harengandik. Nazi-tarrak agintera iristean, Suizara aldegin behar izan zuen Geheeb-ek.
- Alemania, 1910 : Munich-eko Udaletxeko eskolen kontseilari izendatua

- Georg Kerschensteiner (honen esalea: " kitto Buchsuler, betoz Arbeitschule ", alegia, kito liburu-eskolak, eta gora lan-eskolak)
 Alemaniako eskola ofizialean Eskola Berriaren joerak sar-erazten Kerschensteiner izan zen gehienik saiatu zena.
- Bartzelona, 1910 : "Mont d'Or" deritzan eskola, E.B.aren joerak hobeki erabiltzeko, Tarrasa-ra aldatu zen, ikasleak egun osoko sisteman atxikiz.
- Bartzelona, 1910 : Tarrasa-ra ez zihoazen ikasleak bere gain hartuz, 1910-tik 1913-ra arte Bartzelonako "Nou Collegi Mont d'Or" delakoaz arduratu zen Manuel Ainaud.
- Bartzelona, 1910 : Alexandre Galik, Tarrasan, " Vallparadis" eskola.
 Italia, 1911 : Milan-go Ghisolfi deritzan inguru-hauzoan, bere eskola berritua sortu zuen Guiseppina Pizzigonik, gero Lombardo Radice pedagogilari ezagunak biziki betetsia.
- Suiza, 1912 : Institut Rousseau sortu Claparède (Heziketaren Jakintzen Ikasgua, Ginebrako Unibertsitateari atxikia.
- Belgika, 1912 : Faria de Vasconcelos-ek, Bierges-lés-Wavre-ko eskola (laburzki iraundu, 1914-ko gudura arte.)
- Bartzelona, 1914 : Udaletxeko eskola bat. Escola del Bosc, Rosa Sensat-en zuzendaritzapean. Eskola osoki eguratsean emana, lehenengoa barano horretan.
- Bartzelona, 1914 : : Lehendabiziko " Uda-Eskola ".
- Bartzelona, 1915 : Montessori herri-eskola (Casals andereñoak)
- Bartzelona, 1919 : Estudis Normals de la Mancomunitat de Catalunya. Gure ikasleak, guregana bilduak, giza eta pedagogi-heziketa goren bat hartu zuten hiru urtez. Militar Agintearen etorreran (1923) suntsitu egin ziren.
- Bartzelona, 1919 : Artur Martorellek, zuzendari gisa, "Patronat Domech " herri-eskolak.
- Erresuma batuak, 1920: Txikagoko ingurune den Winnetka hauzoan Carlton Washburnek bere " Eskola planean ari" sortu.
- Errusia, 1920 : Anton Makarenkok, Poltovako " Colonia Gorki " delakoa (utzitako mutidentzako, eta gaiztaginentzako)
- Errusia, 1921 : Calais-en Eskola Berrien Biltzar Nagusia, E.B.aren 29 puntu onartuak izanik (30-gana.1925-**ez geroztik onartua**). Puntu horiek oso ongi aldera dakizkiote Artur Martorellek bere " Cómo realizar prácticamente una escuela nueva" liburuan agertzennduenari. (Edit.Terra Nova, 30 orr.;eta Planchard-en liburuan ere atxeman daitezke)

- Bartzelona, 1921 : Pere Vergès-ek zuzendua, " Escola del Mar "
- Bartzelona, 1922 : " Butlleti des Mestres " agertzen hasten da.
- Suiza, 1923 : Audemars andereñoa, " Maison des Tetits "
- Italia, 1924 : Maria Boschetti Albertik, Agnon, " Scuola Serena " delakoa, baserri-eskola, zenbaitek eskola berriaren eredu gisa aurkeztua.
- Bartzelona, 1924 : Alexandre Galik, " Mutua Escolar Blanquerna " delakoa (Montessori herri-eskolarekin batera, Dictadura-ren garaian, hetsarazia)

BIBLIOGRAFIA APUR BAT

- " Introducción al estudio de la Escuela Nueva ", Edit. Kapelusz, Buenos Aires, 1964.
- " La Pedagogía Contemporánea ", Emile Planchard, Ed. Rialp, Madrid 1956
- " Metodología Didáctica ", Renzo Titone, Ed. Rialp, Madrid 1966
- " Qué es la educación nueva ? ", Roger Cousinet, Ed. Kapelusz- Buenos Aires 1959 (Ez dugu beste libururik aipatuko Eskola Berriaz; baina, beste aldetik, badaude Pedagogiaren Kondairari buruzko liburu nagusiak) Kataluñari dagokionez, hauek ikus daitezke. :
- " L'educació Primària Oficial a Barcelona en el primer terç de segle artikulua, Artur Martorell, " Criterion " aldizkaria, 20 zb.
- " Cómo realizar prácticamente una escuela nueva ", Artur Martorell, Ed. Nova Terra, " Tiempo de hacer " sortan 1965-X- III atala
- " Carroll Atkinson eta Eugene Maleska-ren " Historia de la Educación " liburuari erantsitako eraskina, Ed. Mz. Roca, Bartzelona, 1966- I, Jordi Mones eta R. Griño-ren itzulpena. Eraskina J. Monés-ena da (429 - 434). Mones hauxe ari da prestatzen, " Ediciones 62 " delako-arentzako, Kataluñako erakaskintzaz lan bat.
- " L'Escola pública de Barcelona i el Mètode Montessori ", 1933- III- koa, Bartzelonako Kultura-sailak prestatua; eta, segurki, beste lan anitz bezala, Artur Martorell-ek idatzia.
- " Joan Badina i l'Escola de Mestres ", Artur Martorell-ena, " Miscel·lànica Fontserè ", Ed. Gustavo Gili, Barcelona 1961, 259 - 276 orr. (separata gisa ere aurki daiteke).

ESKOLA BERRIAREN 30 PUNTUAK1 - Pedagogi Pratiakoaren Entsegu-lekua da Eskola Berria

A - Erresumako eskola ofizialen berritzailea denez, Eskola Berriak bidea zabaltzen du, erakaspide berrien ona erakutsiz.

B - Eskola honek haurren psikologia eta gorputzaren beharrak, baita haurren izpiritu-mota, hartzen ditu gidari.

D - Biziera modernuari egokitu nahi dizkio ikazleak, beharrezko diren oinarri materialak eta moralak emanaz.

2 - Eskola Berria barnetxe bat da, internado bat alegia.

A - Inguramenduaren eragin osoaren bidez, eta ez bestela, lor daiteke heziketa osoa.

B - Eskola Berriak, batez ere, heziketa gaurko zientziaren arabera eman ez dezaketen famelien haurrak ditu gogoan.

D - Famelia eta gizarte-bizien arteko zubi izan nahi du, haurrek beren oldezko joeren arabera bil daitezzen berariazko "famelià" berritan.

3 - Eskola Berria mendialdean dago.

A - Mendialdea, landa, horra hor haurrari dagokion berezko giroa. Hantxe aurkitzen du bere kirio-sistemak behar duen lasaitasuna.

B - Gizon arkaikoaren entretenigarriak aurki ditzake han, eta nekazaritza-lanak.

D - Gaztetxoentzako egokia da hiri baten hurbiltzasuna, bai adimenarentzako bai arte-heziketarentzako (erakustoki, kontzertu, e. a.)

4 - Eskola Berriak talde berezitan banatzen ditu bere ikasleak.

A - Hamabost ikasleren taldeak, materiak eta moralki, an-dereño edo maisu baten zuzendaritzapean bizi dira.

B - Mutilen heziketan ez dira emakumezkoak baztertu behar, ezta neskatilen heziketan gizonezkoena.

D - Taxua eta adiskidetasunezko harremanak ez dira posible talde txikitik baizik.

5 - Eskola Berriak, eskuarki, bi setsuen bateratasuna erabiltzen du.

A - Lehenengo haurtzarotik elkarrekin heziak, baina nor bere setsuaren arabera hezia, lagun gisa bizi dira neska-mutilak.

B - Baterako heziketa horretarako egoki ez direnak, edo heziketa hori egoki ez doakiena, baztarrean uzten dira.

D - Patologiazko " atzerakundeak " baztertuz, heziketa honek eztai osasuntsu eta zorionekoak prestatzen ditu.

6 - Eskola Berriak esku-lanak antolatzen ditu

A - Ikasle guztientzako dira lan horiek nahi-ta-etzkoaz, eta eskuarki arratsaldeko ordu bietatik lauetera egiten dira.

B - Lan horiek ez dute helburutzat profesiozko asmorik, heziketa-bide diren aldetik baizik.

D - Hautatutako lanek badute, pertsonarentzako eta gizartearentzako, balio egiazkoa.

7 - Eskola Berriak garrantzi handia ezartzen du ondoko gauzetan :

A - Zurgintza, honek hazten baititu :

a) Eskuen trebezia eta segurantzia

b) Oharketa zehatzaren sena

d) Jatortasuna eta geure buruarekiko segurantzia

B - Lur - Lana :

a) Izadiarekiko harremana

b) Izadiaren legeen ezaguera

d) soin-osasuna eta azkartasuna

e) Lehen mailako balioa

D - Hazkuntza, abere handiena ez bada ere, txikiena bederen :

a) gu baino txikiago diren bizidunak babesten

b) iraupen-ohiturak

d) zientzi-oharketak egin daitezke

e) baliotasuna

8 - Eskola Berriak oldezko lanak eginarazten dizkie haurrei

A - Ikasleen lanak oinarri, txapelketak eta erakusketak egiten.

B - Norberaren joeran sustatzen.

D - Bultzamenaren hazkundera, hautatu-beharra bortxatuz, baina aukeratzeko askatasun osoan.

- 9 - Eskola Berriak, berezko jinastikaren bidez, gorputzaren hazkundera hahi du.
- A - Gerritik gora biloizik egina (honela aidearen mainua osoa izan dedin) gorputza zailtzen du, eta barnekoiak kanpora-arazten ditu.
 - B - Giharren malgutasuna ematen du, baita trebezia, eta hau guztia haurra aspertu gabe.
 - D - Jokoari eta kirolei erants dakieke.
- 10 - Eskola Berriak oinezko edo Txirringazko bidaia bultzatzen ditu, baita dendekiko eta eguratseko kanpamentoak.
- A - Aldez aurretik prestatzen dira txango hauek, eta bidean notak hartzen dira.
 - B - Ikaskizunen osagarri gisa: bertako geografia edo atzerikoa, oroitarrien ikusladia, lantegi, eta abar.
 - D - Indar fisikoaren lanketa, zailketa, eta elkar laguntzaren ikaspena.
- 11 - Eskola Berriaren iritiz juzkamena eta adimena lantzen dira jakintza zabalean.
- A - Zientzi-bidea : oharketa, hipotesia, frogaketa, legea.
 - B - Beharrezko diren ikaskizunen mordiak heziketa osoa egiten du.
 - D - Kito ikaspen entziklopedikoak, denak buruz; baizik-eta ingurunean eta liburuetan aurkitzeko ohitura hartzen lagundu. Eta horrela, barnetik kanpora, berezko dohainak hezteko.
- 12 - Eskola Berriak berezkuntza edo espazializazio bat erasten dio jakintza zabal jeneralari.
- A - Aukera libroko ikastaro bereziak, baina hautatzeko beharrezkoak.
 - B - Hastapenean, oldezko berezkuntza : haur bakoitzaren joera berezkoen lanketa.
 - D - Gero, gogoetazko berezkuntza, berariazko espezializazioa : sistemakiro haziko dira gazteen gogoak eta dohainak, lanbide bati buruz.

13 - Eskola Berriak eginetan eta saiakuntzan funtsatzen du bere bere erakaspena.

- A - Giza-langintzen eta gizarte-antolamenduen oharketak.
- B - Izadiaren oharketa pertsonalak.
- D - Zientzisaioak hazkuntzan eta lur-lantzean, eta entsegu-
-lekuko lanak; Haurrarekin nolatasunezko lanak, gazte-
arekin zenbatasunezkoak.

14 - Eskola Berriak haurraren beraren ekintza pertsonala hartzen du laguntzaile.

- A - Ikaspen abstraktorik gehienei, lan zehatz konkretu bat erasten.
- B - Ikas-sail guztietan, marrazkia laguntzaile.
- D - Esanik dago : jakitea aldeztatik aurretik somatzen da. Bidezkoago litzake beste hau : jakitea ahal-izatea da.

15 - Eskola Berriak haurraren oldezko interesak hartzen ditu bere betekizunaren oinarri gisa :

- A - Lehendabiziko haurtzarora: lau urtetatik sei urtetara. Interesak sakabanaturik daude, jokoaren adina da.
- B - Bigarren haurtzarora: zazpi urtetatik bederatzi urtetara. Bertako gauza konkretokiko interesen adina da. Hamar urtetatik hamabi urtetara: monografiaren adina, gai berezietako interesen adina.
- D - Lehen gaztarora : hamairutatik hamabostetara, interes abstraktoen adina, baina enpirismoan. Hamaseitatik hemezortzitarara : interes abstrakto eta zailekiko interesaren adina. Geroko aitaren prestaera, ekonomista pribatua.

16 - Eskola Berriak ikasleen lan pertsonalaren laguntza eskatzen du.

- A - Dokumentu-azterketa (eginetan, gertakarietan, liburuetan , egunkarietan, erakustokietan)
- B - Dokumentoen taxuketa (sailka, fitxak)
- D - Dokumentoen prestaera pertsonala (ingurrazti edertzatuak, sailen ilara logikoa, lan pertsonalak, hitzaldi.

17 - Eskola Berriak ikasleen talde-lana eskatzen du

- A - Haurrek nork bere bidetik ekarritakoa, elkartu.
- B - Bai denboran bai espazioan gai azalduarekin lotura duten elkarpedeak egin;
- D - Balioaren alderdiak nabarmenerazi (haurrekin), eta zientzi-sistemaketarena (gazteekin)

18 - Eskola Berrian erakaskuntza bera goizean ez beste inoiz egiten da.

- A - Zortiztetatik hamabietara lau ordu daude. Astean hogeita-lau ordu, beraz, aski eta sobera dira lan trinkoa (eta ez luzea nahi-ta-ez) egiteko.
- B - Lautetatik seietara ba daude bi laurden, lan pertsonala egiteko; ttikientzako ikaspenik ez, erdikoentzako berreturazko ikaspenak, eta handientzako borobilketa lana.
- D - Horrez gain, ikasgela askotan bihurtuko da entsegu-leku edo erakustoki, eta gutxitan abstrazio hutsaren saialeku.

19 - Eskola Berrian ikas-sail gutxi ikasten da egunean egunekoa.

- A - Isakizunen zatiketak ez dio interesari eusten.
- B - Desberdintasuna ez da gaietan beretan sortzen, baina gaiak aztertzeke moduan.
- D - Trinkotasun handiak frutu ugariago dakar; frutu gehiago eta alferrikako ahalegin gutxiago.

21 - Eskola Berriak eskola-errepublika bat sortzen du zenbait aldiz.

- A - Eskolako biziari dagozkion erabaki larriak oro, denen Biltzar nagusiak hartzen ditu.
- B - Norberaren izpiritu-aurrerapena gizarteari buruz lana taxutzeke tresna bat dira legeak.
- D - Sistema honek, jakina, errepublika txiki horretarako " zuzentzaileen " ganean erakasleak eragina baduela erakusten du.

22 - Eskola Berriak buruzagien hautaketa egiten du.

- A - Buruzagi horiek badute erantzukizun berezia, eta hau oso on zaie beren heziketari dagokionez.
- B - Haurrek beren artetik hautatutako buruzagia zuzenduak izatea nahiago dute, nagusiek zuzentzea baino.
- D - Horrela erakasleek lizifrina-arazoetatik libro ikusten dituzte beren buruak, eta osoki har dezakete beren gain ikasleen adimen eta gizabidezko aurrerapena.

23 - Eskola Berriak gizarte-postuak eskaintzen dizkie ikasleei.

- A - Bakoitzak bere laguntza egiazkoa eskainiko du denaren martxa onerako.
- B - Batasunaren ikaspena, eta elkarrentzako laguntza.
- D - Gaiak hautatzen dira, eta buruzagi jartzen.

24 - Eskola Berriak saria erabiltzen du (aldeko juzkua)

- A - Izipiritu sortzaileei okasio berriak eskaini eta beren sormena azkartzeko tresnak ematen dautza sariak.
- B - Sariak oldezko lanei ematen zaizkie, ez besteri, eta honela bultzamena sustatzen dute.
- D - Burrukan eta antzekoetan oinarritutako saririk ez dago. Jokoetan sari bakarra garaitzapenaren merezimendua da.

25 - Eskola Berriak zigorra erabiltzen du (aurkako juzkua)

- A - Ahalean, zigorrek eta egindako hursa elkarren arabera daude.
- B - Bide egokiak emanez, hauxe da zigorra bilatzen duen helburua: lortu ez duen xedea lor-eraztea, edo erdizka baizik burutu ez duena arras buka ahal izatea.
- D - Kaso larrietan ez dago araudian horretarako zigorrik, aldezturik makurturik alegia, eta ez dago nagusiak haurrari eman dizaiokan ekintza moralaz besterik.

26 - Eskola Berriak elkarren lehia joko gisa presentatzen du

- A - Elkarrentzako laguntzak, oldezko serbitzuak eskaintzera eraman dezakean neurrian, eragin handia izan dezake.

- B - Kaso honetan ez bestetan eraman daiteke, nahi bada, nota-bilduma bat edo araberako neurketak.
- D - Gainerako kaso guztietan, haur baten lanak ez dira inolaz ere beste haurren lanekin alderatu behar, haur berorren lehenagoko lanekin baizik.

27 - Eskola Berriak arte-giro bat izan behar du.

- A - Hori dela-ta, lehen-lehen puntua ordenua da, arrimua, taxua.
- B - Esku-lanek, eta batez ere eskola hauetan egiten diren industri-lanek, edo-ta mota horretako beste lanek ere, laguntza bikaina ematen dute eskola-barruko giroa edertzen.
- D - Artearen lan nagusiekiko harremanek, azkenik, eta dohainik onenak dituzten ikasleei dagozkielarik arte hutsaren, praktikak, izpirituaren arte-egarriaren behar-ak betetzen dituzte.

28 - Eskola Berriak talde-musika lantzen du.

- A - Bazkal ondóan egunero obra nagusiak entzunaraziz
- B - Egunero koru-kantuak eginez.
- D - Orkestra praktikatzuz. Sendimenduaren mailako ekintza hauek eragin sakon eta garbitzailea dute musika maila dutenengan, eta piztutzen dituen zirrarak direla kausa barnekorrago egiten ditu denen arteko harremanak.

29 - Eskola Berriak gizabidea eta kontzientzia morala hezten ditu

- A - Arratsaldeko haurrekin egiazko edo alegiazko bizi-erari buruzko irakurgaiak edo pasadizuak eginez.
- B - Berezko gizabidearen aldetik oldezko erantzunak erakarriz; hots, berezko kontzientzia edo gizabide hori da balioen juje nagusia.
- D - Pratikari horrela balio-irizpide horiei atxikiz, horiek beren kontzientzia funtsatuz eta ongiaren aldera jo-eraziz.

30 - Eskola Berriak adimen praktikoa eskolatzen du

- A - Izpirituaren aurrerapenaren legeei buruz (pertsonarenak edo gizartearenak) gogoetak eta azterketak piztuz.
- B - Gogoeta horiei, alde batetik biologia, psikologia eta fisiologia erantsiz; eta bestetik Kondaira eta soziologia.
- D - Pentsamenduaren bizi guztia izpirituaren indarkuntzaren aldera erakarriz; alegia, erlijioa sinetsi ala ez sinetsi, erlijiozko heziketa.

Horra hor, beraz, hogeita-hamar puntu famatuak; 1921-an presentatu zituen hauek Calais-ko Eskola Berrien Biltzarrean Adolf Ferrièrerek; eta horietxek dira Eskola Berrien “ araudi minimoa ”. Garai haietan aski zen horren % 50 betetzea, “ Bureau International des Ecoles Nouvelles ” delakoak eskola hori “ berri”-tzat har zezan. Instituzio hau Ferrièrerek berak sortu zuen 1.899-an, eskolen arteko harremanak mamitzeko eta ortodoxia berria zaintzeko. Halaz ere gutxienez araudi minimo bat denek betetzea beharrezkotzat jotzen zen; eta ondoko hau zen gakoa: mendian ezarritako fameli-eskola bat izatea; eta honetan haurraren esperentzia bera izan zedila heziketa intelaktuaren eta moralaren oinarria—esku-lanak baliatuz bereziki— eta ikasleen hala-holako autonomiaren teoria erabiliz.

Paul Geheeb-ek Odenwalden (1910, Alemania) zedukan eskola kenduz gero, beste batek ere ez zituen 30 puntuak onartu. Ilsenburg-en (Alemania, 1.896 — Herman Lietz-ek zedukan eskolak 22 puntu; E.H. Badley-k Bedales-en (Ingalaterra, 1.893) zuzentzen zuen eskolan 55 puntu; Cecil Reddiek Abbotsholmen (Ingalaterra, 1.889) zuzentzen zuenak, 22 puntu et’erdi.

Ferrièrerek berak oharrazi zuen, halere, eskola bakoitzaren balioa ez zela puntu-kopuru arazo huts bat; baizik-eta, batez ere, zion berak, eskolako arduradunek jartzen zuten giro moral eta psikologikoan, eta dena haurraren izpiritu-indarraren emendio-kontua.


Ez dut uste pedagogi-araudi bikain hori saltzea denik puntu horietxen ulertzeko moldeaz mintzatzea, edo haien

irakurreran nabaritzen den garai hartako kutsu apur bat salatzea. Gauza bat esan behar da halere: ez zituela Ferrièrerek teoriiazki denak ilaran eman, baina bildu egin zituela han eta hemen, bere garaiko eskotetan uzta eginez.

“ Cómo realizar una escuela nueva ” liburuan Martorell-ek hau diosku: “ ezta ezinbestezko puntutzat eskola mendialdean egotea eta antolamendua internado gisa ikusi nahi dutenek berek, ez dute ukatu baldintza horiek bete gabe ere —batzutan ezin beteak— eskola batzuk Eskola Berritzat har daitezkeala. Berrikuntza-nahiari eusten diotenak dira, haurraren psikologiari men-egin nahi diotenak, auto-heziketaren jokera onartzen dutenak, elkar-laguntza eta auto-gobernua onartzen dutenak, eta jokabide berri horiek eskola herrikoietara eta partikularetara eramán dutenak ”.

HEZIKETAREN GIZARTE-KURRIBIDEA

Ondoko kurrubide honetan ezar dezagun heziketa. Horretan gizarte-sistema gisa ageri da heziketa, eta nahasten zaizkion parte pertsonalak erantsita.



Haurra Gizartean sartuta bizi da, nagusiaren munduko eragin zuzenean, eta delako Gizarte horren baldinkizunen barruan. Tartetako lerroak Haurraren heziketa aproposaren iaragaz-garritasuna adierazten du.

Badira ere heziketan berariazko sistemak ere (eskolakoak eta eskola ondokoak), ongi mugatuak eta ezagunak (lerro jarraikia) eta Haurraren munduan ere berezi batera ari dira. Karraztutako geziek oso axaletik adierazten dute kurrubidea zer aldetara egiten den; beste gezi asko marraztu beharko dugu, eta tarte bakoitzean aongi aztertu. Horixe da egin gogo duguna.

GURE ESKOLAREN PROBLEMATIKA

Mogimendu baten hastapeneko Agiria da 30 puntuen argitaraketa: Pedagogia egilearena. Hau aldatu egin da gero, bestelakatu egin da bere barruan, eta azkenean eskola batzuk sortu ditu.

Horrengatik iruditzen zaigu oso inportantea gure egoera puntu horiei buruz garbi uztea.

Gaur 1.972-an, eta Lege Berria ematerakoan, alegia Arau Berrien sortzerakoan, geure artean honela bil genezake egoera:

a) Puntu guztien aurretik, Eskola gizarteari egiten zaien zerbitzu gisa funtsatuko genuke. Pratikari buruzko gogoeta bat da, eta zientzi-sistematika baten ondorio; eta, jakina, eskola moten arabera baditu ondorio politikoak.

b) Egiatzko Giza-Pedagogia bat eraikitzeko, gizonaren ezaguera sakondu egin behar dela ikusten dugu.

d) Horren ondoren beste arazo hau ikusten dugu: Erakaslearen Etengabeko Heziketaren beharra, eta irizpidetzat hau hartuz: jokabide berriak eta gure eskola-pratika alderatzetik, oraingo geure ahalmenetatik eta ahalmen edo aukera horien emendiotik (baldin badago) :esperientzien truke, saiatzeko aukerak, berriz gidatzeko era.

e) Erakaslearen heziketa pertsonalak garbi ezin ditzakeen arazoak ere baditugu: ordubide-kontuak, zabalera koak, ikastaldekoak, eskola barruko mogimenduetakoa, diru-kontuak, pertsonen antolamendua, elkar-laguntza, eskolaren batasunari buruzkoak.

Hitz batez, eskola berriaren eraikuntzaren arazoa dugu gainean, kulturaren egoera gaititu eta aukera berriak eskainiko dituen. Nola lagun dezakegu moldatzen eta osatzen, erakaslearen egoera kontutan hartuz: ogibide den

aldetik, eta lagundi-lanarenetik? Hogeita-hamar puntu-ek, jokabide berriek, geure lanak berak, irudi bat ematen digute; baina zein dira erakaslearen aukerak horren barruan?

f) Badugu ere betiko arazoa, eskolan dugun haurraren ezaguerarena, haur bakoitzaren ezaguerarena, eta arazo honek baditu bere maratillak.

Edozer baino lehenago, psikologiazko ezagueraren emendioa eta ezaguera horren aplikazioena; baina baita joera desberdinetako psikologoengandik datorkigun arazoa. Badugu gero ere ERPA delakoa garaiz eta ongi betetzeko arazoa (haurraren txosten psiko-pedagogikoa, alegia). Txostenak haurra lagunduko du noranahi; eta gurasoentzako ohar batzukin laguntzea hobe, eta gauza bera beste erakasleentzako. Horrela gure ohar horiek ez dira leku-hetsian galduko, baina aukera-sorta zabalduko dute.

Erakasleak haurraz izango duen iritzia, zientzi-bideirik oratu behar du, eta eragile eta aukera berrien gidatzaile. Eskolaren barruan, eta kanpoan gauza bera, zer egin behar dugu lortzeko?

Erakaslearen aldetik ikastaldearen dinamika da haurraren ezagueraren alderdi bat. Urtero aldatuko zaigu geurekin dugun ikasle-taldea, eta bakoitzak bere tankera izango du pertsonenez eta talde gisa. Dinamika hori ezaguera egilearen oinarri bat ez-ezik, beharbada oinarririk inportantea izango da ere haurrentzako funtsabide gisa, eta horitaz, haurren heziketarentzako.

Dinamika horretan barrena nola aurrera, horra hor gure arazoetako bat.

Eta, azkenean, nola joka eragozpenak dituen haurrari buruz?

g) Eskolara datozkigun haurrei begira dizaiegun .

Jakin badakite beren artean oso desberdinak direla, eta ikastaldean banan-banan hartu behar direla; baina gizartelege batzuk aurkitu ditugu, eta hauek hein batean bederen desberdintasun horiek argitzen dituzte. Horrela aurkitu dugu, esate baterako, eskolako uztak eta etxeko kultura-mailak badutela lotkia bat, alegia, kultura-mailaren eta sozio-ekonomi-mailaren artean. Ez hori bakarrik. Badago bildurra ondoko herrietan gertatu dena gure herrian ere berdin gerta dedin. Eskola batek, hau da, eginkizun-araudi batek areago laguntzen ditu batzuk beste batzuk baino, eta area go ere bi talde nagusitan banatzen laguntzen du: alde batetik gutxiengo edo minoria bat, bere aukerak obratuko dituen, agindu eta eskola egin ere egingo duena; eta beste -tik, gehiengo edo maioria bat, bere aukerak alferrik hondatzen ikusiko dituen.

Honen arabera, hortaz, bai gizarte-jatorri desberdinetako haurrak baldin baditugu (eta honek badu zer-ikusirik lekuarekin eta eskolaren finantzaerarekin), eta bai jatorri berekoak baldin baditugu, galdera bat egin behar digu geure buruari: ia eskolako lanak beti bide beretik programatuz laguntzen ote duen gauzko haurrak nortzen eta osatzen, antzinakoen aurka hau eta gaurko nagusiengandik urrun beraz, baita gizarteari buruz babesa emanez; edo, alderantziz, problemari aurre eginaz, eta baita eskolaren barruan ere gizarte aldakuntzak lagunduz.

Goazen orain 30 puntuak zehatz ikustera:

- 1.- Pedagogiaren geldikeriaren kontrako babes gisa onartzen dugu.
- 2.- Gure artean guraso-erakasle harremanetara bildu da (haurrarenoharketa-txartela, txostenak eta gurasoekiko elkarrizketak), baina barnetasun edo barne-bizibeharra arbuiautz halere. Ordezkaritzaren arazoa badago ere,

familia gizartekiro ahula delarik eskolak familiaren bete - kizunak bere gain hartzen dituean. (Barbiana).

3.- Oso garrantzitsutzat dadukagu kanpotikako eraginen indarren gorakada, eta zinez hartu bekarra dago arazo, zehazkiago mintzatzeko zabalkunde-bideak haurraren gan uzten duten kutsua. Erakasleak ezin dezake eragin hau alde batera utz, haurraren bidez eskolaraino sartzen baita; baina gure artean kaltegarritzat jo dezake eragin hori, nahiz berez oso ona izan bazitekean ere.

Zer bide du erakasleak haurrak ausarki kontra egin dizaion eragin horri?

4.- Beti ere azaltzen da problema berbera: zenbat ikasle erakasle batentzako? Eta hemen zail da ezkontzen pedagogiaren eta gizartearen beharrak.

5.- Heziketaren bateratasunaren alde gaude. Eskolan heziketaren bateratasun hori lortzeko nolako eragizpenak dauden badakigu, gizarte-mailakoak, haurren beren eragizpenak. Ezen ez baitira bidez bereziak, eta okerturik baitaude geroztik; eta badago ere beste koska bat, erakaslearen aldetik hau: erakasleek ez dakitela xuxen ezagutzen ez duten haurra nola osatuko den.

6-10, 27, 28 : Azalpide plastikoa, lantegiak, jinasia, txangoak eta azalpide dinamikoak, ekintza garrantzitsuak dira: haurra benetan haztea nahi badu, berak ere ongi hezia behar du izan erakasleak. Haurrak ez ditu ezagutu behar espezialisten bidez eta ez beste inola, ezta gaineko eskola-lanetik aparte, are gutxiago aukerako lan gisa, edo "eskola-antzeko" lan gisa ere, legezko araudiak larunbatari buruz dioten bezala edo.

Korapilo zail bat 8.gn. puntuan agertzen den "lan" hitza. Egiazko lanak eta eskolako lanak elkarrekin dituzten loturak aldatuz, hain zuzen, Eskolari buruz du

gun ideia ere alda daiteke.

11-17.- Ikastaro-ingurrazti honetanxe, uste dugu, aski garbi bi utzi dugu puntu hauei buruz guk lanari buruz dugun ideia. 15 gn. puntuari dagokionez galdera bat egingo go genuke ("haurren berezko interesel" buruz) hau pentsatuz: ia noraino heltzen zaizkigun joera horiek gizarte-inguramenduak markatuak; eta nola hartu behar diren kaltegarri eta zanpatzaitzat jotzen diren horretan: haurrak giro bimintzodun batetan bizi direlarik, askotan bi hizkuntza-talde desberdinen bilgune gogorrean. Erakasleak garbi ikusi beharko luke problema, bi hizkuntzen heziketa izan beharko luke., biak ermo eta sakon, arazoari aurre egiteko laguntza ofiziala izan beharko luke;hots, ez du horrelakorik deus.

Beste galdera bat:lagun gaitzakean klase-tresneriarena. Badakigu jakin, egiazko tenorean, gauza gutxi egin dezaketela:alegia, maisuak atea hetsi, eta hurrekin buruz buru gelditzen denean, jakintsuak eta idatzi dituzten liburu apartak aldamenen ez dituela dakielarik, ezta jakintsuek berek baino laguntza handiagoa eman dezakete, lankideak ere. Hurrekin buruz buru egoteko garaia heldu denean, orduan erreparatzen dugu bildurik dauden dukagun jakinduria hura guztia ez dela baliagarria, erreflejo ez baita. Beste gauza batez ere ohartzen gara: eraikitzen saiatu garen tresneriak (eskolan dagoena) ez duela lanetarako balio. Birrikaspena ere, lan-tresneria horren egokiera eta sortzapena, liburu zaharretatik hasi eta txartel pertsonaleraino, azkeneko berritasunetarai, berehalako arazo horietako bat da. Irudiaren irakurpenak eta haurrak makinarekin duen loturak gertaera eta kritika-ahalegin larri bat eskatzen dio haurrari.


18-20 .- Eskola-barruko programa-bideak d) puntuan agertuak izan dira.

- 21-23.- Lan honetantxe eskola-biltzarraz bildu duguna, auto-gobernuaz eta auto-justioaz bildu ditugunak, puntu horien gaurko presentazioa dira. Honen bidez egiazko autonomia pertsonal bat bilatzen da gizarte-baldintzetan, eta eraikitzeko gaitasuna.
- 24-26, eta 29,30.- Gure artean Ohitura eta Askatasuneko Heziketa gisa aztertua, haurrenen gizabidezko heziketak beste azken arazo bat dakarkigu:erakasleari baloreen emaitzan eskatzen zaion segurantziarena. Alderdi guztietako balore, bestalde:gizabidezkoak, intelektualak, artezkoak, erlijiozkoak,gizartezkoak... Gure antolamenduak beti eskatzen ditu, eta batzuk oso bereziki, gazteak gure gizartean denak eskuratu nahi dituenen; baina, erresumako erakasleen artean handia den gazteen parteari, segurantzia eman behar zaio :bai seguru dauden aldetik, baita (eta hau bitxia da) koloka dauden aldetik. Zer egin? Nola eraso arazoari? Alde batetik Gizarteak desgogara eskatzen dizkigun ideologia-segurantziak, eta bestetik haurrak hazteko behar duen segurantzia, egiaren eta okerraren jokora zabaltzeko beharrezkoa, gizonaren aldatzaile; eta hori guztia gu geukola gaudelarik? Problema gainera larriago egiten da : ezen ez baita iritzien eta jokabideen sorreraren martxa bakarrik aztertu behar dena; baina Eskola osoa, antolamenduan eta programazioan, finantza-kontuan, hautaketaren sistemei buruz, eta abar, oraingo gizarte-egituren zerbitzutan lanean ari den aparato gisa.

Badago zer bait egitekorik horretan :alegia, geure pertsona den bezelakoxea jarri behar dugu haurren zerbitzutan, haren gaitasunaren zerbitzutan eta ez geurean, ezen badakigu besterik ezin dezakegula egin, eta hortaz horretan dagoela eragintzarik handiena. Pedago

gi-bide zehatzetan ager daiteke jokabide hau, ikastaldeak dakarren guztiaren harreran, hau, jakina denez, molde berrietan eta belaun berriari dagokion ikuskeran baitator. Esate baterako : jokamolde horretan sartzen gaituzte eskolako autojestio-saiakuntzek. Baita ager daiteke ere eskolatik kanporaino azaltzen diren beste gauzatan, eta horrela agirian utzi eskola-egituren garrantzia heziketa-lanik zabalenaren baranoan.

Ohar bat azkenik : puntu eta zehazketa hauek guztiak erakasleek berek eman dituztela esatea, eskolako egia-tik abiatu-rik. Hots, zuek ere zeron laguntza eta irizpidea ematea nahi genuke, hauek geroan ondoko erakasleei lagun-garri gerta dakizkien.




HIZTEGI

Aberasketa	: enriquecimiento, enrichissement
Abiaburu	: punto de salida, point de départ
Adimen	: facultad de entendimiento, entendement
Adin	: edad, âge
Adostasun	: coincidencia, acuerdo, accord
Agertzapen	: manifestación, manifestation
Aginpide	: autoridad, autorité
Aginpidez	: por vía autoritaria, par voie autoritaire
Ahapeka	: cuchicheando, á voix basse
Ahalmen	: facultad, faculté
Alokatu(a)	: a sueldo, avec un traitement pour son travail
Aldakuntza-aldiak	: las fases de evolución, les phases évolutives
Alor	: campo, terreno, terrain
Aldera (tu)	: comparar, comparer
Antzinasun	: antigüedad, ancienneté
Araza	: problema, dificultad, difficulté
Argitzapen	: aclaración, éclaircissement
Ardatz	: eje, axe
Artelazki	: corcho, liège
Asmamen	: inventiva, capacité d' invention
Aurkatasun	: oposición, opposition
Aurkikunde	: descubrimiento, découverte
Aukera	: opción, option
Azalketa	: expresión, expression
Azalpide	: procedimiento de expresión, voie d' expression
Azalmen	: facultad de expresión, faculté d' expression
Azpi-marratu	: subrayar, sousigner
Azter (tu)	: analizar, analyser
Babespe	: protección, voie pour la protection
Barano	: terreno, terrain
Barnetasun	: intimidad, intimité
Barnetxe	: internado, internat
Baldintza	: condición, condition
Banaketa	: distribución, distribution
Barreiatu (a)	despistado, distrait
Bateratasun	: simultaneidad, simultanéité

Berezko	: natural, naturel
Berezilari	: especialista, spécialiste
Berezilaritza	: especialidad, spécialisation
Bereketa	: asimilación, assimilation
Berezketa	: diferenciación, différenciation
Berariaz	: a propósito, intentionnellement
Berrikuntza	: renovación, renouvellement
Berun	: plomo, plomb
Berin	: vidrio, verre
Betekizuna	: quehacer, besogne
Betets (i)	: admirar, admirer
Bilaketa	: búsqueda, recherche
Bilaka (tu)	: evolucionar, évoluer
Bimintzodun	: bilingüe, bilingue
Bimintzotasun	: bilingüismo, bilinguisme
Bir	: re-
Bizigune	: momento crítico, en la vida, moment critique
Bizigabe (tu)	: desvitalizar, dévitaliser
Bultzamen	: iniciativa, initiative
Deitura	: Apellido, nom
Desegoki	: inoportuno, inopportun
Desnortu	: despersonalizar, dépersonaliser
Dinatasun	: dignidad, dignité
Doi	: matiz, nuance
Egitura	: estructura, structure
Egituraketa	: estructuración, structuration
Egiketa	: acción, action
Egitekoak	: los quehaceres, la besogne
Egoki (tu)	: adaptarse, s' adapter
Egokiera	: Adaptación, adaptation
Elkar-laguntza	: colaboración,
Elkarketa	: entrevista, encuentro, rencontre
Elika (tu)	: alimentar, alimenter
Elkartzapen	: coordinación, coordination
Emendio	: aumento, augmentation
Emenda (tu)	: aumentar, augmenter
Erakaskuntza	: enseñanza, enseignement
Eraikikuntza	: construcción, (proceso), construction (procès)

Erantzukizun	: responsabilidad, responsabilité
Eraso	: atacar, attaquer
Entzuleri	: auditorio, auditoire
Erabakimen	: capacidad de decisión, capacité de décision
Eratxiki	: adherir, ajouter
Errezel	: cortina, rideau
Errediza	: mueble, meuble
Errara	: horizontal
Esanerako	: dictado, dictée
Eskolatzaile	: educador, éducateur
Eskuar	: asequible, normal, á la portée de la main
Eskuarki	: normalmente, normalement
Ezagugarri	: característica, caractéristique
Fidakor / fidagaitz	: confiado, confiant / desconfiado, méfiant
Frogaketa	: demostración, démonstration
Funtsabide	: método de motivación, motivation
Funtsa (tu)	: fundamentar, motiver, motiver
Funtsezko	: fundamental, fondamental
Gailen (du)	superar, dépasser
Gaindi (tu)	superar, dépasser
Gaitasun	: capacidad, capacité
Gaitzaspén	: desaprobación, désapprobation
Garrantzi	: importancia, importance
Gauzaki	: objeto, objet
Gaztiga (tu)	: avisar, informer
Girokuntza	: ambientación, préparation de l'ambiance
Giharra	: músculo, muscle
Gizauren	: héroe, héros
Gizarte	: sociedad, société
Gizarteko	: social
Gizartekuntza	: socialización, socialisation
Gizabide	: moral,
Gotorki	: (un) sólido, (un) solide
Gurtza	: adoración, adoration
Harremanak	: las relaciones, les rapports
Hastapen, hasera	: comienzo, commencement
Hazkarri	: pistilo



Hazkunde	: desarrollo, développement
Hazkurri	: alimento, aliment
Haztamu	: tanteo, tâtonnement
Hautu	: elección, choix
Herabeti	: tímido, timide
Higi (tu)	movearse, bouger
Hizla (tu)	: perfilar, profiler
Hobari	: ventaja, avantage
Hodia	: tubo, tube
Idatz (i)	: escribir, écrire
Idazkizko	: escrito, écrit
Idazkuntza	: escritura, écriture
Idaroki	: sugerir, suggérer
Idurika (tu)	: imitar, imiter
Iduriketa	: imitación, imitation
Ikasaldi	: período de estudio, période d' étude
Ikastalde	: clase (grupo de alumnos), groupe des élèves
Ikasgela	: clase (local), la pèche
Ikastaro	: curso, cours
Ikaspen	: aprendizaje, apprentissage
Iker (tu)	: examinar, examiner
Ikuskera	: manera de ver, façon de voir
Inarkun	: función, fonction
Inkesta	: encuesta, enquête
Inguramendu	: medio, environnement
Isuralde	: cuenca, bassin
Istripu	: accidente, accident
Izadi	: Naturaleza, Nature
Izenpuru	: título, titre
Itzulgarri	: reversible, réversible
Jabego	: propiedad, propriété
Jabekuntza	: adquisición, acquisition
Jarraikiro	: con continuidad, avec continuité
Jarraipide	: modelo, guía, guide
Jarrera	: posición, position
Jasamen	: aguante, capacité de tenir
Jokabide	: comportamiento, comportement

Kopuru	: número, nombre
Kurribide	: circuito, circuit
Kurri (tu)	: recorrer, parcourir
Lagunartetasun	: sociabilidad, sociabilité
Lanbide	: profesión, profession
Lilitegi	: parvulario, jardin d' enfants
Lizifrina	: disciplina, discipline
Lorezil	: estambre, estambre
Mailaketa	: gradación, classement par niveaux
Maiztasun	: frecuencia, fréquence
Malgu	: flexible,
Marrazki	: dibujo, dessin
Marraztu	: dibujar, dessiner
Martimuilo	: rodillo, rouleau
Masakuntza	: masificación, massification
Mentura	: 1 / azar / - hasard. 2 / aventura / aventure
Mogitza	: movilidad, mobilité
Mokor	: bloque, bloc
Neurgarri	: medida, mesure
Neurketa	: estimación, operación de medida, mensuration
Nolakotasun	: cualidad, qualité
Nora (tu)	: orientarse, s' orienter
Obrakuntza	: realización, réalisation
Oguzkera	: pronunciación, prononciation
Oharreraz (i)	: señalar, signaler
Oharketa	: observación, observation
Ohol	: Tabla, planche
Oldartasun	: agresividad, agresivité
Oldezko	: espontáneo, spontané
Ondorio	: consecuencia, conséquence
Ontzako	: aprobación, approbation
Ordain (du)	substituir, substituer
Oreka	: equilibrio, équilibre
Oroitarri	: Monumento, monument
Orokor	: Global

Orokorkuntza	: Globalización, globalisation
Orokortasun	: globalidad, globalité
Orokortzaile	: globalizante, globalisant
Osakin	: componente, osakin
Parteka	: compartir
Saiakuntza	: experimentación, expérimentation
Sail	: sección, section
Sena	: instinto, instinct
Senaz	: instintivamente, instinctivement
Sendikor	: sensible,
Sendikortasun	: sensibilidad, sensibilité
Sistemakuntza	: sistematización, systématisation
Sortzapen-lan	: trabajo de creación, travail de création
Tolostura	: doblez, duplicité
Trukabide	: medio de intercambio, moyen d'échange
Trukagarri	: recíproco, réciproque
Txango	: excursión, excursion
Txartel	: ficha, fiche
Txerto	: vacuna, vaccination, piqûre
Txosten	: informe, rapport
Ulerkuntza	: comprensión, compréhension
Umo (tu)	: madurar, mûrir
Urki	: líquido, liquide
Ustia (tu)	: aprovechar a fondo, profiter jusqu'au bout
Zabalera	: área, étendue
Zehaztasun	: exactitud, exactitude
Zertzelada	: détail, circonstance, detalle
Ziriku	: seda, soie
Zuhamuska	: arbusto, arbrisseau
Zut	: vertical
Zuzenapen	: justificación, justification